



*Hirigintza,
Etxebizitza eta
Ingurumena,
genero
ikuspegitik*



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*Hirigintza,
Etxebizitza eta
Ingurumena,
genero
ikuspegitik*

EMAKUNDE/

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

IZENBURUA: "Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena, genero ikuspegitik"
EDIZIOA: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier kalea, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
KOORDINAZIOA: Joseba Ossa
ITZULPENA: BAKUN Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.
TESTUEN ORRAZKETAK: Enara Azkue
MAKETA: Maria Alba
AZALEKO ILUSTRAZIOA: Ander Hormazuri
ARGITALPEN DATA: 2003ko uztaila
TIRADA: 1.000 ale
DESKRIBATZAILEAK: Arkitektura, hirigintza, emakumezko arkitektoak, hiriko emakumea, genero azterketak, ekintza positiboak, simposioak
INPRIMAKETA: Gráficas Marcal, S.A.
ISBN: 84-87595-90-1
LEGE GORDAILUA: BI-2178-03

Salneurria: 12 euro

AURKIBIDEA

AURKEZPENA7

LEHENENGO ZATIA:

“ARKITEKTURA, HIRIGINTZA ETA EGUNEROKO BIZITZA”9

**Zonifikazioa eta generoen arteko desberdintasunak: hirigintza modernoaren
ezkutuko baldintzak**11

Constanza Tobío

**Hirigintza berri baterako proposamenak: esperientzia berritzaileak
hirigintzaren planeamenduan**31

Isabel Velázquez / Aurora Justo

**Eraikitzea, bizitzea, pentsatzea... emakumea eraikitze lanetan,
etorkizuneko proiektua**43

Ana Estirado Gorria

**Eraikitzea, bizitzea, pentsatzea... emakumea eraikitze lanetan,
etorkizuneko proiektua (2. zatia)**59

Cristina García-Rosales

BIGARREN ZATIA:

**“GENERO IKUSPEGIA SARTZEA HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA, GARRAIO
ETA INGURUMEN POLITIKETAN”**69

Aurkezpena

Ondo ezaguna da oraindik ere gizonezkoek eta emakumezkoek eginkizun desberdinak hartzen dituztela bere gain. Eta horrek, nahi eta nahiez, denbora eta espazioaren erabilpen desberdina egitera behartzen ditu batzuk eta besteak. Hori dela eta, lurralde antolaketak bai gizonen bai emakumezkoen beharrak hartu beharko lituzke kontuan. Horretarako, hiriak diseinatzerakoan, ezinbestekoa da ekoizpen munduaz gain, erreprodukzio arloa ere kontuan hartzea.

“Hiriko Emakumearen Gutun Europarrak” (1993) hiria eta udalerria ikuspegi filosofiko berri batez ikusteko beharra jasotzen du. Asmoa benetako eztabaida demokratikorako ekarpena egitea da, gure herriak eta hiriak osatzen dituzten gizon-emakumeen beharren eta itzaropenen berri emateko.

Aalborgeko Gutunak (1994), *“Jasangarritasuneranzko Hiri Europarren Gutunak”*, lan eta funtzio erabakien egiturak aipatzen ditu eta, ondorioz, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak, besteak beste, lurzorua banatzean, garraioak erabiltzean, aisialdiko ekintzak egitean, ingurunea zaintzean, eta abarrean.

Bestetik, *Garapenari buruzko Nazio Batuetako Mundu Konferentziak* eta Pekinen egindako *Emakumeen IV. Mundu Konferentziak* (1995) onartutakoaren arabera, garapen jasangarriko politikek emaitzak lortzeko, epe luzera, beharrezkoa da gizonen eta emakumeen berdintasunezko partaidetza kontuan hartzea.

Testuinguru horretan, Gobernu Kontseiluak *EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana: Genero Ikuspegia Politika Publikoetan* izeneko plana onartu zuen, 1999ko abenduan. Oraindik indarrean dagoen Planak bultzada handia eman die berdintasunaren aldeko politikei, aurretiko planetan jasotako planteamendua sendotzen baitu, hau da, ekintza positiboko neurriak garatzeaz gain, “mainstreaming” edo genero ikuspegia politika publiko guztietan integratzea ere sustatzen delako. Hori dela eta, gizon-emakumeen esperientziak, beharrak eta interesak kontuan hartu behar dira, programa bateko garapen fase guztietan: plangintzan, gauzatzean eta ebaluatzean.

III. Plan horrek, berrikuntza gisa, *“Hirigintza eta Lurralde Antolamendua eta garapen jasangarriari”* buruzko arlo zehatz bat du, beharrezkoa baita gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak kontuan hartzea, gure herriak eta hiriak antolatzean eta planifikatzean, batzuen eta besteen bizi kalitatea hobetzeko eta, azken finean, bizitzeko inguru gizatia-rragoak sustatzeko.

Arlo horren baitan zenbait prestakuntza ekintza antolatu dira, eta horiek aurkezten dira argitalpen honetan. Argitalpena bi ataletan dago egituraturik. Lehen atalean, zenbait ponentzia jasotzen dira, Gasteizen "Arkitektura, hirigintza eta eguneroko bizitza" lelopean egindako jardunaldian aurkezturikoak. Bigarrenean, berriz, "Genero ikuspegia sartzea hirigintza, etxebizitza, garraioa eta ingurumeneko politiketan" izeneko dokumentua jasotzen da. Dokumentu hori zenbait barne mintegi egiteko prestatu da, dagozkien eskumen esparruko profesionalekin. Bestalde, lan horretan, hausnarketa teorikoa egiteaz gain, nazioarteko hirigintza prozesuetako parte hartzeen zenbait erreferentzia ere aipatzen dira, eta baita eztabaida tailer batean ateratako ondorioak ere, aipaturiko mintegien esparruan.

Material horiek, iradokizunak eta jasotako ondorioak lagungarri izango dira, ezbairik gabe, erakunde arduradunek proposamen horiek eta beste batzuk garatu ahal izateko.

A handwritten signature in blue ink that reads "Txaro Arteaga". The signature is enclosed in a large, loopy oval shape, with a long, thin tail extending downwards and to the right.

Txaro Arteaga Ansa
EMAKUNDE/Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria

“ARKITEKTURA, HIRIGINTZA ETA EGUNEROKO BIZITZA” JARDUNALDIAREN PROGRAMA

2001eko irailaren 18a

09'30 HASIERAKO EKITALDIA

Ana I. Oregi Bastarrika

Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila

Izaskun Moyua Pinillos

Emakunderen Idazkari Nagusia

Koordinatzailea: Ana Agirre Saez de Egilaz

Emakunderen Prestakuntza Arduraduna

09'45 “ZONIFIKAZIOA ETA GENEROEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK: HIRIGINTZA MODERNOAREN EZKUTUKO BALDINTZAK”

Constanza Tobío Soler

Carlos III.a Unibertsitatea. Madril

10'30 SOLASALDIA

10'45 “HIRIGINTZA BERRI BATERAKO PROPOSAMENAK: ESPERIENTZIA BERRITZAILEAK HIRI PLANGINTZAN”

Isabela Velázquez Valoria

Aurora Justo Moreno

“Emakume hirigileak” taldea

11'30 SOLASALDIA

11,45 ETENALDIA

12'15 "ERAIKITZEA, BIZI IZATEA, PENTSATZEA... EMAKUMEA ERAIKITZE LANETAN,
ETORKIZUNEN PROIEKTUA"

Ana Estirado Gorria andrea

Cristina García Rosales andrea

Arkitektoak

13'00 SOLASALDIA

13'30 JARDUNALDIAREN AMAIERA

CONSTANZA TOBÍO

Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea

Zonifikazioa

eta generoen

arteko

desberdintasunak:

Hirigintza

modernoaren

ezkutuko

baldintzak

Espazioa eta denbora errealitatea eratzeko oinarritzko kategoria moduan aurkezten zaizkigu; beharbada, horregatik da hain zaila onartzea bere egituraketa ere –ekonomiaren, gizarte erakundearen edo balioen eta sinesmenen egituraketaren moduan– eraikuntza soziala dela¹. Ildo horretatik, 60ko hamarkadako hiri soziologiaren ekarpen nagusia honako hauxe izan zen: hiriko espazioa klaseen kontraesanen ondorioa eta bere berezitasunekiko gatazka sozialak agertzen diren lekua dela ulertzea, eta ez ekoizpen gatazken isla hutsa². Modu horretan, urbanoa eremu sozialean kokatu behar zen (beraz, eraldagarria), Giza Ekologiako Chicagoko Eskolaren aurreko ikuspegiak zioenaren aurka. Ikuspegi horrek hirigintza prozesuak naturako mekanismo darwinisten parekotzat ulertzen ditu³.

Hala ere, hirien planifikazioak 20ko eta 30eko hamarkadetako hirigintza modernoaren eta arrazionalistaren izaera du, oraindik ere. Orduko hirigintza horren oinarriak Atenasko Gutunean daude jasota⁴. Hiri zonifikatuak eta arrazionalak aurre egiten dio hiri jendeztatuari eta osasungaitzari. Azken hori oso ohikoa zen XIX. mendeko industrializazioan: langileen etxe gero eta gehiagoren ondoan, fabrikak eta lantegiak ezartzen diren, lehendik ere nahiko metaturik zeuden hiriguneetan. Horren aurrean, fabrika eta etxe guneak bereiztearen alde dago hirigintza modernoa, baita bizileku guztietan eguzki eta aire maila minimoak edukitzearen alde ere. Baina hiri pre-modernoaren beste alderdi batzuk ere kezka iturri izan ziren, adibidez: “gizarte klase arriskutsuak”

¹ Berger-ek eta Luckman-ek “errealitatearen eraikuntza soziala” kontzeptua ulertzen duten moduan, hau da, prozesu multzo bat gisa. Prozesu horien bidez, ezagutza multzo bat gizartean ezartzen da, ikus *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires, 1989, 13-15.

² Korrante horren oinarritzko testua Manuel Castellsen *La cuestión urbana* da (Siglo XXI, Madril, 1976). Ildo horretako, ikerketa enpiriko interesgarrienak honako hauek dira: Castells, M. *Sociología del espacio industrial*, Ayuso, Madril, 1976; Castells, M. *Crisis urbana y cambio social*, Siglo XXI, Madril, 1981; Pinçon-Charlot, M. et al. *Ségrégation urbaine. Classes sociales et équipements collectifs en Région Parisienne*, Anthropos, Paris, 1986.

³ Batetik, oinarritzko testu batzuen bilduma interesgarria eta, bestetik, hitzaurre bat. Park, Burgess, McKenzie eta Wirth autoreen oinarritzko testuak eta Chicagoko eskola kokatzeko baliagarria den testuinguru teorikoari buruzko hitzaurrea, in Grafmeyer, Y. eta Joseph, Y. *L'école de Chicago*, Aubier, Paris, 1990.

⁴ Le Corbusier, *Principios de urbanismo*, Ariel, Bartzelona, 1979.

matxinatuko ote ziren, etxe metaketak ekar zezakeen promiskuitatea eta prostituzioa⁵. Agian, Elizabeth Wilson-ek adierazten duen moduan, kaleetan emakumeak ibiltzearen kontrako joera baizik ez zen, kontrolik gabeko masek sortzen duten izuaren metafora, ordenaren apurketa⁶.

Hirigintza modernoarentzat, hiriaren erabiltzailea *homo urbanisticus*tzat hartzen da, eta zentzuz dauzka araututa bere zeregin nagusiak –bizitzea, lan egitea eta zirkulatzea–. Zeregin horiek zabaldu egin daitezke beste edozein lekutara edo denboratara⁷. Baina baldintza batzuk daude azpian gordeta: industria dela ekonomi jarduera nagusia, edo genero rolen bereizketan oinarritzen dela familia eredua. Horrela, zonifikazioaren printzipioak –hau da, zeregin eta gizabanako bakoitzari bere espazioa dagokio⁸–, espazioa generoaren arabera bereizi beharra ere badakar: lanaren espazioa gizonarena da, eta bizitzaren espazioa emakumearena. Lanaren eta bizitzaren dikotomiak, baina, gizonaren ikuspuntua islatzen du, berarentzat elkarren kontrakoak baitira lana (saiatu beharra eta nekea) eta etxea (atsedena eta indartzea).

Emakumeen ikuspuntutik, bizitzea ez da soilik bizilekuaren etiketa daraman espazioa soilik, baita eguneroko lana ere, eta horrek egiten du lekua bizigarri; bizilekua laneko lekua da emakumeentzat. Aitortu beharra dago, baina, Le Corbusier-ek *La ville radieuse*⁹ lanean erakusten duen emakumea ez dela etxeko langilea; etxeko lanak soiltzeko eta elkarbanatzeko hainbat elementu aurkezten ditu, emakumea guztiz murgil dadin familia bizitzan (horrek duen esa-

⁵ Hall, P. *Cities of tomorrow*, Blackwell, Oxford UK eta Cambridge USA, 1988.

⁶ Wilson, E. "L'aménagement de l'espace: considérations culturelles et rôle des femmes" in OCDE, *Les femmes et la ville. Logements, services et environnement urbain*, Paris, 1995, 43-50.

⁷ Le Corbusierren hirigintza teoriaren izaera etnozentrikoa agerian geratzen da bere printzipioei leialen diren bi lanetan: Chandigarh eta Brasilia. Biak, paradoxa bada ere, mendebaldeko mundu garatutik urrun daude. Bietan, hirugarren munduko hirigintza hazkundearen logikaren arabera garatutako eta kalitate penagarriko etxebizitzek osatutako herrixka sateliteek hiri planifikatua gainditu dute. Hiri naturalek, nahiz miserian egon, bizitasun bat dute, ortodoxia arrazionalistaren arabera diseinatutakoek ez dutena; ikus Sachs, I. "Vulnerability of Giant Cities and the Life Lottery" in M. Dogan eta J.D. Kasarda, *The Metropolis Era. A World of Giant Cities*, 1. liburukia, Sage Publications, Kalifornia, 1988.

⁸ Atenasko Gutunean honakoa adierazten da: "Zonifikazioa hirigintza plano batean funtzio eta gizabanako bakoitzari leku egokia aurkitzeko asmoz egiten den lana da"; ikus Le Corbusier, op. cit. 45.

⁹ Le Corbusier *La ville radieuse*, Vincent, Freal et Cie, Paris, 1963.

nahi gorenean), baina ez gizonen antzera lan egiteko¹⁰. Badirudi hor azpian dagoen eredu emakume burgesarena dela; gizartea eta espazioa zentzuz antolatuz gero, goiko mailena ez ezik jende guztiarena ere izan daiteke. Gizonezkoen utopia bat da hori, eta Espainian egin berri den inkesta baten arabera, prestakuntza apaleneko emakume langileak bakarrik datoz bat horrekin. Emakumeen fantasiak mutur batetik bestera doaz: batetik lantokian gizonak adina izan nahia –hau da, boterea eta arduraren eskuratzea– emakumeak etxean duen paper nagusi tradizionala galdu gabe, eta bestetik berdintasunaren diskurtsoa: lana eta familia gizonak eta emakumeak elkarren artean banatu beharrekoak dira¹¹.

Gizabanakoa, berez, hirigintza modernoaren subjektua ez dela ere planteatu daiteke, familia baizik, familia nuklearra eta patriarkala¹² maila aldaezinera goratuta, gizarteko unitate minimo bereizgarri bat, eta, bertan, zereginak multzo baten parte diren gizabanakoen artean banatzen dira, nork bere rola duela. Iritzi hau bat dator hirigintzaren printzipioak ezartzen diren urteetan pentsamendu funtzionalistak izandako hegemoniarekin.

Izan ere, hiri zonifikatuaren eta bereiziaren funtzionamenduak gizonen eta emakumeen artean funtzioak zorrotz elkarbanatzea eskatzen du. Bizitzea funtzioari espazio bat dagokio etxearen inguruan, tarte txiki mugatu bat, normalean oinez egiten dena, eta bertan daude egunero erabiltzeko ekipamenduak (eskola, denda, parkea...). Lan egitea funtzioari leku bakar batera joan beharra dagokio, lantokira joatea, eta tarte hori oso handia izan daiteke, eta, es-

¹⁰ Owenen, Fourieren edo Godin-en proposamen utopikoetan, etxeko lanen sozializazioa planteatzen da eta eredu familiarren aurka doan eredu komunitarioa proposatzen da. Hala ere, emakumeek tradizionalki emakumezkoen jarduerak izan direnak egiten dituzte gehienbat. Esate baterako, Owenen proposamenak honako hauek dira: emakumeen lehenengo lana seme-alabak zaintzea eta etxea txukun edukitzea zen; eta gero, guztiak elikatzeko baratzak lantzeaz arduratzea; hirugarrenik, beren ezaugarrietara egokitzen diren industria sektoreetan lan egitea, baina ez lauzpabost ordu baino gehiago egunero; laugarrenik, komunitateko biztanleentzako arropaz arduratzea eta azkenik, guztiontzako jana prestatzen txandaka lan egitea”, ikus Benévolo, L. *Los orígenes del urbanismo moderno*, Blume, Madril, 1979, 68.

¹¹ Tobío, C.; Arteta, Q. eta Fernández Córdón, J.A. “Estrategias de compatibilización familia-empleo. España años noventa” Madrilgo Universidad Carlos III/ Instituto de la Mujer, Madril, 1996.

¹² Louis Roussel-ek moderno deritzon familiak hiru azpimultzo ditu: familia itxia (bere baitara bildua), familia irekia (seme-alaben bitartez mailaz igotzean arretera jarrita duena) eta familia ospitalea (gizon langileak atsedean hartzeko lekua), ikus Roussel, L. *La famille incertaine*, Odile Jacob, Paris, 1989, 53-78; eta Lawrence Stoneren “familia nuklear itxia”, ikus Stone, L. *The Family, Sex and Marriage in England, 1500-1800*, Weidenfeld and Nicolson, Londres, 1977.

kuarki, ibilgailuan joan beharrekoa. Bizitza posible egiteko, norbaitek, emakumeak hartzen du leku horren ardura; bere jarduna bestelakoa da eta ia bateraezina lanarekin eta eskatzen duen mugikortasun handiarekin.

Hirigintza modernoan, beraz, badago gizonaren eta emakumearen artean espazioak bereizteko asmoa, eta horrek, segur aski, harremana du XIX. mendean aipatzen ziren hirietako gaitzekin, batez ere emakumea bereak ez diren lekuetan –lantegi eta kaleetan– ibiltzearekin. Eredu burges hori –emakumea etxeko gune pribatura biltzea, gune publikotik gero eta urrunago– zabalduz doa, pixkanaka, gizarteko beste mailetara ere, izatearen planoan, bederen.

Daphne Spaine¹³ gizarte eta une historikoen artean, sexuen leku bereizketaren eta emakumeen gizarte mailaren artean dagoen harremana aztertu du. Ondorioztatu duenez, gizonaren eta emakumearen lekuak zorrotzen bereizita emakumeen status, botere eta gaitasun ekonomiko eskasagoa denetan dago. Aldiz, emakumea eskubide osoz gizartera biltzeak ezabatu egiten du sexu bakoitzaren leku bereizketa; oro har, emakumea zenbait lekutara sartzeko debekua da; batik bat eza-gutza teknikoak edo sinbolikoak irakasten diren lekutara, eta gizartean lan egiteko prestatzen den lekutara. Horiek guztiak prestigioaren eta oniritzi sozialaren oinarriak dira.

Laburbilduz, koherentzia dago, ideologikoa ez ezik, baita funtzionala ere, zonaldeka banatutako hiriaren eta genero rolak bereizten dituen familiaren artean. Honela, espazioaren antolaketak genero desberdintasunak islatu eta, gainera, indartu egiten ditu.

2.

Nola erabiltzen dute emakumeek hiria

Hiri modernoaren arazo larria da “zirkulatzea”, hau da, nola komunikatu bizilekua eta lantokia. Gizabanakoarentzat, egunero etxetik lanera joateko biderik malguena automobil pribatua da, baina horrek inbertsio publiko handiak eskatzen ditu azpiegituran. Automobilean oinarritutako garraioak posible egiten du zonifikatzea, eta, izan diren hobekuntza teknologikoei es-

¹³ Spain, D. *Gendered Spaces*, The University of North Carolina Press, 1992.

ker, zonaldean banatutako hiria handituz doa. Garraio publikoa, eskuarki, beranduago heltzen da, hirigunea erabat sendotu denean, eta bere hedapena ez da sekula izaten automobilarena adinakoa. Gaur egun, Mendebaldeko Europan, ibilgailu bat hartzen dutenen %80ak automobila erabiltzen dute eta pertsonen mugikortasuna, egiten den distantziari dagokionez, bikoiztu egin da 1960 eta 1990 bitartean¹⁴. Automobila da hiri modernoko protagonista nagusia, eta bere funtzionamenduaren mende dago hirigune osoa. Hiria erabiltzeko beste moduak baztertuta daude; automobilak bere lekua zehaztu eta bete ondoren geratu denarekin konpontzen baitira. Nolanahi ere, hiriaren barruan gutxiengoa dira: batez ere gizonezko langileak dira automobil pribatua erabiltzen dutenak¹⁵.

Emakumeak beste modu batean erabiltzen du hiria, azken urteotan egin diren azterketa askotan azaldu den moduan¹⁶. Emakumea gizona baino askoz gehiago mugitzen da oinez, nahiz eta gizona ere hala mugitzen den gehien (Madrilgo datuen arabera, emakumeak hirian egiten dituen ibilaldietatik %59 oinez egiten ditu, eta gizonak %42).

Aldiz, askoz gutxiago mugitzen dira automobilerik (emakumeen desplazamenduen %11,5, eta gizonen %27¹⁷). Hori bat dator familia tradizionalan emakumeak duen funtzioarekin, erabiltzen duen espazioa etxearen ingurura mugatuta egoteak ezaugarritzen baitu.

¹⁴ Kunzmann, K. R. eta Wegener, M. "The Pattern of Urbanization in Western Europe", Institut für Raumplanung, Dortmund, 1990, 9-10.

¹⁵ Madrilgo 1988an egindako Origen-Destino Inkestaren datuen arabera, gizonezko langileen %51 automobilerik joaten da lanera, %31 garraio publikoan eta %15 oinez; ikus Tobío, C. "Movilidad y género en el espacio urbano" in Tobío, C. eta Denche, C. (ed.) *El espacio según el género, ¿un uso diferencial?*, Madrilgo Universidad Carlos III/Madrilgo Komunitateko Dirección General de la Mujer, 1995, 55-72.

¹⁶ Besteak beste, Altman, Y. eta Churchman, A. (ed.) *Women and the environment*, Plenum Press, New York, 1994; Massey, D. *Space, Place and Gender*, Polity Press, Cambridge eta Oxford, 1994; Katz, C. eta Monk, J. (ed.) *Full Circles: Geographies of Women Over the Life Course*, Routledge, New York, 1993; Wilson, E. *The Sphinx in the City: Urban Life, the Control of Disorder and Women*, Virago, University of California Press, Londres eta Berkeley, 1991. Espainian, Tobío, C. eta Denche, C. op. cit.; Sabaté, A, et al. *Mujeres, Espacio y Sociedad. Hacia una Geografía del Género*, Síntesis, Madril, 1995; Federación Española de Municipios y Provincias *Mujer y Urbanismo. Una recreación del espacio*, Instituto de la Mujer, Madril, 1996; Bisquert, A. eta Navarro, I. "Ciudad y mujer", *Urbanismo y Mujer. Nuevas visiones del espacio público y privado* ikastaroaren aktak, Malaga, 1993 eta Toledo, 1994; Prats Ferret, M. et al. *Las Mujeres y el uso del tiempo*; Institut d'Estudis Metropolitans/Instituto de la Mujer, 1995.

¹⁷ Tobío, C. op. cit., 62.

Era berean, emakume langileek ere gutxiago erabiltzen dute automobila eta leku txikiagoan mugitzen dira. Madrilekin jarraituz, emakume langileak, gehienbat, garraio publikoan joaten dira lanera (ehun joanalditik 51,5), eta gizonen kasuan datua %32 da¹⁸. Europako eta AEBetako beste ikerketa batzuetan ere, genero desberdintasun antzekoak azaldu dira hirian mugitu eta garraioak erabiltzeko orduan¹⁹. 1986an, Bartzelonan egindako Inkesta Metropolitanaren datuen arabera, ehun emakume langiletatik 35 etxea zuten auzoan bertan ari ziren lanera, eta datu hori %20ra murrizten zen gizonen kasuan²⁰. Handik lau urtetara guztien kasuan zabaldu egin zen lantokiaren eremua, baina bere horretan jarraitu zuen sexuaren araberako aldeak: ehun emakume langiletatik 32 etxea zuten auzoan ari ziren lanean, eta ehun gizon langiletatik 18,5²¹.

Generoaren, lanaren eta lekuaren inguruan egindako ikerketa batean, Hanson-ek eta Pratt-ek Iparramerikako emakumeek lantokira joaten behar duten denbora gizonena baino txikiagoa zergatik izan ohi den –eta oraindik ere hala den– aztertu dute. Eta, horren ondorioz, hartara mugatuagoa daude emakumeak lana aukeratzean, eta etxe inguruko lan eskaintzaren mende daude, gizonak baino areago. Gizonak eta emakumeak etxetik lanera egiten duten tartea berdintzen duten arrazoi nagusien artean daude lanaren maila eta irabaziak. Hau da, lan maila eta irabazi handiko emakumeek tarte handia egin behar dute lantokiraino, batez beste gizonak adinakoak. Aldiz, egoera zibilak edo seme-alaben kopurua ez ziren arrazoi hain garrantzitsuak.

Horrek sortzen duen galdera da ea emakumeek etxe ondoan lan egitearen arrazoiak prestakuntza eta soldata apaleko lan izateagatik den, eta, beraz, ez duela merezi etxetik urruti lan

¹⁸ Ibid., 67.

¹⁹ Stein, U. "Viviendas, ciudades y regiones desde el punto de vista de las mujeres. Experiencias de planificación en Alemania Occidental" in Tobío, C. eta Denche, C. op. cit. 87-104; Giuliano, G. "Public transportation and the travel needs of women" *Traffic Quarterly*, 33, 1979, 607-16; Hanson, S. eta Johnston, Y. "Gender differences in work-trip length: explanations and implications" in *Urban Geography*, 6, 1985, 193-219.

²⁰ Bartzelonako Institut d'Estudis Metropolitans *Enquesta Metropolitana 1986. Condiçions de vida i hàbits de la població de l'area metropolitana de Barcelona. La desigualtat social de les dones*, 18. liburukia, Bartzelona, 1988.

²¹ Bartzelonako Institut d'Estudis Metropolitans *Enquesta de la Regió Metropolitana de Barcelona 1990. Condiçions de vida y hàbits de la població. L'espai de vida dels habitants de la Regió Metropolitana de Barcelona*, 8. liburukia, Bartzelona, 1993.

egitea, edo, bestela, etxe ondoan lan egitea ezinbestekoa den familiako ardurengatik, horrek murriztu egiten baitu lana lortzeko aukera. Hau da, emakumeen lan esparru txikiago hori lan maila edo soldata apalagoen ondorioa ala arrazoia den²².

Aurreko galderari erantzuteko, bada datu bat interesgarria izan daitekeena. Oro har, 1988an, Madrilen sarrigo mugitu ziren gizonak –egunean 2,49 aldiz– emakumeak baino –egunean 2,38 aldiz–. Dena dela, emakume langileak sarrigo mugitu ziren –egunean 2,81 aldiz– gizon langileak baino –egunean 2,67 aldiz–²³. Horrek argi erakusten du emakume langileek etxean eta kanpoan lan egin beharra, eta segur aski horregatik da lanerako baldintza etxetik hurbil egotea.

Emakumeek hiriarekin duten harremanak baditu beste desberdintasun batzuk ere. Adibidez, hirien diseinuak emakume askorengan egunero eragiten dituen estutasuna edo beldurra. Apar-kalekuak, tunelak, pasadizoak edo kalezuloak, batez ere argitasunik ez badaude edo ilunak baldin badira, kezka iturri handiagoak izaten dira emakumeentzat gizonentzat baino, eraso sexualak direla eta. Bestalde, indarkeriak erasandako hiri edo auzo batzuetan, barneratuko izuak atzera eginarazten die emakumeei leku publikoetatik.

Kanadan, gai horri buruz nazio mailan egindako inkesta batek erakutsi duenez, emakumeen aurkako eraso gehienak etxean izan ziren arren, emakume askok estuasuna sentitzen du leku publikoetan, eta beldur horrek askotan zerikusia du inguruko eraikuntzen hirigintza eta arkitectura ezaugarriekin. Ikerketa horren emaitzetan oinarrituz, Kanadan proiektu bat abiarazi zen, maila federalean eta lokalean, hiriak seguruagoak izan zitezen, batik bat emakumeentzat, batez ere eurei eragiten baitie beldurrak eta indarkeriaren errealitateak. Besteak beste, hirien planifikazioan segurtasuna du helburu, eta gomendio zehatzak ematen ditu ikusgarritasunaz, argiztapenez, zonalde bakartuen tratamenduaz, etab.²⁴

Hiria leku erreala da, baita leku sinbolikoa ere, gizartearen antolaketa eta gizarte taldeen estatusa islatzen duena. Hiriaren pertzepzioa aztertzeko lanak Lynch-ek hasi zituen, hiriaren

²² Hanson, S. eta Pratt, G. *Gender, work and space*, Routledge, AEB eta Kanada, 1995, 93-119.

²³ Tobío, C. op. cit., 60-61.

²⁴ Wekerle, G. "La violence contre les femmes: des villes sûres: initiative fédérales et municipales canadiennes", OCDE-en *Les femmes et la ville: logement, services et environnement urbain* gaiaz egindako Konferentzian komunikazioa, Paris, urriaren 4tik 6ra, 1994.

formak bertako biztanleentzat duen esanahia landu baitzuen²⁵, eta Rapaport-ek garatu zuen zabalago, espazioaren eta gizartearen arteko hausnarketarekin, irudikapen mentalen ikuspuntutik²⁶.

María ángeles Durán-ek²⁷ azaldu duenez, hiriko izenak hiriko lekuak dira, guneak bereizten baitituzte, eta izenarekin bat egiten du lekuak, bere izaera emanez. Hiritik jasotzen duguna ez dira soilik elementu materialak, hala nola, dorreak, plazak edo banakako elementuak; kaleen izenak ere hiriaren egitura eta izaeraren zati dira. Agerian denaren bitartez iker daiteke toponimia, eta, baita, ageri ez denaren bitartez ere –“ektopenimia”–, hau da, izenik ez duten lekuak eta lekurik ez duten izenak. Madril hirian, kaleen izenen herena, gutxi gorabehera, gizaki dimorfizatuena da, eta emakumeenak baino sei bider gehiago dira gizonenak. Gainera, kaleen emakumezko izen gehienak Ama Birjinarenak, santenak, erreginenak edo aristokrateenak, ordena erlijiosoenak edo emakume ezezagunenak dira. Aldiz, gizonezko izenetan politikariak daude, idazleak, artistak, militarrek, erregeak edo zientzialariak²⁸. Hiriak ordena maskulinoaren memoria transmititzen du.

3.

Emakumeen ikuspuntua hirien planifikazioan

Emakumeak hiriaz duen erabilera eta pertzepzioa desberdinak direnez, eta, hiriak planifikatzerakoan, berezitasun hori aintzakotzat hartzen ez denez, hirigunea diseinatzeko orduan emakumeen ikuspuntua kontuan hartzeko eskatu izan da. Abiapuntu hori du *Hiriko Emakumearen Gutun Europarrak*, Europar Batasuneko Emakumeen Aukera Berdintasunaren aldeko Programaren baitan planteatutako ikerketa eta ekintza proposamenak. Horrek lantalde eta

²⁵ Lynch, K. *The image of the city*, M.I.T. Press, Cambridge eta Londres, 1985.

²⁶ Rapaport, A. *Aspectos humanos de la forma urbana. Hacia una confrontación de las Ciencias Sociales con el diseño de la forma urbana*, Gustavo Gili, Bartzelona, 1978.

²⁷ Durán, M. A. “Los nombres de la memoria (Notas para una hermenéutica de la ciudad)” in Tobío, C. eta Denche, C., op. cit, 17-41.

²⁸ Izquierda Unida-ko Udal Taldea *Nombres de Mujeres en las Calles de Madrid*, Madrilgo Udala, 1994.

ikerketa zentro askoren babesu du²⁹. Hirigunearen planifikaziora ekarri nahi da emakumeek hirian duten esperientzia, desberdina baita eta gizonena ez bezalakoa, beren bizitza, eguneroko mugitzeko beharra, auzoarekiko harremana edo segurtasuna desberdinak direlako. Gainera, emakumeak hiria modu desberdinean erabiltzen duela aldarrikatzeak berarekin dakar hiriaren beste erabilera batzuk ere kontuan hartzea, hala nola haurrena edo elbarriena. Era berean, Gutunak dio hirien planifikazioan, oraindik ere, eredu erreferentzialtzat gizonak kanpoan eta emakumeak etxean lan egiten duen familia hartzen duela. Baina, familia mota hori, egun, ez da nagusia eta beste famili mota batzuk ere badaude, beren beharrak dituztenak. Halaber, nabarmentzen da emakume gutxi hartzen duela parte lurraldearen, hirigunearen, etxebizitzaren, garraioaren eta ingurumenaren antolaketan, nola erabakiak hartzen hala horiek gauzatzen. Biztanleek parte hartze zuzena izan behar dute hiriak sortu eta kudeatzeko mekanismoetan, baina emakume gutxi daude tartean. Alderdi horiek jorratzen dira Gutunean eta proposatzen da, alde batetik, demokrazia paritarioa zabaltzea lurraldearen antolaketara eta hirien eta ingurumenaren planifikaziora, eta, beste aldetik, neurriak hartzea aukera berdintasuna egon dadin, hiria sortzeko lanetan parte hartzen duten lanbideetan.

Azken aldia antzeko beste saio batzuk ere egin dira, hala nola, Parisen, 1994an, OCDE-k antolatutako batzarra: *“Les femmes et la ville, Logements, services et environnement urbain”*³⁰. Batetik interesgarria izan da hainbat eta hainbat kasu eta esperientzia jasotzea, hirietako emakumeen beharretatik abiatuta³¹; bestetik gai berriak ere plazaratu dira, hala nola, emakumeak izatea «normaltasunaren» azken hondarraren paper positiboa bazterketa soziala dagoen au-

²⁹ Besteak beste, City and Shelter, Eurocultures, Groupe Cadre de Vie, Praxis, European Women’s Lobby.

³⁰ OCDE-k berak argitaratuta, izen berarekin, Paris, 1995.

³¹ Besteak beste, Austrian, udal bulegoak sortzea emakumeen arazoak edo iradokizunak biltzeko, gero tokian tokiko politikan lantzekoak; AEBetan, Neighbourhood Women’s Renaissance taldeak hiria eta gizartea errehabilitatzeko proiektuak kudeatzen ditu, maila lokalean, auzoko krisiari aurre egiteko; Australian, Women’s Planning Network delakoak hirigintzako aholkularitza eskaintzen die emakumei, profesionali, arduradun politikoei eta sustatzaileei, emakumeen beharrak aintzat hartzen dituzten planifikazioei buruz; Erresuma Batuan, “Sesamo, ireki zaitez” proiektuaren asmoa merkataritza guneetan ibiltzea ezina dela erakustea da; Italian, “Denboraren Legea” proiektuak ama langileen beharretara egokitu nahi ditu saltokietako, administrazioiko eta zerbitzuetako lan ordutegiak.

zoetan, emakumeek Hirugarren Munduko azpiratutako herrialdeetan egiten dutenaren parekoa. Ondorio nagusiak bat datoz, hein handian, *Hiriko Emakumearen Gutun Europarra*-rekin eta, hiriak planifikatzean, emakumeen presentzia handiagoa aldarrikatzen du, eta bai horiek eta bai beste talde baztertu batzuk ere zein behar dituzten aintzakotzat hartzea, esate baterako haurrek, elbarriek edo adinduek. Kasurik eta egoerarik larrienak ere kontuan har daitezken eskatzen da, hala nola umeak hazi behar eta bakarrik dauden amarenak, edo gainbehera doazen auzoenak. Giza Kokapenei buruzko Habitat II Mundu Batzarrean ere hiriko emakumearen gaiak garrantzia du, gehienbat etxea lortzeko duen eskubideak.

Objektuek erabilera asko dituzte, sortzaileak pentsatu zituenaz haratago; eta hiria ere objektu bat da. Emakumei eta hiri espazioari buruz azken aldian egin diren ikerketa eta ekintza guztiek zalantzan jarri dute gizona dela hiriaren neurria; badaude beste neurri batzuk ere kontuan hartzekoak. Nolanahi ere, orain arte ezkutuan zegoen ikuspuntu bat zehaztu eta aldarrikatu ondoren, zenbait galderak sortzen dira. Desberdintasun nabari hori, handitzen ala txikitzen ari da?, aldarrikatu beharrekoa da?, nondik sortu da? Ez da kontu berria; horixe dago, adibidez, 30eko hamarkadako emakume iparramerikar arkitekto feminista erradikal haien planteamenduen azpian, sukaldarik gabeko etxeak proiektatzen baitzituzten, emakumeek janaria prestatu beharrik ez izateko³². Izan ere, emakumeek beren beharrak dituzte hirian, egin beharreko lanaren arabera: etxea gobernatu beharra, haurrak, elbarriak edo adinduak zaintzea, edo etxean eta kanpoan lan egitea. Desberdintasun horiek, baina, gizarteak eraiki ditu, genero rola dira, eta ez sexu desberdintasunak; beraz, alda daitezke, eta berez bizkor ari dira aldatzen, emakumeek hala nahi dutelako, eta hori bat dator egituren aldaketarekin.

Gai hori emakumeen (eta gizonen) estatus sozialaren ikuspegitik behatzea konplexua da, izan ere, kontua ez baita hiria rol estatiko batzuetara egokitzea aldarrikatzea, baizik eta hiria eredu sozial eta familiar berriekin malgua eta koherentea den modu batean planifikatzea.

³² Spain, D. op. cit., 236.

4.

Familiaren eredu berriak, hiriaren eredu zaharrak

70eko hamarkadara arte, emakumeen etxez kanpoko lanak zerikusi zuzena zeukan egoera ekonomikoarekin edo gerrarekin; horiek arautzen zuten lan merkatura irtetea eta, ondoren, atzera etxera biltzea. Lan merkatuak erreserba gisa erabiltzen zituen emakume langileak. Hala ere, azken hogeitau urteotan emakumeen lan jarduna modu jasangarrian hasi, bai krisi garaian eta bai suspertze garaian, nola herrialde garatuetan, hala gutxiago garatu diren batzuetan. 1994an, hamabi herrialdeko Europar Batasunean, hiru gizon langileko bi emakume langile zeuden, eta Danimarkan edo Suedian areago, bost gizon langileko lau emakume langile³³. Adierazgarriagoa da, agian, emakume langile gutxiko herrialdeak izatea, adibidez, Espainia, kopuru hori azken urteotan gehien hazten ari den lekuak, gero eta emakume gazte langile gehiago baitaude. Esate baterako, 25 eta 29 urte bitarteko taldearen jarduna, 1975 eta 1995 bitartean, hazi egin zen, %34tik %67,5era, eta 30 eta 34 urte bitarteko taldearena %27tik %63ra³⁴. Lan jarduna zabaltzeak, gainera, bi langileko etxeak ugaritzea eragin du, eta eredu familiar hori gehiengoa da, jada, Mendebaldeko Europan.

Ugari dira bai gizonak eta bai emakumeak lan egiten duten familiak (edo aurreko lan bategatik diru sarrerak dituztenak), eta horren arrazoia ez da soilik emakumeek lanerako duten jorera sendoa –autonomia eta independentzia ekonomikoa lortu nahiarekin dago lotuta hori– eta heziketan egindako inbertsioa ezinbestekoa delako familiak kontsumo maila estandarra lortzeko edo mantentzeko³⁵. Zenbait ikerketak argi utzi dute, gehienbat Espainian, egoera ekonomikorik onena –*per capita* irabaziei dagokionez–, bi langileko familiei dagokiela³⁶.

³³ Eurostat-en neurketa, Lan Indarraren Inkestak oinarri hartuta.

³⁴ Tobío, C.; Arteta, Q. eta Fernández Córdón, J.A. op. cit., 32.

³⁵ Ibid. 43-61.

³⁶ Espainian, emakumeen lan jarduna bizkorrago ari da hazten maila ekonomiko eta profesional handiko sektoreetan, eta horrek segmentazio berri bat sortzen du familietan, langileen kopuruari lotua; ikus San Segundo, M. "Los ingresos de los hogares y la estructura familiar", in *I Simposio sobre igualdad y distribución de la renta y la riqueza*, Argenteria, Madril, 1993, II. liburukia; Lassabille, G. "Trabajo femenino y distribución de rentas en España" in Instituto de la Mujer *Economía del trabajo femenino, sector mercantil y no mercantil*, Madril, 1989, 29-37.

20ko hamarkadako hirigintza modernoaren logika, funtsean orain egiten den hirien planifikazioan ere indarrean dagoena eredu familiar jakin batean dago oinarrituta: gizonak ordaindutako lana du eta emakumeak etxea zaintzen du.

Logika hori apurtu egiten da bi langileko familiak hedatu ahala. Lekua bi modutan erabiltzeak, bata etxe inguruko joan-etorri laburretan oinarrituta, eta bestea laneko joan-etorri luzeetan oinarrituta, bat egiten dute orain; gizabanako berak, gaur egun gehienetan emakume denak, etxetik kanpo lan egin eta etxea zaintzen du, eta egunero batetik bestera mugitzen da, egiteko duenaren arabera. Emakumeak lanera biltze horrek, normaltasun eredu berri gisa –ez egoera bakan edo berezi gisa, eta ezta aukerako eredu gisa ere–, eragina du gizartearen antolaketa osoan, besteak beste espazioaren antolaketan.

Nolanahi ere, oraindik ere zonifikazioa da nagusi hiriak planifikatzeko orduan, bai kontzeptu mailan, bai gauzatze praktikoan. Hiriak eta auzoak planifikatzerakoan familia tradizionala hartzen da oinarri, agian, orain arte eraiki denaren inertziatz. Horregatik, aztertu beharra dago nolako eragina duten eredu familiar berriek lekuaren erabileran eta nola bateratu familiarren eta hiriaren ereduak.

Besteak beste, hiru kontraesan adieraz daitezke funtzioak bereizita dituen hiriaren eta gizonak eta emakumeak biak langile diren eredu familiar berriaren artean. Lehenik, egunero husten eta betetzen diren zonifikatze sakoneko leku gero eta ugariagoak: negozio gune tertziarioak, industri poligonoak edo lotarako hiriak. Egunean zehar gune horiek hutsik egoten dira ordu askotan, eta horrek hiriguneen dentsitatea eta kalitatea eskastea dakar, eta baita dirua alferrik xahutzea ere. Hori hainbat modutan agertzen da, guneak duen funtzioaren arabera. Hirieta-ko gune tertziarioetan, bulegoak eta saltegiak nagusi diren lekuetan, espazio publikoak (kaleak, plazak, lorategiak), lan orduak ez direnetan, berezko beste lekurik ez dutenenak dira; adibidez, etxegabeak, edo leku bakartien bila dabiltzanak, legez kanpoko edo delituzko ekintzak egiteko. Polarizazio bat gertatzen da: batetik, segurtasun indar normalean pribatuek zaindutako lekuak, eta, bestetik, kalea, eguneroko arriskuen mende utzitako espazioa.

Fenomeno hori, jardun ekonomikoaren espazioak egunero hustea, hiriak zonaldeka banatzearen ondorio da, familia ereduekin zerikusirik ez duena. Aldiz, egunero etxebizitza guneak hustea, funtzioak bereizita dituzten hiriguneetan, familiar bi langile egotearen ondorio da. Herri xehearen aldirietako etxebizitzak hutsik geratzen dira lan orduetan, integrazio eta kontrol sozial lanak

egingo dituen ehun sozialik gabe. Bakardadeak abandonatu egiten ditu espazio horiek, ekonomiaren krisiak eta berregituratzeak sortzen duten hondatze sozialaren mende³⁷.

Erdi eta goi mailako etxebizitza guneetan handitzen ari da bereiztea eta bakartzea, eguneko zatirik handienean auzoak eta etxeak hutsik daudenez, segurtasunean egiten den inbertsio pribatua hazten ari baita.

Funtzio anitzeko guneek, halere, ez dute bermatzen koherentzia egongo denik bi langileko familien eta gunea egoki erabiltzearen artean: badaude beste maila batzuk ere, hala nola, etxeak okupatzeko eta lanpostuak eskuratzeko erak edo etxea eta lana lotzen dituzten garraio bideak. Baldin eta, Espainian gertatzen den moduan, hiriguneen erabilpena guztiz bereizita badago zonaldeka eta erabilpen hori hazten ari bada, etxeak okupatzeko mekanismoak oso zorrotzak direlarik, alokatzeko ehuneko murrizta dela medio³⁸, ereduaren kudeaketaren elementu nagusia garraio bideak izango dira.

Zonaldeka banatutako hiriaren eta eredu familiar berriaren arteko bigarren kontraesana sortzen da eta garraio behar handiaren eskaerarekin dago lotuta. Laneko joan-etorria egiteko gero eta sarriago erabiltzen da ibilgailu motorduna, batik bat, automobil pribatua, eta gutxituz doaz erosketak egiteko oinez egiten diren joan-etorriak³⁹. Bi langileko familiak zabaldu ahala, hiriko joan-etorriak ugaritu egiten dira, eta hori kontraesanean dago zonifikatzea hirigintzaren ardatz izatearekin, eta joan-etorrietarako batez ere garraio pribatua erabiltzearekin. Horrek argitzen du, adibidez, zergatik mugitzen diren gehiago emakume langileak gizon langileak baino, nahiz eta handiagoa den gizonek duten mugitzeko ahalmena. Horretaz gain, bi langileko etxeak gobernatzeko eran egon diren aldaketek gero eta gehiago bereizi dituzte kontsumo ohiturak, zabaldu egin baita erosketak bi astetik behin edo hilean behin egitea merkataritza gune handietan.

³⁷ Wacquant-ek Iparramerikako hirietan aztertu du ghettoen sorrera. Prozesua itzulezina bihurtzen da, Estatuak zerbitzuak eta erakunde sozialak eskaintzeari uzten dionean, eta ondoren ekonomi jarduera pribatua desagertzen denean, ikus Wacquant J. D., L. "De l'Amérique comme utopie à l'envers" in Bourdieu, P. *La misère du monde*, Seuil, Paris, 1993, 169-180. Delarue-k txosten batean aztertzen du, integrazio sozialaren mailan, industriak eta saltegiak desagertzeak frantziar aldirien egoeran zein kalte negatibo sortu duen, ikus Delarue, J.M. *Banlieus en difficultés: la relegation*, Syros, Paris, 1991.

³⁸ Etxebizitzaren %15 bakarrik alokatzen da (INE, *Censo de Vivienda 1991*, Madril, 1994.). Etxeen jabetza izatea orokortzeak merkatua oso zurruna bihurtzen du.

³⁹ Tobío, C. op. cit., 65.

Hirugarrenik, zonifikatzean oinarritutako hiriak oztopoak jartzen dizkio emakumeari lanaren merkatura biltzeko. Pratt-ek eta Hanson-ek dioten moduan⁴⁰, emakumeentzat gizonentzat baino askoz garrantzi handiagoa du lana etxe inguruan egotea, eta normalean lana baino lehenago eskuratzen da etxea, bai gizonaren lanagatik hartu delako etxea, bai bizilekua ezin delako aldatu. Lan mota, beraz, bizilekuaren inguruko lan eskaintzek erabakitzen dute, eta asko aldatzen dira batetik bestera, hiri ereduaren eta lan bereizketaren arabera. Maila handiko lana eta irabazi handiak dituzten emakumeentzat bakarrik ez da gizonentzat baino oztopo okerragoa distantzia. Distantzia arazoa da emakumeek lana eskuratzeko orduan, ardurak baitituzte familian, batez ere seme-alabak, baina baita adinduak, gaixoak edo elbarriak ere, eta horregatik hartzen dute bakarrik dauden emakumeek lehenbizi lana eta gero etxea, eta hiria- ren erdigunea aukeratu ohi dute bizitzeko, bertan ugariagoak baitira lan aukerak.

Lana lortzeko orduan zonifikatzearen arazoa gainditzeko bide nagusia automobil pribatua da. Arestian ikusi denez, emakumeek baino gehiago erabiltzen dute gizonak. Bartzelonako Jatorria-helmuga inkestak agertzen duenez, gizonen %50ek dauka autoa eta eskuarki erabiltzen du. Emakumeen %18k bakarrik du⁴¹. Lan merkatuaren esparrua haziz doa, langileek gero eta ahalmen handiagoa dutelako mugitzeko. Automobil pribatuak mugitzeko ahalmenik handiena ematen du, eta denboran eta diruan kosturik txikiena. Emakumeen motorizazioa txikiagoa denez, ibilgailuz bakarrik irits daitezkeen enpleguak (edo guneak, oro har), diskriminatzaileak dira genero mailan. Aldi berean, baina, emakume motorizatuek gainditu egiten dituzte lanean integratzeko eta guneak kontrolatzeko oztopoak. Modu horretan, kontraesana dago logika sozialaren –automobila diskriminatzailea da genero ikuspegitik–, eta logika indibidualaren artean –emakume motorizatuak gainditu egiten du emakumeek, eskuarki, mugitzeko duten ahalmen txikiagoa–, eta kontraesan horrexek islatzen du, gordintasun osoz, garraio publikoaren eta garraio pribatuaren arteko kontraesana.

⁴⁰ Hanson, S. eta Pratt, G. op. cit.

⁴¹ Junyent, R. "La movilidad de las mujeres en la aglomeración de Barcelona", Espazioari eta Generoari buruzko Batzar Iraunkorrean emandako hitzaldia, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatean. 1995eko ekainaren 15a, 5.

Funtzio bakarreko etxebizitza aldirien oinarria ordaindu gabeko etxeko lan ugariak dira. Kontrapuntua hiriguneetan dago; bertan, gero eta goi mailako profesional eta teknikari gehiago bizi denez, pertsona bakarreko edo bi langileko etxeetan, eta, etxeko lanak egiteko, denbora gutxi dutenez, baina irabazi handiak, lehen etxean egiten ziren lan asko orain kanpoan egiten dira. Batez ere 50eko eta 60ko hamarkadan garatu zen aldirietan bizitzea, eta egoitza mota hori nagusi da herrialde anglosaxoietako erdi maila gero eta ugariagoentzat. Beste hainbat herrialdetan ere indartuz doa. II. Mundu Gerraren ondorengo urteetan, emakumeak etxera bildu ziren eta garai horretan garatu ziren kontsumoaren gizartea, etxetresna elektrikoak eta etxean enpresa eredu araberako gestioa eramatea. Etxekoandreak profesionalizatu egin ziren, baina, orduan ere, eredu familiar tradizionala zen nagusi. Eredu familiarraren eta eredu urbanoaren artean koherentzia zegoen; lanaren banaketari espazioaren erabilerak zegozkion eta hauek elkarren osagarri ziren. Rolan banaketan oinarritutako familia bina langileko eta soldatako etxea bihurtu eta bata bestearengatik ordezkatzan denean, aldirietako eredu eredu familiar ekonomiko berriekin kontraesanean sartzen da. Hala ere, eraikitako espazioaren inertzia hain handia da, zonifikatzearen ideia ez dela aldatu hirigintzaren oinarritzko printzipio moduan. Hori Espainiaren kasuan, eta zehazki Madril hiriarenean, bereziki nabarmena da, klase ertainentzako etxebizitza aldiriak oso berandu azaldu baitziren, 80ko hamarkadan. Hain zuzen ere, urte horietan, lanean hasitako emakumezkoen kopurua asko hazi zen eta dagoeneko orokorra da 50 urtetik beherako gaur egungo emakumeen artean. Etxebizitza aldiriak Espainian berandu azaldutako hirigintzako eredu izan ziren, jaio zirenetik orduantxe sortzen ari zen eredu familiar berriekin kontraesanean zeudenak.

Ondorio gisa, zonifikatze kontzeptua espazioaren antolaketaren oinarria izatea komeni den zalantzan jar daiteke, baita dibertsifikazioan oinarritutako erabilerak konbinatzeko beste erabatzuei buruz eztabaidatzeko ere, osasungarritasun arazoak (jatorria nagusiki zonifikatzean oinarritzen den hirigintza ereduaren dutenak), gaur egun, industria kopuru txiki batean daudenak etxebizitzetatik bereiztea komeni den horietara mugatzen da. Hori ez da hain utopikoa, kontuan hartzen bada etxebizitzak berak aldatzen ari direla, komunikazioaren teknologia berriak baimentzen dituzten hainbat konexioen bidez. Konexio horiek laneko, formazioko edo laguntzeko zenbait funtzioen ordezkioak izan litezke (horiek etxeak modernizazio prozesuan galdu zituen) eta harreman sozialekin, aisialdiarekin eta atsedenarenarekin lotura duten funtzio berriak gara ditzake.

- ALTMAN, Y. eta CHURCHMAN, A. (ed.) *Women and the environment*, Plenum Press, New York, 1994.
- ARGENTARIA I Simposio sobre igualdad y distribución de la renta y la riqueza, Madril, 1993.
- BENÉVOLO, L. *Los orígenes del urbanismo moderno*, Blume, Madril, 1979.
- BERGER, P. eta LUCKMANN, T. *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires, 1989.
- BISQUERT, A. eta NAVARRO, I. "Ciudad y Mujer", *Urbanismo y Mujer. Nuevas visiones del espacio público y privado ikastaroaren aktak*, Malaga, 1993, eta Toledo, 1994.
- BOURDIEU, P. *La misère du monde*, Seuil, Paris, 1993.
- CASTELLS, M. *Sociología del espacio industrial*, Ayuso, Madril, 1976.
- CASTELLS, M. *La cuestión urbana*, Siglo XXI, Madril, 1976.
- CASTELLS, M. *Crisis urbana y cambio social*, Siglo XXI, Madril, 1981.
- DELARUE, J.M. *Banlieus en difficultés: la relegation*, Syros, Paris, 1991.
- LE CORBUSIER *La ville radieuse*, Vincent, Freal et Cie, Paris, 1963.
- LE CORBUSIER *Principios de urbanismo*, Ariel, Bartzelona, 1979.
- DOGAN, M. eta KASARDA, J.D. *The Metropolis Era. A World of Giant Cities*, I. liburukia, Sage Publications, Kalifornia, 1988.
- FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE MUNICIPIOS Y PROVINCIAS *Mujer y Urbanismo. Una recreación del espacio*, Instituto de la Mujer, Madril, 1996.
- GIULIANO, G. "Public transportation and the travel needs of women" in *Traffic Quarterly*, 33, 1979, 607-16.
- GRAFMEYER, Y. eta JOSEPH, Y. *L'école de Chicago*, Aubier, Paris, 1990.
- GRUPO MUNICIPAL DE IZQUIERDA UNIDA *Nombres de Mujeres en las Calles de Madrid*, Madrilgo Udala, 1994.
- HALL, P. *Cities of tomorrow*, Blackwell, Oxford UK eta Cambridge USA, 1988.
- HANSON, S. eta JOHNSTON, Y. "Gender differences in work-trip length: explanations and implications" in *Urban Geography*, 6, 1985, 193-219.
- HANSON, S. eta PRATT, G. *Gender, work and space*, Routledge, AEB eta Kanada, 1995.
- INSTITUT D'ESTUDIS METROPOLITANS DE BARCELONA *Enquesta Metropolitana 1986. Condiçions de vida i hàbits de la població de l'àrea metropolitana de Barcelona. La desigualtat social de les dones*, 18. liburukia, Bartzelona, 1988.

- INSTITUT D'ESTUDIS METROPOLITANS DE BARCELONA *Enquesta de la Regió Metropolitana de Barcelona 1990. Condições de vida i hàbits de la població. L'espai de vida dels habitants de la Regió Metropolitana de Barcelona*, 8. liburukia, Bartzelona, 1993.
- INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA *Censo de la Vivienda 1991*, Madril, 1994.
- KATZ, C. eta MONK, J. (ed.) *Full Circles: Geographies of Women Over the Life Course*, Routledge, New York, 1993.
- KUNZMANN, K.R. eta WEGENER, M. "The Pattern of Urbanization in Western Europe" Institut für Raumplanung, Dortmund, 1990.
- LASSABILLE, G. *Economía del trabajo femenino, sector mercantil y no mercantil*, Instituto de la Mujer, Madril, 1989.
- LYNCH, K. *The image of the city*, M.I.T. Press, Cambridge USA eta Londres, 1985.
- MASSEY, D. *Space, Place and Gender*, Polity Press, Cambridge eta Oxford, 1994.
- OCDE *Les femmes et le ville. Logements, services et environnement urbain*, Paris, 1995.
- PINÇON-CHARLOT, M. et al. *Ségregation urbaine. Classes sociales et équipements collectifs en Région Parisienne*, Anthropolos, Paris, 1980.
- PRATS FERRET, M.; GARCÍA RAMÓN, M.D. eta CÁNOVAS VALIENTE, G. *Las Mujeres y el uso del tiempo*, Institut d'Estudis Metropolitans/Instituto de la Mujer, Madril, 1995.
- ROUSSEL, L. *La famille incertaine*, Odile Jacob, Paris, 1989.
- SABATÉ, A. et al. *Mujeres, Espacio y Sociedad. Hacia una Geografía del Género*, Síntesis, Madril, 1995.
- SPAIN, D. *Gendered Spaces*, The University of North Carolina Press, 1992.
- STONE, L. *The Family, Sex and Marriage in England, 1500-1800*, Weidenfeld and Nicolson, Londres, 1977.
- TOBIÓ, C. eta DENCHE, C. *El espacio según el género, ¿un uso diferencial?*, Madrilgo Universidad Carlos III/Madrilgo Komunitateko Dirección General de la Mujer, 1995.
- TOBIÓ, C.; ARTETA, Q. eta FERNÁNDEZ CORDÓN, J.A. "Estrategias de compatibilización familia-empleo. España años noventa" Madrilgo Universidad Carlos III/Instituto de la Mujer, Madril, 1996.
- WILSON, E. *The Sphinx in the City: Urban Life, the Control of Disorder and Women*, Virago, University of California Press, Londres eta Berkeley, 1991.

ISABEL VELÁZQUEZ / AURORA JUSTO
"Emakume hirigileak" kolektiboa

Hirigintza
berri baterako
proposamenak:
esperientzia
berritzaileak
hirigintzaren
planeamenduan

Gure gizartean, harreman sozialak eta rolak izugarritzko abiaduran ari dira aldatzen, azken urte hauetan. Aldaketa gehienek eragile nagusia emakumea ari da izaten, hainbat jardueraren eskutik: etxetik kanpo lan eginez, mundua gidatzeko gestioan, dagokion erantzukizun zati eskuratzeko ahaleginak eginez, orain artean bigarren mailan edo ezkutuan jarduten zuen egoera guztietan nabarmenduz, gizartearekin harremanetan jartzeko era hobetuz, eta, azken finean, kultura aldatuz; kultura gizarte bateko kide gehienek komunean duten arauen, balioen, sinismenen eta jarrerren sistema dela ulertzen badugu behintzat.

Hori horrela bada ere, gure bizitza aurrera eramateko erabiltzen ditugun lekuak –hiriak, alegia– ez dira hain erraz egokitzen aldaketa horietara. Etengabe eta isilean, hirien egiturak eta funtzionamenduak begi-bistan ageri ohi dena baino gehiago eragiten diote gure eguneroko jarduerari eta ikusmoldeari. Ezaugarri horixe baitu espazioak: inguratu egiten gaitu, nahi hala nahi ez, eta horregatik, askotan ikusezin bihurtzen zaigu (Pernas). Eraikita dauden hiriak garai bateko bizimoduaren oinordekoak dira eta eraikitzen ari garen hiri berriek ez dute behar moduan jasotzen bizimodu berria. Eraikitako eremuak beti islatzen ditu gizarteko balioak eta botere egiturak, lehen begiratuan eta aurretiazko gogoetarik gabe argi ikus ez badaitezke ere. Egitura horien moduan, emakumearen egoerak ere islatzen du egiazko berdintasunerako bidean egin den aurrerapen apala. Azken hamarkadetan berdintasunerako eskubidea zilegi egitea lortu da, baina aurrerapen gutxi izan da bide horretan. Neutraltasunaren mozorroaren azpian, gure herrien eta hirien espazioak ezin hobeto egokitzen dira gizartea zuzentzen duten botere eta elkarreragin egituretara.

Hiri ingurunean dagoen neutraltasun ezkutu horretan sakonduz gero, hiriko zenbait lekutara joateko debeku espliziturik ez dagoela antzemango dugu (hiritarren kategoriekin gertatzen ez den moduan; adibidez, klaseenarekin: urbanizazio pribatuak, ekipamendu pribatuak, sarbidea murriztua duten merkataritza gunek, etab.). Ikusi ezin diren hesiak hain dira sendoak ez dutela laguntza materialik behar. Hiriaren kontrol erreala boteretsua da benetan. Emakumeek hirian erabiltzen dituzten espazioak oso ondo markatuta ageri dira, benetan erabili ditzaketen lekuak eta orduak. Leku eta ordu erabilgarriak hiriko azalera guztiarekin alderatuko bagenu, emakumeek (eta harremanetarako indarkeria baliatzen ez dutenek) benetan erabiltzen dituzten lekuen hainbat mapa ikusiko genituzke hiriko lurraldea definitzen duen mapan. Emakume guztiek txikitatik ikasten dituzte debekatutako lekuak eta orduak zein diren. Eta zailantzarik egon ez dadin, zenbait epailek gogorarazten digute, noizbehinka, sententzia harri-

garrietan zein leku eta ordutan ezin diren hiriaz baliatu. Sententzia horiek gure hizkuntzaren zuzentasuna ziprztintzen dute garaiz kanpo. Izan ere, emakumeak gainditu ditu kalean ibiltzeko garai batean zituen debeku formalak –garai haietan kalea “emagalduek” bakarrik erabili zezaketen–, baina oraindik hiri osoa emakumeentzat erabilgarri izatetik oso urrun gaude. Herriak eta hiriak gizakiek munduan izan duten eraginaren sinboloak dira, eta, askotan, ezin hobeto egindako elkarbizitzako gune ederren adibide bikainak dira. Beste batzuetan, berriz, harriz islatzen dituzte batzuen eta besteen arteko aldeak eta desberdintasunak edo gure arteko eguneroko harremanen porrota. Hiriak espazioen nahasketa dira eta espazio horiek gizarteak, politikak eta ekonomiak sortu ditu, teknikarien eta hiritarren hitza ordezkatzan duten elementu bakanek egindako proiektu eta plangintzetan oinarrituz. J.K. Galbraith ekonomilariarentzat gaur egungo gizartea “teknogitura” bat da eta burokrrazia modu horretan “erabakiak hartzea” gutxi batzuen eskuetan dago, “teknikari espezializatuen” gain, hain zuzen ere. Teknogitura edo teknokrazia horretan, orain arte, boterea gizonezkoen esku egon da, nagusiki. Badira emakume hirigileak eta proportzioan beste sektoreetan baino gehiago, baina, oraindik, gizonezkoak dira nagusi arlo horretako goi karguetan. Gizarteko, politikako eta enpresako botere esparru gehienetan gertatzen den moduan, hirien diseinua egiterakoan ere, unibertsaltasun itxura eman nahi izaten da. Hala ere, hiria bizi eta ulertzeko era zehatz baten aldeko apustua egiten dutenek gauzatzen dituzte diseinu horiek, eta gehienetan, gutxi entzuten da edo ia ezer ez biztanleriaren gehiengoaren ahotsa: emakumearena. Ahots batzuek bozgorailua izan ohi dute, eta beste batzuek, berriz, isilpean bizi dira. Bozgorailua dute sektore ekonomikoetako zenbait ordezkarien ahotsak eta isilpean bizi ohi dira emakumeen, haurren, zaharren eta abarren ahotsak. Horrek desoreka argiak dakartza, eta eragin zuzena du hirian egin beharreko esku-hartzeak definituko dituzten irizpideak erabakitze orduan. Esate baterako, lan arloari ematen zaio garrantzia, batez ere, etxetik kanpo egindako lanari. Beste gai batzuk, berriz, gutxietsi egiten dira: segurtasuna, etxeko lanak eta ugalketarekin zerikusia duten gaiak. Etxetik kanpoko lana neurritz kanpo baloratuz eta bizitzako beste alde hori ahaztuz, lanerako bizi diren hiritarren neurrirako hiriak lortzen dira, autoz garraiatzen direnen, espazio publikoak erabiltzen ez dituztenen eta hegazkina sarri erabiltzen dutenen neurrikoak... Abiaduran eta eraginkortasunean –kultura bihurtuta– oinarritzen dira hiriko espazioak sortzen dituzten proiektuak eta erabakiak. Batetik bestera ibiltzeko hiriak lortu dira eta ez bizitzeko egokiak direnak.

Hiriaren diseinuak erabiltzaile maskulinoarentzat egindako eredu jarraitzen du, inplizituki eta inkontzienteki: pertsona independenteak, motorizatuak, gutxitasun edo osasun arazorik ez

dutenak, lanerako bizi direnak, haurrak edo nagusiak zaindu beharrik ez dutenak, norberaren etxea eta hiria zaindu behar ez dutenak. Ez al da ikuspegi hori maila handiko teknikarien eta politikoen perfila? Alegia, ez al da hori Galbraithen “teknogitura” horretan erabakiak hartzen dituztenen profil bera?

Gizonezkoak nagusi diren sektore baten emaitza da hori. Zenbaitetan, gainera, zuzendaritza postuetara iristen diren emakume bakanek ez dute egoera aldatzeko ezer egiten. Boterearen gailurrera iristea lortzen duten emakume nekazinek edo sineskorrek asimilazio prozesu gogor bat igaro behar izaten dute eta, askotan, beraien izaeraren eta diferentziaren kontzientzia galtzen dute. Garai bateko vestalen moduan, tenplurako sarbidea emakumeak berezkoak dituen zenbait ahalmen galduz lortzen da. Eta, horren ondorioz, gure kideak diren emakumeak gizonezkoen mundura bihurtzen dira eta beraien generoko aipamen oro saihesten dute. Askotan, beraien lanbideari edo tituluari ezaugarri maskulinoak eranstera ere iristen dira, emakumezko izaeraren erreferentzia txikiena ere ezabatzeko. Zorionez, azken estatistikek ikasketa teknikoetan emakume kopurua handitzea azkar ari dela jatzoten diote, eta horrek lanpostuetara oreka ekarriko du berehala. Espero dugu, bide batez, aldaketa horrek arlo teknikoan “koroatuta” dauden emakumeek beste emakume guztiekiko duten jarreraren aldaketa ere eragingo duela.

Postu teknikoetan eta zuzendaritza postuetan (hala espero dugu) emakume asko izatean, egoera aldatu egingo da. Bestalde, betirako ezabatu da etxeko espazioaren ardura emakumei eta kanpoko espazioaren kontrola gizonei ematen zien araua. Emakumeak ezin dira gizonekin batera bizitzen eta erabiltzen duten espazioaren eraketa eta gestiotik kanpo geratu.

Bestalde, hirietako bizimoduak azken aldian hartu duen norabideak ez du zilegi egiten hiriaren eraikuntzan erabakiak hartzeko prozesuan ardura izan dutenen jarduera. Arazo sozialak, ekonomikoak eta ekologikoak pilatu egiten dira hiriko gunen berrietan; izan ere, hiri tradizionalan, arazo horiek eragin handiagoa dute hirietako kanpoaldean auzo zaharretan baino. Hirigileek ez dela hainbeste denbora eskainitako irtenbideak gaur egungo arazo bilakatu dira. Horregatik, hiritarren ohiko partaidetza bideetan ordezkapen txikia duten taldeei aukera bat ematea proposatzen dugu; alegia, aukera bat ematea, erabakiak hartzean, boterearen zirikietan partaidetza txikia dutenei eta politikarien arreta txikia jasotzen dutenei. Talde horiek hiriari buruz duten ikuspegia, ziurrenik, presio taldeek, hirigile teknokratek eta proiektu gutxi dituzten politikariek orain arte eskaini digutena baino interesgarriagoa izango da. Hiriaren ereduari buruz iritzia ematea, eredu hori birplantatzea edo eredu horretan sakontzen duten

pertsonen kopurua zabalitzea da gaur egungo egoera eta joerak nabarmen hobetzeko bidea. Horretarako, guztion eguneroko bizitzan eragiten duten oztopoen, disfuntzioen, eragozpenen, ziurtasun gabezien eta traben gaineko hausnarketa egin behar dugu, horiek guztiak hiritar askoren premiak –horien artean emakumeak– jasotzen ez dituen plangintza baten emaitza baitira.

Emakumeena talde homogeneoa ez dela esango dute, eta egia da. Hainbat emakume mota daude: lan profesionala dutenak eta ez dutenak, etxekoandreak, helduak, gazteak, dirudunak, dirurik gabeak... Hala ere, emakume gehienek badituzte errealitatearen ikuspegia zehazten duten ezaugarri edo bereizgarri komunak: esate baterako, emakumeek arlo publikoan ez dute indarkeria defentsarako erabiltzen; edo, berdintasunezko garai hobeen esperoan, haurrak, adinekoak eta gizarteko elementu ahulenak zaintzen dituzte, oraindik ere. Emakumeak dira, ama diren heinean, haurren beharren jasotzaile behinenak. Beraien bizkar egoten da etxeko mantenua, garbiketa eta hornidura egiteko ardura osoa, lan guztia ez denean. Hortaz, emakumeak dira ordezkartza urria duten taldeen ahotsa, ahotsik ez dutenena. Agerikoa denez, ezin dugu bere horretan mantendu bidezkoa ez den egoera hori. Horrela, gizon eta emakumeen arteko harreman ereduak aldatzen doazen heinean, kontziente izan behar da egungo egoera hemen deskribatzen ari garena dela. Ahaleginak egin behar dira espazioak ardura banaketa horiek erraztu ditzan; alegia, ez oztopo izatea emakumeentzat, edo etorkizunerako nahi genukeen moduan, oztopo ez izatea emakumeentzat eta gizonezkoentzat.

Hiriaren egoera, ordea, ez da desegokia emakumeentzat bakarrik; hiriko beste sektore ahulentzat ere ez da batere egokia: haurren askatasunaren eta autonomiaren murrizketak, esaterako, ez du parekorik gizarte urbanoaren historia osoan. Haurrok bakarrik jolasten genuen kaletan, duela gutxi arte, eta helduen laguntzarik gabe joaten ginen eskolara. Gaur egun haurrak ez dira kaleetan ageri.

90eko hamarkadaren hasieran azterketa bat egin zen Ingalaterran, haurren eguneroko jarduera hori aztertzeko: eskolara joatea. Emaitzek argi eta garbi adierazten dute menpetasuna handitu egin dela azken 20 urteetan. 1971n 9 urteko umeen %80 zihoan bakarrik eskolara eta 11 urtekoen %90. 1990ean, berriz, lehen taldekoen ehunekoak %30era jaitsi zen, eta bigarren taldean, oraindik autonomia zuten 11 urteko haurren batez bestekoa ez zen %55era iristen. Haurren nahitaezko itxialdiak, gurasoen itxialdia dakar, edo zehatzago esanda, amen itxialdia; izan ere, emakumeen gain geratzen da gehienetan haurrak zaintzeko ardura. Haurrak zaintzea gizarte osoak elkarrekin egindako lana zen, eta, gaur egun, gurasoek nekez eraman dezaketen zama bilakatu da. Egoera horrek badu eragina haurren heziketan ere: beren kabuz

ingurua ezagutzea, jolastea eta heldu bat gainean izan gabe esploratzea haurren heziketa prozesuaren elementu garrantzitsua zen. Gaur egunean, inguruaren aberastasuna ordenagailuek edo telebistak ordezkatzeko dute, jakin gabe zein ondorio ekarriko dituen etorkizunean. Gure arreta horretan jartzeko nahikoa da, gauza bera esateko beste talde batzuei buruz: nagusiei, langabeei, ezintasun mailaren bat edo gutxitasun mailaren bat dutenei buruz. Sortzen ari garen hiria ez da egokia, eta eragiten duen disfuntzio horrek eragin handiagoa du bizitza konplexua dutenengan eta hirigileek buruan duten bizimodu eredutik gehien urruntzen direnengan.

Esana dugu espazioaren azterketa sakon batek bere baitan dauden botere harremanak agerian uzten dituela: gizartearen eta bere rol banaketa desorekatuaren isla da. Hiri mota bat edo beste eraikitzeak berdintasunerako bidea erraztu edo oztopa dezake. Hiriaren egitura berriz hausnartu behar da, historia berriz aztertzen hasi den moduan, eta ahantzitako gehiengoak barne hartu: emakumeak.

Eraikitako espazioak bertan egiten diren ekintzak mugatzen, moldatzen, baldintzatzen edo indartzen ditu. Hiriaren egitura autonomia, berdintasun eta eskubide osoko hiritarren ereduaren zerbitzura egotea nahi badugu, hiria eraikitze prozesuan emakume gisa ditugun berariazko premiak eta premia zehatzak entzunarazteko modua aurkitu behar dugu.

Azken urteetako hirigintza zenbait akatsetan oinarritzen da, eta teknikariek hala onartzen duten arren, akats horiek hiriko diseinuaren ardatza dira oraindik ere, bai inertzia hutsagatik, baita ekoizpen sistemaren aurreikuspenak egokitasunez betetzen dituztelako ere. Lehen akatsa egungo hirian bete daitezkeen funtzioen banaketa zurrunda da; izan ere, hiri tradizionala pertsonen eta erabileren nahasketak eta konplexutasunak bereizten zuen. Industrien kutsadura eta garbitasun arazoak konpontzeko, Atenasko Gutunak eta horren aitzindariak, Le Corbusierrek, hirigintza modernoa sortu zuten. Hirigintza moderno horrek hirian egin daitezkeen funtzioak –bizi, lan egin, erosketak egin, jolastu eta abar– sakabanatzea proposatzen du, eta gune bereziak sortzea funtzio horietako bakoitza betetzeko. Horrek poligonoen hiria sortuko du (industrial, bizitegi eta abar), edo azken muturrera eramanda, landa lurretan dauden egungo saltoki erraldoiak edo aisiarako guneak.

Funtzio banaketa horrek joan-etorri asko egitera behartzen du jarduera baten eta beste baten artean, eta distantzia horiei aurre egiteko modurik egokiena ibilgailu pribatua denez, haren menpeko bihurtzen da. Hiritarrek, eta, batez ere, emakumeek, zenbait funtzio bete behar izaten dute egunean zehar, eta eredu hori jarraitzen duten hirietan energia eta denbora asko galdu behar izaten dute batetik bestera joaten.

Funtzioak sakabanatuta dituen hiriak ibilgailuen menpeko hirigintza sortzen du, eta eragozpenak dakarzkien lanez gainezka daudenei edo ahulei: lanaldi bikoitza duten emakumeei, zaharrei eta gutxitasunen bat edo gaixotasunen bat dutenei; hau da, hiritar gehienei.

Hiri eredu hori, halaber, ibilgailu pribatuaren mendekotasunean oinarritzen da, baita errepideetan eta garraioa beste azpiegitura batzuetan egindako inbertsio handietan ere. Espazio publikoa oinarritzakoa da hiritarren arteko balioak gauzatzeko; hala nola, elkarbizitza eta harremanak. Baina autoek eta horiek dakartzaten ondorioek (zarrata, kutsadura, aparkalekuek hartzen duten espazio fisikoa, hiriko itxura) hartu dute espazio publiko hori. Zenbait autorek uste dute hiriko kaleen eta plazen sistema ibilgailu zirkulazioari zuzentzea funtsezko akatsa izan dela eta gaur eguneko hirien gainbehera eragin duela.

Inertziaz erabiltzen den hirigintza eredu horrek sortzen dituen hiriko espazioen kalitatea eskasa da, eta horren ordainetan, baliabide eta energia kopuru izugarriak behar dira, bai eta ziklo naturalean erabilgaitzak diren hondakin kopuru handia sortzea ere.

Nola alda daiteke hiria egiteko era? Prozesu baten baitan gaude eta ez dago etorkizunerako konponbide argirik eta egiaztaturik. Hala ere, printzipio batzuk zehazten ari dira, eta printzipio horiek aldaketa sakonak eragin beharko lituzkete planeamenduetan eta hirietan egindako esku-hartzeetan, eta, ziurrenik, emaitza hobekiak lortuko dira.

Orain artean, hirigintzak bi helburu argi izan ditu: alde batetik, eraikuntzak eta garraiorako azpiegiturak egitea, eta, bestetik, urbanizatzearen etekinak lurjabeen artean zuzen banatzea. Hirigintza progresistak funtzio nagusi bat ematen dio hirigintzari: espekulaziorako dagoen joera nabarmenaren galga izatea. Defentsarako hirigintza hori alde batera utzi behar genuke. Hiria guztiontzako berreskuratzeak edo sortzeak izan behar du helburu; alegia, plusbalioen banaketa eta azpiegiturako arazoak konpontzera mugatzen den planteamendua gainditzea, errealitatearen ikuspegia murriztu egiten baitu. Hiriko espazioak aztertzean, zaila izan ohi da sinistea nola izenda ditzakegun hiri bi gauza guztiz desberdin: alde batetik, denontzat eza-guna den elkarbizitza sare bizia, bizipen eta esperientziak biltzen dituen eta bertan bizi den jendearen arteko gutxieneko adostasunak jasotzen dituenari; eta, bestetik, eraikuntza hotz eta sinplea, elkarbizitza atsegina lortzeko beharrezkoa den konplexutasun maila lortzea oso zail egiten duena.

2. *Hirien egitura berriz hausnartzea: hirigintza berria*

Lehen aipatu dugun moduan, emakumeen kolektiboa ez gara gaur egungo hirigintzaren noraezaren erantzule eta, horrek ematen digun autoritate guztiarekin, **premia berriak** proposatzen ditugu, etorkizuneko hirien egitura berriz hausnartzeko:

- Hiritar taldeek hainbat modutan erabili ohi dute hiria. Gaur egun, emakumeek eta gizonak oso modu desberdinean erabiltzen dute hiria, gizarte lanen eta rolen banaketa dela eta. Etorkizunean, egoera hori aldatzea espero dugu, baina beti izango dira hiria bizitzeko modu desberdinak. Lehen urratsa **hirigintzako informazioak aniztasun hori isla dezan** lortzea da. Akats larria da plangintza orokorrek biztanleez hitz egitea, premia berezituak dituzten hiritar taldeez hitz egin beharrean; izan ere, horrek etorkizunerako aurreikusi diren espazioak egokiak ez izatea dakar. Genero ikuspegia kontuan hartuta –hori baita txosten honen funtsa– aipatu dezagun sexuen arabera hiriaren erabilera adierazten duen informazio edo estatistika gutxi dagoela. Dauden estatistika bakanek adierazi dugun egoera desorekatu horren berri ematen dute.
- Hirigintzari eta hiriaren diseinuari genero ikuspegia eranstea. Antropologo feminista amerikarrek kontzeptu oso interesgarria erabiltzen dute: ‘hirigintza egokitua’. Hau da, hirigintzako usadioak lurren eta azpiegituren ekoizpenaren eta etekinen banaketatik irtenaraztea, eta bere egitekoa horrelako espazioak lortzea izatea: elkarbizitza bultzatu eta bertan bizi behar duten pertsonen garapenaren eta ongizatearen lagungarri izango diren espazioak lortzea. Egunerokotasunetik eta bertan gauzatzen diren ekintzetatik eta premietatik abiatu eta horiek guztiak jasoko dituzten espazioak definitzea, garrantzitsuak diren beste hainbat alor ahaztu gabe: txikien edo nagusien zaintza, segurtasuna, aisia eta abar. Alegia, bazterrean geratzen ari diren gaiei balioa ematea. Emakumea ordaindutako edo etxetik kanpoko lanean hasteak aldaketak eragin ditu lan egiteko era guztiak eta etxeko bizitzaren antolaketa ulertzeko moduetan: beharrezkoa da bi eremu horietan aldaketak egitea, eta horien bidez, ordaindu gabeko lanaren banaketa sustatzea, sozializazioa bultzatzeko eta bakardade edo estres egoerarik ez izateko. Horretarako, **oinarrizko ikuspegi berriak erantsi behar dira hiriarentzako proiektuen eta ideien plegu baldintzetan**. Beharrezkoak dira proiektu berritzaileak bultzatuko dituzten ekintza positiboak. Onuragarria da erabiltzen ditugun **tresnak eta arauak** ikuspegi berri horren arabera hausnartzea, ikusi ahal izateko zein alderdi diren baliozkoak eta zein diren aldatzea komeni direnak.

Egunerokotasunaren errealitatean oinarritzen den **ikuspegi berri hori barne hartzeko**, lehenik eta behin, beharrezkoa da teknikarien artean edo komunikabideetan kontuan hartzen ez den eguneroko bizitzaren zati hori azalaraztea. Beharrezkoak dira eguneroko bizitzari buruzko **berariazko azterketak** (lanari buruzkoak ez direnak). Baina, batez ere, beharrezkoa da emakumeei beraiei hitza ematea, azal dezaten zein den hiriko espazioarekin duten harremana, zein diren antzematen dituzten disfuntzioak, zein arazo dituzten edo zein diren beraien bizitza konplexua –lehenengo orrialdeetan azaltzen genituen profil guztiak uztartzen saiatzen den hori– garatzeko espazio egokiak.

Emakumezko hiritar gisa, hiriari buruzko eta hiriaren espazioari buruzko hausnarketa kolektiboa bultzatzea litzateke modua, bideak irekiz, **hiritarren parte-hartzea bultzatzeko tresnak** aztertuz, hiri edo lurralde proiektuan integra daitezkeen berariazko proposamenak aditzera emanaz. Emakumeak munduaz duen ikuspegiarekin bat doan esaldia erabiliz: ‘Negarrik ez, tiritirik ez’. Kexatzen ez bagara, hiriak sortzen digun ezerosotasuna adierazten ez badugu, litekeena da osterantzean ere benetan hitz egiten dutenen, itzal luzea dutenen eta abarren neurria egiten jarraitzea.

Tekniken artean, egin daitekeena da **hirigintza prozesu parte-hartzaileak bultzatzea**, ohiko prozesuetan, maila txikiagoan parte hartzen dutenen ahotsa entzun dadin. Bereizitako informazioa exijitu, hiritar moten arabera. Parte-hartze espazioak ireki taldeentzat, indar guztiz azaleratu dadin desberdintasunaren eta kultura aniztasunaren hirigintza. Eguneroko bizitzaren alderdi ezkutua baloratzen dituen premisak gehitu diseinuari: segurtasuna, elkarbizitza, naturaz gozatzea, aisialdia, premia dutenen zaintza, lasaitasuna, isiltasuna, patxada, gozamina...

Horrela, emakume gisa bereizten gaituena entzunez eta baloratu, berariazko proposamenak egin ahal izango ditugu, hiri proiektuan integartzeko. Planeamenduko tresnak birmoldatzea, prozesu demokratiko sakonen emaitzak jaso ditzaten eta hiritargoa osatzen duten taldeen parte hartzea isla dadin. Hirian esku-hartzen duten elkarten aukera zabaltzea, gaur egun –daudenean behintzat– auzokideen elkarteetara mugatzen baita.

Proposamen horiek emakumeei egokitzen zaizkiela egiaztatzeko –edo mundu bidezkoago baita, gaur gure gain erortzen den horretaz arduratuko direnei egokitzen zaizkiela egiaztatzeko– interesgarria litzateke **tresna berrien egiaztatze prozesuak abiatzea**; esate baterako, **neurigailuak** sortzea hiriaren bizigarritasuna emakumeen edo desberdintasunaren hirigintza osatzen duten taldeen ikuspegitik aztertzeko. Neurigailuek funtzio bikoitza dute. Alde batetik, ekintza baten egokitasuna neurtzea eta egiaztatzea edo joera bat zuzentzea. Baina beste fun-

tzio garrantzitsu bat ere betetzen dute: egoera jakin baten gaineko sensibilizazio tresnak izatea eta esku-hartze sistemak martxan jar daitezen bizkortzea.

Horrez gain, beste bide bat **ebaluazioko beste sistema batzuk** martxan jartzea izan daiteke. Horietako bat **Gizarte Inpaktuko Azterketak** egitea izan daiteke. Ingurumen Inpaktuko Azterketen antzeko metodologia erabiliko lukete. Adibidez, proiektu zehatz bati begira, ezaugarri horiek dituen txosten batek proiektu horren onuradunak zein diren azter dezake eta norengan duen eragina proiektu horren esku-hartze bakoitzak.

Plusbalioen hirigintzatik pertsonen hirigintzara igarotzeko bide horretan, hiri ereduak gisa horretako erreferentziatzko ideietan oinarritu beharko luke: hirigunean garatzen diren jardueren gertutasuna eta konplexutasuna; espazioen irisgarritasuna eta adierazkortasuna; hiriko guzti-guztien segurtasuna eta bizigarritasuna; ekipamenduak eta interesguneak eskuragarri eta irisgarri izatea, kotxez ez ezik –eta, bereziki– baita oinez eta motorrik gabeko garraiobidez ere, mugikortasun urriko pertsonak aintzat hartuta, batez ere. Eta, ororen gainetik, erabilera moduak nahas daitezen sustatzea, nahi dugun gertutasuna eta irisgarritasuna lortzeko; eta, horren bidez, hiritarren bizitza osoa eta konplexua osatuko luketen jarduerak egitea ahalbidetzea.

Laburbilduz,

- Hiriko talde guztien premia errealean ezagutzan sakontzea, eta ezagutza horiek lurraren erabilerari buruzko eta garraioari buruzko politikak garatzeko erabiltzea. Politika horiek dauden baliabideak berdintasunez eskuratzea bermatuko dute eta ase gabeko premiak jasoko.
- Gizartean gertatzen diren bazterketa eta tratu motak aztertzea (gehiengoena zein gutxiengoena).
- Hirigintza prozesuetan beraien ahotsa nekez entzuten den biztanleriako sektoreen partaidetza aktiboa bultzatzea.

HIRIEN EGITURA BERRIZ HAUSNARTZEKO PREMISAK, GENERO IKUSPEGITIK

- Hirigintzari buruzko informazioa
- Planteamendu berriak egitea, "Hirigintza egokitua":
 - Hiriarentzako ideien eta proiektuen plegu baldintzetan
 - Hirigintzako araudian eta tresnetan
- Proiektu berritzaileak bultzatuko dituzten ekintza positiboak
- Berariazko azterketak
- Prozesuetan parte hartzea
- Ebaluazio/egiaztapen prozesuak:
 - Neurgailuak
 - Gizarte inpaktuko azterketak

ANA ESTIRADO GORRIA

Arkitektoa

**«La mujer construye (Emakumea
eraikitze lanetan)»**

foroa

Eraikitzea,

bizitzea,

pentsatzea...

emakumea

eraikitze

lanetan,

etorkizuneko

proiektua

Aurkezpena

Vienako Wittgenstein filosofoarentzat “Guretzat garrantzitsuenak diren gauzen izaera ezkutatuta dago, haien sinpletasuna eta egunerokotasuna dela eta”. Perpaus hori hartu eta bere tesuingurutik aterako dugu. Nire ustez, biziaren gauza soilak eta eguneroko gauzak sekula ez dira ezkutatuta egon emakumearentzat, eta ez da kasualitatea emakumeok egiten ditugun gogoeta askok eta askok egunerokotasun horrekin zerikusirik izatea, espazioari buruzko eztabaidetan modu aktiboan eta profesionalean parte hartu nahi dugunean, batez ere.

Bai Cristina Garcia Rosalesek bai nik neuk ere, honako mundu honetan dugu jatorria: lanbide liberalen munduan, eraikitako gauzen munduan; formak grabitate legearen, merkatu legearen, araudiaren eta gure lanbidean gero eta pisu handiagoa hartzen duen erantzukizunaren mende dauden munduan. Gure ikasketetan proiektuak garatzen eta eraikitzen ditugu, batez ere.

1995. urtean, Espainiako emakume arkitekto talde batek EMAKUMEA ERAIKITZE LANETAN foro irekia antolatu genuen. Oso pozik gaude, orduz geroztik egiten ari garen lana zuekin elkarbanatzeko aukera eder hau dugulako.

Hitzaldia espazioari buruzko gogoetaren inguruan egituratuko dugu, beti ere, arkitekturarekin lotura duten emakumeen ikuspuntutik. Profesionalak garen heinean, guk zer eskaini dezakegun galdetzen diogu gure buruari; gainera, iraganeko beste hainbat emakume arkitektoen ekarpenak ezagutarazi nahi ditugu, historia ez baita oso zuzena izan emakume aitzindari haiekin. Cristinak horri buruz hitz egingo du, jarraian.

Kultura elkarren artean banatzeko eta transmititzeko ondarea da. Kultura gure aurrekoek utzi diguten herentzia da, bizimodu berriak, pentsamendu bide berriak, mundua ulertzeko modu berriak irekitzeko lan egin duten gizon-emakume askoren ahaleginaren ondorioa.

Gure garaiarekin konpromiso bat dugu: gure ondoren etorriko direnei guk ezagutu dugun mundua baino hobea utzi behar diegu eta, horretarako, zaintzen eta aberasten ahalegindu beharko gara. Gure iritziz, guztiz beharrezkoa da hainbat mundu profesionaletara lotutako eztabaida eta topaleku foroak antolatzea, ideiak hedatuko dituzten egiturak sortzea, eta ideia horiek gizartera helaraztea.

Etorkizuneko gizartea, dagoeneko gugandik oso hurbil dagoen etorkizun hori, gizarte mestizo, global, ordenarik gabe, teknologiaren mendeko bezain bidegabekoa eta abar azaltzen zaigu, eta gizarte horren eraikuntzan buru-belarri gaude sartuta... Horixe da, hain zuzen ere, potentzia hau prestatzerakoan, iragan udan idatzi nuena. Gaur egun, ordea, ondorengo hau esan beharko nuke: etorkizuna begien aurrean dugun amildegiaren antzera ageri zaigu.

Gizarte honetan bizitzeak azterketa eta irizpide kritiko dosi handiak garatzea eskatuko du, gure-gurea dugun bizitzaren zentzua eta norabidea ez galtzeko.

Gizateriak sekula ez du bere inguruan gaur egun dituen adina aukera izan, ez eta hainbeste bitarteko zientifiko, teknologiko eta ekonomiko ere; eta, hala ere, aitortu beharra dut, ni ere bat natorrela munduaren desgizatiartzea dela eta, benetako alarma soziala sortu beharra dagoela diotenekin.

Gaur egun, arkitekturaz, poesiaz, gauza hautemangarriez eta ederrez eta abarrez hitz egitea hutsala, nostalgikoa eta tokiz kanpoko dela dirudi. Batez ere, boom ekonomikoa dela eta, espainiar estatuan milioi erdi etxebizitza eraikitzen ari diren honetan; dakigunez gainera, etxebizitza horiek bizitzeko toki atsegina bat baino gehiago negozio handiak dira.

Hala ere, hain justu, une hauetan egitura eta bizi prozesu asko eta asko aldatzen ari direlako (bat-batean eta irrazionalki aldatu ere) eta horren ordez gauza hutsalak, behin-behinekoak eta galkorrak jartzen direlako, uste dugu...

Oso garrantzitsua da gure arkitekto izaeraren inguruan gogoeta egitea, gure gizarte funtzioaz, gure jarreraren ondorioez, gizakia bizi den inguru hurbila eta gizakiarentzat ezinbestekoa dena aztertzerakoan, sortzen ditugun formak zergatik eta zertarako sortzen ditugun, etorkizuneko erronkei zer-nolako erantzunak eman behar dizkiegun eta abar.

Eta testuinguru horretan sortu zen, 1995. urtean, **Emakumea eraikitze lanetan** foroa, naturaltasunez eta modu intuitiboan; urte horretan, NOW (Emakumeentzat aukera berriak) ikas-

taroetako batean elkar ezagutu genuen emakume arkitekto talde txiki baten inguruan; topaketa hori Toledon antolatu zen, Europar Batasunaren babespean.

EMAKUMEA ERAIKITZE LANETAN foroa emakume arkitektoek sortutako sarea da, baina ez da emakumeentzat soilik.

Gizonezkoa edo emakumezkoa izatea ez da berezko meritua, Naturak inposatutako baldintza baizik eta, orain arte, gutako inork aukeratu ezin izan duen zerbait. Izan ere, errealitate bat baino ez da eta errealitate hori zuhurtasunez aprobeztatzen jakin behar dugu, zorrionsuago bizitzeko, bai gizonezkoak bai emakumezkoak ere.

Munduari arkitektoen eta emakumeen begiez erreparatzen diogu. Egin dezagun bada, begirada komun horretaz, hurbiltzen eta komunikatzen lagunduko digun zerbait.

EMAKUMEA ERAIKITZE LANETAN foroaren azken sei urte hauetan ondorengo hau egiaztatu ahal izan dugu: genero ikuspuntua lotura kulturalizat hartzea munduen arteko komunikazio bitarteko ezin hobea dela eta ohikoak ez diren bideak irekitzeko aukera ematen digula gure lanbidera hurbiltzeko. Era berean, espazioa gaiak izugarritzko interesa pizten duela egiaztatu ahal izan dugu, batez ere, ikuspuntu profesional batetik, emakumeak erabiltzaileengana, espazioetan bizi direnengana edo gizarte alorrean lan egiten duten erakunde publikoetara hurbiltzen garenan. Guretzat oso pozgarria da EMAKUMEA ERAIKITZE LANETAN proiektuak ondorengo erakundeen sostengua lortu izana: eraikuntzarekin lotutako erakunde publikoak (Sustapen Ministerioa), emakumearekin lotutakoak (Madrilgo Komunitateko Emakumearen Zuzendaritza Nagusia) eta, pentsamendurekin lotutakoak, esate baterako, Alcalako Unibertsitateko Arkitektura Institutua.

Emakumea eraikitze lanetan proiektuak piztu duen interesaren arrazoia, hein batean, ondorengoa da: bere helburua ez da gizonezkoek eta emakumezkoek egindako arkitekturaren azterketa konparatiboa egitea.

Gure pentsamendua ekarpenean oinarrituta nahi dugu eraiki, eta ez konparazioan oinarrituta. Bestalde, ez dugu galtzen utzi nahi bizitzeko tokatu zaigun une historiko honek eskaintzen digun aukera; historian lehenbiziko aldiz, gure esku izatea ikuspegi profesionaletik emakumezkoen munduaren aberastasun osoa eraikitako espazioetara eramatea; izan ere, toki horiek bizitzarako ezinbestekoak dira, eta, zenbaitetan, baldintzatu ere egiten dute.

Gure iritziz, gaur egungo emakume arkitektoen betebeharrak bat da hori, bizitzeko tokatu zaigun gizartearen eraikuntzan parte hartze bizia izan nahi badugu, behinik behin, eta ziur gaude betekizun hori emango zigutela beren garaian borrokatu zuten emakume askok, egun dugun egoera profesionala lortzeko.

2.

Emakumea eraikitze lanetan

ERAIKI hitzaren baitan, giza jarduerak dituen elementu positibo guztiak sartu nahi izan ditugu: ERAIKITZEA eta SUNTSITZEA elkarren aurka. Eraikitzearen alboan emakumea ipini eta paralelotasun sinbolikoa ezarri genuen: gure jarduera profesionalaren eta, gure iritziz, biziaren aurrean izan beharreko jarreraren artean. Beraz, izenburua bere asmoen adierazpena da.

EMAKUMEA ERAIKITZE LANETAN plataforma kultural irekia, kolektiboa eta solidarioa izateko helburuz jaio zen; gaur egun arte, zenbait jarduera egin dira eta ondorengo hauek dira azpimarragarrienak:

- 1- 1997az geroztik, arkitekturari buruzko topaketak antolatu ditugu urtero, Alcalako Unibertsitatean. Guztira, Mediterraneo inguruko ehun hizlarik baino gehiagok hartu dute parte.
- 2- Emakume arkitektoak edo emakumeen parte hartze azpimarragarria izan duten taldeek egindako lanen bilduma prestatu dugu, 200 obrakoa. Horretarako, deialdi irekia egin zitzaizen Estatuko Arkitektoen Kolegio guztiei.
- 3- Arkitekturako hainbat kongresutan eta jardunalditan ponentziak aurkeztea.
- 4- Eta, azkenik, gizarte mailan oihartzun handiena izaten ari den lana: BARRUTIK ERAIKITZEA erakusketa ibiltaria. Erakusketa horretan, espainiar estatuan emakume arkitektoek sortutako 38 lan daude, eta ondorengo tokietan egon da ikusgai: 1999. urtean, Alcalako Unibertsitateko Klaustroan; 2000. urtean, Madrilgo Paseo de la Castellana Sustapen Ministerioko Galerian; 2001eko martxoan, Donostiako San Telmo Museoan eta, amaitzeko, iragan irailaren 6an, Gasteiz hiri eder honetako San Prudentzio aretoan inauguratu zen.

Erakusketa hori erakusketa bizia da, bisitatzen duen toki bakoitzean beste proiektu batzuk txertatzen baititu; horrela, gure Foroa zabaltzea eta emakume profesional gehiago sartzeari lortu dugu, bai eta parte hartu nahi duten erakunde publikoak eta pribatuak ere. Gasteizkoa amaitu ondoren, datorren neguan erakusketa Kataluniara heltzea espero dugu.

Sentitu berriro ere gizakiarenganako mirespena, hori gabe neurrigabeko bakardadea izango bailitzateke mundua.

Albert Camusen testu batetik ateratako esaldi horren bidez eman zion hasiera gure erakusketaren katalogoari Sustapen Ministerioko Arkitekturako Zuzendariorde Nagusi Gerardo Mingo arkitektoak.

Hitzaurreri hasiera emateko esaldi hori hautatzeak aditzera eman zigun bete-betean ulertu zuela erakusketa hori antolatzekeo guk genituen asmoak. Izan ere, erakusketak asmoen adierazpen txikia izan nahi du, bizitzearen zentzuaren inguruan egituratu dena, gizakiaren neurria egokitutako arkitekturaren arabera, hain zuzen ere.

Arkitekturak forma ematen dio inguruari; inguruko mundua biltzen eta inguratzen gaituen guztia da, hau da, bertan bizi den izaki bizidunak ostatu hartzen duen esparrua.

Nonbait bizi den izakiak bere esperientziak eta oroitzapenak kokatzen ditu, bizi den izakia bizirik da.

Baina, zer da benetan bizitzea?

Poeta gisa bizi da soilik gizakia Lurrean, esaten zuen Holderlin-ek.

BIZITZEA ERAIKITZEA moduan ulertuta.

Pentsamendu horrekin batera eta kontraste gisa, Jose Quetglass arkitektoak proposatzen duen irudi bitxia aipatzea gustatuko litzaidake. Quetglassek **EZIN BIZITZEA** terminoa erabiltzen du, horren bidez, gizaki modernoaren balizko egia irudikatuz; hau da, izan gabe, egon gabe, egin gabe, ahal izan gabe bizi den subjektu abstraktua. Bere presentzia bizi ez, baizik eta bizitza irudikatzen duen hura: subjektu abstraktua, ekoizlea eta lan abstraktuaren produktua, kapitalaren gizartean bizi den laguna, gizabanako modernoa: GU GEU.

Inor bizi ez den etxea bizigabeduna da. Ustekabeko pertsoniarekin egin dugu topo. Normalea zera litzateke: bizigabedun horrek nolabaiteko fantasma izaerako harremana izatea ingurunearekin.

Inor bizi ez den etxeko bizigabeduna, hiri modernokoa, hirigileei, arkitektoei eta sustatzaileei, eraikitzaileei eskainitako espazioko bizigabeduna...; bere funtzioa aspaldi definitu zuen Abraham Molesek:

“hiriko ingurunea xaflatan moztea eta horietako xafla bakoitzean izaki bizidun bat bere ohiko familiarekin eta hainbat altzarirekin eta objektuekin ipintzea; izaki bizidun horrek ingura-

tzen duen munduaren ikuspegi erabat desberdina izango du eta oinarrizko kontraesan antzeko bat sortuko zaio, eguneroko bizimoduak soilik gaingituko duena”.

Definizio beldurgarri horrek gure etxebizitzak zer izan daitezkeen argitzen du, hau da, GAIN-DITZEKO BEREN AURKA BORROKATU BEHARREKO tokiak. Nire ustez, oso abiapuntu egokia da espazio existentzialari buruzko gogoeta bati ekiteko.

Arkitektura, gure bizipenen eskenatoki; arkitektura, ez abstrakzio gisa ulertuta, baizik eta bizitzara, gizakira eta gure egunerokotasunera erabat lotuta dagoen zerbaiten gisa.

Etxebizitzaren alorrean hainbat urtez lan egin eta gero, sustapen publikoko, autoeraikuntzako eta zaharberritzeko proiektuak eginez, eta hainbat urteren buruan eraikuntza lanetara itzuli eta gero (gainera, izugarri osasungarria dela esan beharra dago, apaltasun ariketa ezin hobea baita; lankide askori gomendatuko nieke) ondorengo honetaz ohartu nintzen: proiektuak garatzeko orduan, gure erabakien ondorioak aztertzea zein garrantzitsua eta beharrezkoa den, bai eta eraikita dagoenari eta bizitakoari erreparatzea eta ondorioak ateratzea ere. Jarrera horrek bultzatu ninduen, hain zuzen ere, foro honen diseinuan eta trebakuntzan laguntzera.

William Alsop arkitekto ingelesak duela gutxi zioen bezala, arkitektura jendearen ilusioekin lan egiten duen lanbide apurretako bat da, eta jendeari entzuteak irudimena sustatzen du.

Hori da, EMAKUMEA ERAIKITZE LANETAN gure proiektuak bultzatu nahi duen espiritua, beti erne, entzuteko prest. Gure iritziz, arkitekturaren ikerketak formaren azterketa hutsa gaingitu behar du. Arkitektook espazioan hezten lagundu beharko genuke; baina heztea begiak zabaltzea eta espazioaz jabetzea dela ulertuz, eta gainerakoentzat espazioak zer esan nahi duen ulertzea, edo zer esan nahi lukeen, guk, profesionalok azaldu nahiko bagenie, behinik behin.

Gure iritziz, emakumeok proposamenak egin behar ditugu, eta proposamenak arazozen azterketa sakonetik abiatzen dira.

Eta arkitekturaren baitan, intimitaterako gordetako espazioa, espazio pribatua, etxea eta abar dira deigarrienak ondorengo gogoetari ekiteko: zer ekarpen egin diezaiokegu emakume arkitektook eraikitakoaren munduari?

4. *Hautemangarria eta egunerokoa*

Ez dut gai honetan gehiegi luzatu nahi, baina ondorengo hau argi utzi nahi nuke: Alcalako Unibertsitateko Arkitektura Topaketetan aurkeztu nuen "Etxea: hautemangarria eta egunerokoa etxebizitzako espazioan" izenburuko ponentzia oinarritzen duen eskemak gogoeta honetan lagunduko gaituela, eta interes handia dut horretan, oinarritzotik abiatuta zehatzera heldu nahiko nukeelako.

Etxea aztertzerakoan, ondorengo hau da guretzat lehenbizi ageriko egiten duena: hainbeste konnotazio dituen gaia aztertzeke metodologia zehaztu beharra.

Ondorengo galderak egiten dizkiogu gure buruari: Nola aurki daiteke lehentasunik zehazten ez duen ordena? Nola egituratu intuizio, irudi, amets, oroitzapen, proiektu eta abarren multzoa den pentsamendua? Eta, batez ere, nola transmititu?

Hautemangarria eta egunerokoa, espazioa definitzeko beharrezkoak eta osagarriak diren indar moduan.

Zein da ETXEAREN **esentzia**?

Hain hurbilekoa den horri buruzko edozein iruzkin garrantzirik gabekoa iruditzen zaigu, baina hor dago, hain zuzen ere, gure gogoetaren xarma eta zailtasuna.

Gure arazoa ondokoa da: gure pentsamenduak zein alor aztertzea nahi dugun zehaztea.

Arkitektoak gara eta **forma** gurekin berez lotuta doan zerbait da; eta, beste askotan gertatzen den moduan, geometria gu laguntzera etorri zen.

Gure pentsamendua ez da lineala, ez du ez hasierarik, ez amaierarik, askatasun osoz osatzen da, hurbiltze puntu amaigabeak eta erdigune bat ditu: Gure pentsamendua biribila da.

Erdian, etxea, emakumea, GIZAKIA.

Emakumeak garen heinean, kontzeptuak beregan duen aberastasun zati handi bat hauteman dezakegu; lehenik, naturak gu ere harritzen gaituen ahalmen horrekin sortu gaituen gizakiak garelako; hau da, espazioa izateko aukera garelako (gure seme-alaben lehen bizitokia barne hartzen duen espazioa); bigarrenik, gure izaera femeninoa dela eta, usadioz edo ohituraz hurbilago gaudelako etxe eta familia kontzeptutik gizonezko arkitekto kideak baino; eta, azkenik, ameslariak garelako eta etxeak, beste gizakien ostatuak, eraikitzeke izaera dugulako; horrek lan eraikitzailea egiteko gaitasuna ematen digulako.

ETXEA - EMAKUMEA – AMA dialektika hau gustukoa dugu.

Azter dezagun osatu dugun espazio mentalaren planoan.

Guretzat etxea unibertso txiki bat da, zentratuta dagoen guztia moduan. Erdi-erdian, izakia, ideia; ideia bakoitzaren atzean dago bere esentzia, definitzen eta osatzen duen hori.

Gure irudikapen zirkularrean, ekuatoreak bi mundu bereizten ditu, gauza HAUTEMANGARRIEN mundua eta gauza HAUTEMANEZINEN mundua.

Etxeari buruzko bost ideiek osotasuna definitzen lagunduko digute, oinarrizko balioetara, balio originaletara eramaten gaituzten bost etxek.

- 1- Etxea errealitate fisiko moduan, ERAIKITAKO ETXEA, **Forma** ekartzen digu gogora.
- 2- Etxea bizitzeko behar moduan, BIZITAKO ETXEA, **Existenziaren** errealitaterantz eramaten gaitu.
- 3- Etxea adierazpen moduan, berezko mundutik haratago joateko gurari gisa, SORTUTAKO ETXEA, **Edertasunaz** hitz egiteko aukera ematen digu.
- 4- Etxea jatorri moduan, berriz elkartzeko irrika moduan, ETXE MAITEA **Amarengana, Lurrera** hurbiltzen gaituena.
- 5- Eta, azkenik, ETXE ETEREOA, gure barne munduaren metafora moduan ulertutakoa, **arimara** hurbiltzen gaituen etxea.

Forma, Existentzia, Edertasuna, Ama eta Arima.

Bost ideia eta toki bat: ETXEA, ideia horiek aurkitzeko, definitzeko eta barnean hartzeko.

Bisita ditzagun bost ideia horiek, sar gaitezen barrura eta ikus dezagun zein arrazonamendutara garamatzaten haien igarobideek.

Ibil gaitezen geure diagramatik, hurbil gaitezen SORTUTAKO ETXERA.

Amestutako espazioak, bizipenaren aurrerapena, sorreraren jatorria. Horretarako beharrezkoa da isiltasunaren itsasoetan zehar bidaiatzea, beharrezkoa da lasaitasuna zeharkaldi on bat izateko eta beharrezkoa da denbora, zeharkaldia presarik gabe egin ahal izateko. Teila-tupean ikasgela dugu, bertara joaten gara beste batzuek biziko dituzten espazioak amesteko. Behean, etxea zarataz, pentsamenduz, oroitzapenez, argiz, formaz, kolorez, musikaz, ahaide eta lagun maitez eta abarrez beteta dago; bertan irudimena bizi da, iraganaren eta etorkizunaren arteko nahaste hori, konpondutako kontraesanena, elkarrekikotasunena, sekretuena, bihozkadena.... Izan ere, irudimena Baudelaire-entzat ahalmenik zientifikoena zen.

Gure etxeak leiho handiak ditu ametsen mundura zabal-zabalik, eta errealitatearekin ere lotura zuzena du; etxean bakartzen gara sortu nahi dugunean, edo proiektuak egin nahi ditugunean.

Proiektuak egiteko, irrealaren munduan, existitzen ez denaren munduan, eraiki gabekoaren munduan, ametsen munduan (arkitekto gisa ditugunak eta etxeko biztanleek dituztenak) kokatu behar gara. Elkarrizketa sortu behar dugu, haiei eta geure buruari entzun, gure espazio horietan bizitzen imajinatu eta zorionsuak diren egiaztatu. Topaketa harmoniatsu batetik soilik sortuko dira proiektu ederrak, beti ere, edertasuna gure baitan dagoen egiazkoaren adierazpentzat hartuta; hori izango da gure lotura.

ETXE ETEREOA ere eraiki egiten da. Eraikitako etxearen ezaugarri berberak ditu, izaki bertikala eta kontzentratua da. Bere dimentsio bertikala sakontasuna da eta bere erdigunea gu geu gara. Jaiotzen garenean esentzia bat da soilik da eta bizitza aurrera joan ahala joaten gara eraikitzen; eraikuntza hori bera onespina da, milaka sekretu ezkutu baititu, bai eta bultzatu beharreko ate, ireki beharreko leiho, une ezin ederragoetara daramaten eskailerak eta soto ilunetara jaisten diren beste batzuk ere. Espazio zehatz batean bildutako izaki baten gisako arimaren irudi poetiko horrek, gure arkitekto izaerara itzultzea eragiten digu berriro ere. Espazioen bidez sentitzen dugu, beste batzuk soinuen, koloreen, gorputzaren, materiaren eta abarren bidez sentitzen duten antzera. Geure burua barneko atal gisa sumatzen dugu; eta barnea baldin badago, kanpoa ere badago, bai eta edukitzen duen elementua ere, hori da gure ETXE ETEREOA.

ETXE ETEREOAk emakumearentzat metafora izateari uzten dio, bere gorputza bizigarri sumatzen duen unean, izaki bizidun batek fisikoki hartuta, ama sentitzen den unean. Pentsamendu horrek ondorengo ideia honetara eramaten gaitu:

ETXE MAITEA, amaren eta seme-alaben arteko lotura fisikoa eta espirituala. Espazio errealean garatzen da, eta gure zati da. Arkitektoak garen heinean, espazioari buruz dugun ikusmoldea beste dimentsio batez osatzen dela sumatzen dugu; u gara hartzen duen espazioa, gu geure seme-alaben lehenbiziko etxebizitzaren espazioa, etxe perfektua, beroa, laguntza behar ez duena, higikorra, ekologikoa eta abar; gu geu gara etxea, eta horregatik ulertzen dugu horrela deitutako tokiak duen ezaugarri amatiarra.

Ama sustraia da, sorburua, Naturarekiko lotura, jarraikortasuna, Lurra... ; ama biziaren ataria da. Emakumeak zentratutako izaki izateari uzten dio, bere baitatik abiatutako beste izaki independente batzuk sortzen direnean eta bere esentziaren atal dira; emakumea, etxearen moduan, unibertso eta indar integratzaile bilakatzen da, bai eta itzuli beharreko tokia ere. Etxean eta amarengan aurkitzen du gizakiak bere nortasuna.

Baina utz ditzagun alde batera grabitaterik gabeko munduak, joan gaitezen mundu haute-mangarrietara eta hitz egin dezagun ERAIKITAKO ETXEAZ; hau da, objektu materialaz, erre-

alitate geometriko ahaltua duenaz eta Naturaren legeen eraginpean dagoenaz; guretzat amaiera eta beste batzuentzat hasiera den objektuaz.

Etxea ematen dugunean amaitzen da gure lana, dagoeneko ez da gurea, gure lanarekiko lotura hausten dugu; baina, hala ere, arkitekturaren handitasun osoa sumatzen dugu, baita erai-kinik txikienean ere. Eraikuntzaren emozioa, paper zuritik objektu materialerako bidea, zeharkagarria, bizia, besteek hauteman, bizi eta gozatu dezaketen forma fisiko batera itzulitako pentsamendua da. "Etxeari esker, gure oroitzapen askok eta askok ostatua dute" esan zuen Gaston Bachelardek.

Etxea intimitaterako espazioa da, espazio pribatua, toki segurua eta guk hautatzen ditugun haiekin segurtasun sentimendua konpartitzeko tokia. Etxebizitzak eman behar duen segurtasun sentimendua bertako biztanleen behar fisikoak nahiz espiritualak aseko dituen ziurtasunetik sortu beharko litzateke.

Etxeen diseinu amaigabeak egongo dira, irudi infinituak, ez dugu behar unibertsalei erantzuten dien hizkuntza arkitektonikoan sinesten. Etxea tokitik, klimatik, kulturatik, garaitik sortzen da. Ez dago etxe perfekturik, baina gizakion beharrei erantzuten dien neurrian, horretara hurbilduko da. Eta barrualdearen moduan, kanpoaldeak ere ezaugarri hori ere izan behar du. Gure iritiz, formalki lasaitutako etxean bizitzea pribilegio bat da.

Etxeari dagokionez, gizakiak oso harreman estua du bere habitataren irudiarekin, eta horra nahiko nuke zuzendu gure gogoeta. Zein irudi ari da sortzen? Zer-nolako hiriak ari gara sortzen, etxebizitzak eraikitzerakoan?

Tristeza da aitortzea, esan dugun moduan, gaur egun Espainian milaka etxebizitza eraikitzen diren arren, edertasun kontzeptua planteatu ere ez dela egiten; parametro hori ez dago eta prozesuan parte hartzeraz ere ez da heltzen.

Oso azkar eraikitzen da, ahalik eta merkeen, ahalik eta garestien saltzeko. Espainiar estatuko hiri guztietan sortzen ari diren ehunka auzoetatik, zaila gertatuko litzaiguke adibide egokirik aurkitzea arkitektura aldizkariren batean argitaratzeko.

Zertarako hezi balio estetikoetan, funtzionaletan, etikoetan eta abarretan gure arkitektura eskoletatik irteten diren milaka ikasle, ezagutza horiek ez badute balio eraikitakoaren kalitatea hobetzeko?

Espazioarenganako sentsibilitatea pizteaz hitz egitean, edertasunarenganako sentsibilitatea pizteaz hitz egiten dugu. Badakigu kontzeptu hori erabat subjektiboa dela, baina, gure iritiz, lan alor hori erabat erakargarria da eta etorkizun askokoa.

Edertasuna balio erantsia da. Edertasunaren balioa, inork eskatzen ez duenean, inork ez du faltan botatzen; gaur ez, baina, bihar, agian bai.

Gure foroan pare hartu duten arkitekto emakumeek behin eta berriz errepikatzen dute erabilitzailearengana hurbiltzeko sentimenduaren beharra, proiektuaren inguruan hitz egiteko eta proiektua ulertzeko beharra, hasiera batean kontuan hartu gabeko posizioetara bideratzeko beharra. Hori izan al liteke emakume arkitektoek ireki lezaketen bidea habitataren eraikuntzaren baitan? Ederra litzateke gure arkitektura gizartera, merkatura eta sustapenetara hurbilduko luketen jarraibideak aurkitzea, zintzoak eta errealistak izanik, arkitektoon funtzioa (gizonezkoena zein emakumezkoena) oso debalututa baitago.

Gainerakoen edo besteen zerbitzurako arkitektura, arkitektura eta gizartea, gure ERAIKITAKO ETXEAREN eta gure BIZITAKO ETXEAREN arteko topalekua; gure espazio etxetiarrak izen poetikoa galdu, ETXEA, eta etxebizitza bilakatzen den unea.

Etxebizitzari BIZITAKO ETXEA deitzean, bere izendapenean oinarritzko balio hori ez galtzeko intentzio sekretua gordetzen dugu. Guretzat, etxebizitzak etxe izaten jarraitu behar du. BIZITAKO ETXEAK existentziaz hitz egiten digu, egunerokoaz hitz egiten digu; hau da, Jose Maria Buendia arkitektoaren eta idazlearen pentsamenduari darion ñabardura galdu ezin dezakeen horretaz: "Egunero-egunero ohitura bakunak errepikatzearen poesia".

Zenbait kontzeptu askatasun osoz erabili behar ditugu, esate baterako: **funtzioa, ekonomia, arrazionaltasuna eta erabilera.**

Etxeak ez dira makinak soilik, baina, zenbait alorretan, makinen zorrotasunarekin funtzionatu behar dute; engranajeek behar moduan akoplatuta egon behar dute.

Bizitzeko makina, Le Corbousierrek esango lukeen moduan. **Artea eta azkartasuna** esanahiak konbinatzen dituen aparatua, edozein arazori aurre egiteko gaitasuna izango duen objektua. Espainiar estatuan gaur egun eraikitzen ari den etxebizitza mota makina ezin txarragoa da eta ez ditu, inondik inora, sortzen diren arazoak konpontzen.

Etxebizitza, gure kulturaren, emakumearen erresuma izan da: nahiz eta zenbait alorretan oso ondorio negatiboak izan dituen, hainbat poztasun ere eman dizkio emakumeari; nonbaitekoa izateko eta bertan emozionalki proiektatzeko aukera eman dio eta, batez ere, "etxea gobernatzeko" ezagutza oso sakona, termino horrek bil dezakeen aberastasun osoarekin.

Etxebizitzaren oinarritzko ezagutza horren zati batek (belaunaldiz belaunaldi igorri dena) gugan jarraitzen du eta oso harro sentitzen gara horretaz, ondare pertsonal baliotsua dela uste baitugu. Gainera, arkitekturaren profesionalak garen heinean, gure ikuspegia zabaltzen lagun diezaguke, praktikara eramateak derrigortutako aukera izateari utzi dion honetan. Gaur egun, emakumeek eta gizonek etxearen egunerokoa ez dute, inolaz ere, modu berean bizi. Gure iritziz, emakume arkitektoek etxebizitzaren mekanismo konplexuaren ikuspegi sakona eskaintzen dugu eta, horregatik, eza-

gutza hori irudikatuko duten espazioak islatzeko gai izan behar dugu.

Espazioen diseinuak etxeko lanak zentzuz eta modu partekatuan egitea sustatzen lagundu behar dute. Funtzio horiek posible egitea, emakumeen bizkarreko sufrimenduzko lan madarikatuen izaera hori kenduz, eta beharrezkoak diren aztura bihurtu behar dira, beti ere, bizi kalitate hobeto gozatu ahal izateko.

Etxebizitzan funtzionala den guztia ezinbesteko bilakatzea. Etxeko lan eta ardurekin lotutako guztia, inolako lotsarik gabe, material espresibo bilakatzeak arkitekto emakumeek aztertu beharreko bidea izan beharko lukeela uste dut. Eta "ezinbestekoaz" hitz egitean, biziaren hitz egin nahi dugu, emozioen eta maitasunaren munduari lotuta.

Gizartea izugarritzko abiadura ari da aldatzen. Ohiko familia ereduak ez da desagertu, baina etxebizitzari beste erabilera batzuk ematen dizkieten beste elkarbizitza eredu batzuk azaldu dira. Guraso bakarreko familia, ezkongabeak, bakarrik bizi diren adinekoak, seme-alabekin bizi diren dibortziatuak, etxe berean bizi diren gazte taldeak, seme-alabekin batera eta taldean bizi diren etorkinak eta abar. Eta, hala ere, espainiar estatuan, behinik behin, etxebizitza programak joan den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadakoak izaten jarraitzen dute.

Zaharkitutako programa eta eredu horiek behin eta berriz errepikatzen ditugu eta, zoritxarrez, inertzia ergel horren arabera jarraitzen dugu eraikitzen eta, gainera, bizitzean, zenbait gatazka sortzen dituzte.

Elkarri atxikitako etxeak adibide esanguratsuak dira. Bizitegi auzoak inbaditu dituzten tipologia artifizial horrek eta orokortu egin dira. Eredu horrek ez du bizikidetasuna sustatzen; etxebizitzaren espazioa ere lau solairutan zatitu du, etxeoandrea erabat nekatuta uzten du, Mediterraneoko kulturaren hain txertatuta dauden patioak eta ataripeak baztertu ditu eta, aurrealdeetan, ia erabiltzen ez diren eta intimitaterik ez duten lorategiak sortu dituzte. Une honetan, joan den udaberrian, Madrilgo "Emakume hirigileen elkarteak" antolatutako hitzaldi interesgarri batean entzundakoa aipatu nahiko nuke; hitzaldi hartan, Monica de Blas arkitektoak (elkarte horretako kidea) ondorengorari buruzko azalpen zabala eskaini zuen: etxebizitza familiabakarren tipologiaren proposamenen diseinu prozesu osoa. Etxebizitza horiek ez ziren ohiko elkarri atxikitako etxeen berdinak eta Madrilgo bizitegi auzo garrantzitsu baterako proposatu ziren, baina sustatzaile guztiek atzera egin zuten, apurka-apurka, merkatuko gustuekin bat ez zetozelako.

Bestalde, ia ez dago inolako loturarik benetako beharrek eta diseinuarekin lotutako arau ugariren artean; esate baterako, ordenantza, babes ofizialerako arau, gutxieneko azalaren araberrako finantzazio publikorako irizpide, sustapen publikorako arau eta abarrek garatu behar liratekeen programen malgutasuna eragozten dutelako.

Dagoeneko, bada garaia arkitektook ikuspegi profesionaletik, arkitektura mota bat egitera behartzen gaituztenez, hainbat arazo eta kontraesan mahai gainean ipintzen hasteko. Bereziki eta hori delako gehien ezagutzen dudan arloan, etxebizitza publikoetan.

Etxebizitza publikoen edo babes ofizialeko etxebizitzaren arauak udal ordenantzak idazteko oinarri gisa balio izaten dute, askotan; modu horretan, iraganetik datozen zenbait irizpide arau batzuetatik beste batzuetara igarotzen dira.

Hala ere, nire iritziz, Euskadin indarrean dagoen sustapen publikorako eta babes ofizialerako araudia beste toki batzuetakoa baino aurreratua da; hori dela eta, aurrerago aipatuko ditudan zenbait gauza ez dagozkio herri horri.

Nire ikuspuntutik, gaur bertan, ondorengoak kendu edo aldatu beharko lirateke: sukaldeei argia kentzen dien arropa zabaltzeko tokiak; zazpi metro koadroko sukaldeak (5 + 2tan bereizi daitezkeenak), programa familiarrak logela bat, bi, hiru edo lau koak izan arren; egongela aldaezinak, zati-tzeko eta beste erabileraren bat emateko oztopo direlako; korridoreak, etxebizitzaren espazio urria galtzeko elementuak direlako; arropa zikina garbitzea, lehortzea, jasotzea, plantatzea, gordetzea prozesu garrantzitsua dela ez jabetzea, etxebizitzaren horretara zuzendutako toki jakin bat ez egotea; argi naturalik gabeko komunak bertan daudelarik; igogailurik gabeko lau solairutako etxebizitzak eta abar luzea. Horrek guztiak etxebizitzaren ikusmolde malguagoa eragozten duelako. Eta, ados nago, ikusmolde hori, zenbait kontzeptutan, kolektibotasunean dago txertatuta.

Azken boladan, eta hainbat erakundek behartzen dizkiguten arau berrien artean, Telekomunikazioen Azpiegitura Komunen Dekretua dago. Nik neuk, aurrean, Andaluziako klima hotzeko eskualde batean, hainbat elementuz hornitutako (hoditeriak, kutxatilkak, lotura-armairuak) etxebizitza sozialak proiektatu ditut, aurrerantzean edozein telekomunikazio saretarako lotzeko aukera izateko. Hala ere, guztiz debekatuta dut aurrekontuan inolako berokuntza elementurik sartzeko, baita berogailuen edo indar elektriko osagarrien zirkuituen aurreinstalazioa ere, araudi horren arabera, elementu horiek instalazio berezia direlako.

Bestalde, eta kontraste gisa, arkitektooi hainbeste buruhauste sortzen digun dekretuaren adibidea aipatu nahiko nuke (batzuetan oso zaila delako aplikatzea): arkitektura-oztopoak kentzea; arau horri esker, hainbat eta hainbat laguni bizimodu sozial aktiboa izateko aukera eman zaio. Argi dago, zenbait jarduera eta eskaera derrigorrez bete beharreko arauetan jasota daudenean, bat-bateko ondorioa izan ohi dute eraikitako objektuarengan.

Lehenago edo geroago, eta kolektibo profesionalek, politikoez, auzo elkarteek eta abarrek presioa egiteko izango dugun gaitasunaren arabera, arau horiek errealitate anitzagoetara egokituko dira.

Epilogo

Hau da Emakumea eraikitze lanetan esperientziatik sustatu nahiko genukeen lan ildoetako bat. Eta azaltzen ahalegindu naizen moduan, gure lan profesionala arrazoiaren eta emozioaren bitarteko alderditik jorratu nahiko luke. Leku horretan egin genuen topo, duela urte anitz, arkitekturarekin; balio formalak soilik nabarmentzen dituzten ikusmolde estetikoetatik urruntzen ahalegintzen den arkitektura; kosta ahala kosta asmatzeko joeratik urruntzea, originala bilatuz baina sekula ikusi ez denaren ikuspegitik. Asmatu nahi dugu, baina benetako arazoak gainditzen laguntzeko. Arkitekturaren praktikaren planteamenduan oinarritutako pentsamendua eraiki nahi dugu, balio etikoetatik abiatuta, eta baliabide eskuragarrien ulergarritasun arrazionalaren baitan.

.... eta horrela uste dugu, hain zuzen ...

EMAKUMEA ERAIKITZE LANETAN DAGOELA

CRISTINA GARCÍA-ROSALES
Emakume-Arkitektoa
«Emakumea eraikitze lanetan»
foroa

Eraikitzea,
bizitzea,
pentsatzea...
Emakumea
eraikitze
lanetan,
etorkizuneko
proiektua
(2. zatia)

1. *Emakume arkitekto aitzindariak*

Epilogo gisa, omenaldia eskaini nahi diegu emakume arkitekto aitzindariei. Emakume horiek, gaur egungo emakume-arkitektoei bidea erraztu digute. 1923an, Walter Benjamin-ek emakume kultura berezkorik ez zegoela zioen arren, oroitzapenak emakume horien idealak gure idealak direla erakusten digu, ondoren azalduko ditugun ereduak frogatzen duten moduan.

Tradizionalki, hala ere, arkitektura, ingeniartzaren eta beste ikasketa teknikoaren moduan, gizonezko lanbideak ziren. Emakumea eskulangintzara, etxeko lanetara edo arazo pribatuetara baztertuta geratzen zen; hau da, barne mundura. Ez zegoen bokazio unibertsitariorik, besteak beste, emakumeek ikasgeletara sartzeari debekatuta zutelako.

1893ko Chicagoko Munduko Erakusketan, zenbait emakume taldeek, lehen aldiz, Pabiloi bat eraiki zuten: Emakumearena. Pabiloi hori Sophia Haydn Massachusetts-eko Teknologia Institutuko lizentziadunak diseinatu zuen. Pabiloi honi buruz kritikak honakoa esan zuten: *“Noizbait leuntasuna eta arintasuna arkitekturan adierazi badira, Haydn Andereñoaren eraikuntzan hauteman genezake”*. Leuntasuna eta arintasuna ez dira, hala eta guztiz ere, arkitekturan normalean erabiltzen diren adjektiboak. Sophya Hayden-en eraikuntza ederra “Beaux Arts” estilo neoklasikoaren barruan kokatzen zen beste bat zen, 93ko Munduko Erakusketako beste pabiloietan nagusi zen estiloa baitzen.

XX. mende hasieran emakume modelo berria azaltzen da mendebaldeko gizartean, orduraino ia gizonezkoentzat mugatuta zeuden kultura eta lanbideetara gehitzen dena. Abangoardien bidai lagunak, eskuzabalak eta gogotsuak, Europan agertu ziren emakume arkitekto aitzindariak, formaziozko hezkuntzetara edo “jakintza guneak” deitu genitzakeen eremuetara heltzeko duten aukerarekin batera.

Adibidez: Eileen Grey irlandarra, Aino Marsio Aalto finlandiarra, Margaret Mc Donald Mackintosh eskoziarra, Allison Smithson ingelesa, Ray Eames iparamerikarra, Lily Reich alemana edota Charlotte Perriand frantziarra. Bere kideekin elkartuta egoteagatik lan egitea eta onarpena lortu zuten: Jean Badovicki, Alvar Aalto, Charles Rennie Mackintosh, Peter Smithson, Charles Eames, Le Corbusier edo Mies Van der Rohe. Beste batzuek, Bauhaus-eko kide ziren Maija Isola eta Marianne Brandt-ek, edo Margaret Kropoholler Staal-ek, Grethe Meyer-ek, Nana Ditzel-ek, Grethe Schutte-Lihotzy-k, Lina Bo Bardi-k edota Matilde Ucelay espainiarrak nork bere kabuz egin zuten lana eta ez dute onarpen berdina lortu.

Espazio falta dela eta, ezingo ditut aipatu garai berezi horretan lan egin zuten emakume arkitekto guztiak, baina batzuei buruz hitz egingo dut, azalpen kronologiko bat jarraitzen saiatuz. Informazio hori lortzea oso zaila da eta, neurri handi batean, Carmen Espegel-ek Eileen Grey buruz egindako Doktore Tesiari esker lortu dugu, baita Aino Marsio Aalto emakume arkitekto finlandiarrari buruzko Tesia idazteko jasotzen ari naizen informazioari esker ere. Tesi honi azpigitulu hau jarri diot: **“Iparaldeko argiaren itzalaren bila”**.

Margaret eta Frances Macdonald ahizpek Eskozian egin zuten lan, XX. mendearen hasieran, Charles Rennie Mackintosh eta Herbert MacNair bere kidearekin. “Lau”-en taldea osatu zuten eta 1900etik 1928ra egin zuen lan, gutxi gorabehera.

Margaret marraztu zituen, beste diseinu askoren artean, bere kideak altzarietan, beirateetan edota burdinsaretan barra-barra erabili zituen loreak. Aino Aalto-k geroago egin zuen moduan, Margaret-ek bere alboan egin zuen lan etengabe eta itzalpean egon zen, garaiko ohiturekin bat etorritz.

Hill House, Arte Eskola edo Te Etxea (denak Glasgow-en) proiektu ezagunenak elkarrekin diseinatu zituzten, eraikuntzaren osotasunetik hasi eta altzari xehetasun txikienera arte: lanparak, aulkiak, mahaiak, oheak, etab., eta, te aretoan, baita mahai-zapiak eta zerbitzarien uniformeak ere. Mackintosh eta Margaret Macdonald-ek barruko gelei proiektu osoen begirunea ematen zieten. Gainera, Margaret arduratzen zen tapizerien estanpatuaz, altzarien tiraderan eskuleku, beirateen kristal edo lanparen formekin ondo ematearren. Diseinu kontzepzio INTEGRALA, bizilagunei bizi oreka, harmonia, baretasun sententzia... barruko bakea emateko gai zena.

Historian aurrera egin dezagun eta joan gaitezen 1900etik 1920-30era, 20ko hamarkada alaira.

Charlotte Perriand gaztea Le Corbusier arkitektoaren estudioan lan eske sartu zenean, 1927an, honek hitzez hitz zera esan zion: *“Zoritxarrez lantegi honetan ez dugu kuxinik bordatzen”*, baina bere hodi kromatuen diseinuak ikustean, iritziz aldatu eta kontratatu egin zuen. 10 urtez, elkarrekin lan eginez, gaur egungo altzarigintzako pieza enblematikoenak sortu zituzten. Horien adibidea da LC4 moduan ezagutzen den *“chaise longue”* famatua. Hau aro arrazionalistaren ikurra da eta oso gutxik dakite Charlotte Perriand-ek sortu eta gizakiaren ikuspuntu integral batetik diseinatu zela, parametro fisiologikoak, funtzionalak, zirkulatorioak edo formalak aldi berean aztertuz. *“Bestalde, denek eros zezaketen altzaria egin nahi genuen, seriean egindakoa eta merkea”*. Denbora joan ahala, bere nahiak ez dira bete eta altzari hauek denda elitistetan saltzen dira, gutxiengo baten eskura dauden prezio garestietan.

Charlotte Perriand Le Corbusier-ekin elkarlanean aritu zen arkitektura proiektu askotan. Hauen artean La Savoya moduko zenbait etxeren ekipamenduak diseinatu zituen; *"cellule minimum"*-en (1929) definizioan egin zuen lan; Marseillako Bizileku Unitatearen lehen sukalde prototipoa diseinatu zuen eta emakumeak sortze lanean duen garrantziari buruzko teoria bat ere landu zuen. Emakumeak mende bukaerako jantzi zurrun, luze eta deserosoetatik janzkera berri, natural eta erosoago batera egindako bilakaerak liluratzeko. *"Bere janzkera goitik behera aldatzeko emakumeek erabili duten bihotza, adorea, sortze asmamena aro modernoaren miraria da"*, zioen Charlotte-k.

Laurogeita hamar urte baino gehiagorekin, oraindik ere, lanean jarraitzen zuen, bere taldearekin, bere Parisko *Rue Las Cases* lantegian.

"E.1027" izenez ezagutzen den *"Maison au bord du mer"* ("Etxea itsasertzean") da **Eileen Gray**-n obra garrantzitsuena. Jean Badovici-arentzat eta bere lankidetzarekin egin zuen, **1926 eta 1929** artean.

E. 1027-a: Etxebizitza informal bat. Bizitzaren barnealdetik bizitzarako diseinatutako etxea, kokatzen den ertza bustitzen dituen itsasoarekin erlazionatzen dena, egunez argira eta ikuspegi ederretara leiho handien bidez irekitzen dena, eta gauz beregan bildu edo haizeengatik antzerkiko taulan tolestaten diren moduko itxitura luzeen bitartez babesa bilatzen duena. Mediterraneoko gehiegizko argietatik, xafla doigarri bertikalen bitartez, babesteko ere gai da. Bere tokiak gela-logela-estudio handi baten inguruan artikulatzen dituen etxebizitza da, arreta eta xehetasun handiz antolatutakoa. Hala badirudi ere, ezer ez da ustekabea utzi.

Etxebizitza ez da handia, baina Eileen-ek espazio handitasuna, argitasuna eta modernitate baikorraren sentazioa sortzeko moldatzen ditu bolumenak. Etxean bizi denaren gorputzaren eta buruaren funtzioak aztertzen ditu, diseinu zorrotzez eta behar guztietara egokitzen den erabilera anitzeko altzari funtzionalen bitartez. Proiektuaren erabaki guztien xedea gizakia da. *"Jendearentzat eraiki behar dugu, arkitekturan alaitasuna eta beraien ahalmenen errealizazio osoa aurki ahal ditzaten"*, idatzi zuen *"L'Architecture Vivante"* aldizkarian, garaiko arkitektura aldizkari garrantzitsuenetarikoa.

Geroko garai batera joko dugu orain: 1924-1949.

Aino Marsio Aalto, 1924an Helsinkin graduatutako emakume arkitekto finlandiarra, Alvar Aalto arkitektoaren kidea izateagatik da ezaguna nagusiki. Aino eta Alvar Aalto. AAA. Hiru A zituen sinadura beraien proiektu guztietan beti agertuko da, Aino hil arte, 1949an. Hala eta guztiz ere, kide zuhurra ez da agertzen testu eta entziklopedia gehienetan.

Gure ustez, Aino-ri ez zaio onartu merezi duen onespena eta ez da behar bezala onartu. Bixia da nola bere irudia isilean gorde eta ahaztu den ikustea, maisu handiari itzala egingo liokeen beldurra balego moduan.

Aino berezko gustua zuen pertsona zen. Ez zuen moda onartzen, bere abangoardia sentsibiltatea erabiltzen zuen, Finlandiako material eta teknika naturalak estimatuz, bai altzarigintzan, bai espazioetan eta gauzetan. Ziurtasun osoz erabiltzen zuen diseinurako ikaragarrizko gaitasuna zuen. Hori nabarmen geratzen da berak bakarka egindako proiektuetan, nahiz eta gehienetan elkarrekin lan egin.

Arkitekto bikote paregabea izan zen eta gogotsuki egin zuten lana, elkarkidetzan 25 urtetan zehar. Bere garai historikorako aurreratuak ziren ez bakarrik bere diseinuetan, baita bere lan egiteko moduan ere. Garaiz kanpoko bikotea osatzen zuten. Hogeita hamar urte bete berri zituztenean, beraien lehen arkitektura enkarguei ekin zieten: Paimio-ko Tuberkulosiaren Aurkako Erietxea, 1929an, Viipuri-ko Liburutegia, 1934ean, edo, 1938an, Parisko Munduko Erakusketarako Pabiloiaren tamainako proiektuak. Altzariak eta objektuak ere diseinatzen dituzte, beren Artek enpresaren bidez seriean fabrikatzen eta banatzen dituztenak, nazioarte mailan ospe handia jasoz.

Elkarrekin egindako arkitektura lanak hiru dimentsioko collagearen zerbaite zuten, zatika egindako konposizioa, konplexutasun nabarmena edo sortze-batasunaren eza, Alvar Aalto-ren obraren ezaugarri propioak, baina baita bi pertsonak egindako obraren ezaugarriak ere. Zentzu horretan, **1937an egindako Villa Mairea** da adierazgarri nagusia. Hor agertzen da gainjartzen diren ideien metaketa, xehetasunez eta iradokizunez beteriko emaitza ederra lortuz.

Villa Mairea basoko argigune batean kokaturiko luxuzko etxebizitza da. Modernitate ideal berdinak zituen lagun bikote batentzako egindako proiektua zen eta gaur egungo arkitektura finlandiarraren ikur bihurtu da. Etxebizitza horretan Aalto-tarrek arkitektura ia espontanea, metatzailea, konplexutasunez beterikoa azaltzen dute, baina, hala eta guztiz ere, bateratua, materialen eta xehetasunen justaposizio delikatuaz diseinatutakoa. Etxe ia hieroglifikoa, Finlandiako tradizio naturistaren eta modernitate abangoardistenaren arteko metafora.

Espainian, **Matilde Ucelay** izan zen lehen emakume arkitektoa. 1936an bere ikasketak burutu zuenetik 65 urte eta zenbait emakume belaunaldi igaro dira.

Guztira 114 proiektu egin ditu 50 urtetik gorako bizitza profesionalean. Aurrekoak ez bezala, ia beti, bakarrik egin du lan, emakumeentzako oso zaila zen momentu batean (Espainiako Gerra Zibilaren gerraostean).

Bere obren argazki oso gutxi ditu eta ez ditu gogoko, ez lehen ezta orain ere, bere proiektuentzako publizitatea, ez berarentzako omenaldirik... Emakumea eraikitze lanetan elkartek omenaldia eskaini zion, II. Arkitektura Topaketetan. Han eskultura bat eman zitzaion, bere lanaren eta Espainiako lehen emakume-arkitektoa izanaren oroigarri.

Arkitektura garaikideko entziklopediek oso gutxitan aipatzen dituzte emakume-arkitekto aitzindariak, lanbidean dabilzanen artean oso ezagunak badira ere, eta halakoak dira aipatu ditugunak. Aipatzen dituztenean, gizonezkoak balira moduan egiten dute edo, salbuespen kasu batzuetan, gizonezko arkitekto garrantzitsuen lagunak direnean.

Keneth Frampton-ek *"Historia Crítica de la Arquitectura Moderna"* liburuan zera idazten du: *"Laborategi motako sukalde ultraeraginkorra, Frankfurt-eko Sukaldea, G. Schutte-Lihotzky arkitektoak diseinatu zuen"*. E. Neuffer irakaslearen *"El arte de proyectar en la arquitectura"* eskuliburuan, mundu osoko arkitekto eta arkitektura ikasleek erabiltzen dutenean modu bertsuan aipatzen da. Gaur egun badakigu G. iniziala **Margarethe Schütte-Lihotzky**-ri dago kiola, austriar emakume-arkitekto bikain horrek bere lanak bere txikigarriaz sinatzen baitzitu, hau da, Grethe.

Grethe-ren lanik garrantzitsuena, 1926an, *Frankfurt am Main* Ernst May-kin egindako auzo baten diseinua izan zen. 10.000 etxebizitza soziala eraikitzea lortu zuten, erabili zituzten estandarrei esker. Horiek eraikuntza osagaien aurrefabrikazioan, etxebizitzaren azalera baliagarria murriztean, biltegitratzeko elementu trinkoen erabileran eta, batez ere, Grethek diseinatu zuen *"Frankfurter Küche"*-n oinarritu ziren. Sukalde minimo estandarizatuaren (6,43 m²) lehen modelo hori oso prezio merkean egin zen eta emakume modernoarentzat pentsatuta zegoen, bere lana erraztu eta bere egoera soziala hobetzearen, etxetik kanpo aktibitatearen bat burutzeko denbora librea baitzuen.

"Frankfurter Küche" horma-sukalde modernoaren lehen bertsioa izan zen, gaur egungo etxebizitzetan, XIX. mendeko sukalde zaharkituak ordezkatu dituena. Bertan zati guztiak ezin hobeki integratzen eta egokitzen dira ahalik eta espazio txikienean, beren funtzioen arabera: biltegitratzea, lana, garbiketa eta lisaketa, edo sukaldaritza.

"Pentsatzen duen edozein emakumek", idatzi zuen Grethe-k, 1926an, *"etxeko metodoek duten atzerapenaren kontzientzia hartu behar du, hauek bere garapena eta, hortaz, bere familiarena, oztopatzen dutela onartuz"*.

Nahiz eta duela gutxiko arkitekturaren historiak oso arreta gutxi eskaini dien eta guk gure ikasketetan beraien izenak entzun ez ditugun arren, emakume arkitekto aitzindarien obrak (hemen adibide txiki batzuk bakarrik azaldu ditugu) kalitate handikoak dira eta

beren idatziek eta idealek interes humanista ikaragarria dute. Ezin da, beraz, ulertu nola bere egileak bigarren maila zuhur batera igaro diren, eta historiak, pixkanaka, dagokien lekuan kokatuko dituela espero dugu.

2.

Bibliografía

- ANDERSON BONNIE S. *"Historia de las Mujeres: Una Historia Propia"*, Editorial Crítica, Bartzelona, 1991 (Bi liburuki).
- BANHAM REYNER, *"Age of the Masters. A personal view of Modern Architecture"*, Architectural Press, Londres, 1962.
- BENÉVOLO LEONARDO, *"Historia de la Arquitectura Moderna"*, Gustavo Gili, Bartzelona, 1974.
- CAPITEL ANTÓN. *"Alvar Aalto. Proyecto y método"*, Akal Arquitectura, Madril, 1999.
- CHADWICK WITHNEY. *"Mujer, Arte y Sociedad"*, Ediciones Destino-Thames & Houdson, Londres 1990.
- ESPEL CARMEN, *"Dos cromosomas X en el Periodo Heroico de la Arquitectura, II Encuentro en la Arquitectura, Consejería de Asuntos Sociales, Comunidad de Madrid, 1999."*
- FRAMPTON KENETH, *"Historia de la Arquitectura Contemporánea"*, Gustavo Gili SA, Bartzelona, 1981.
- GARNER PHILIPPE, *"Eileen Grey, Designer and Architect"*, Benedikt Taschen, 1993.
- GUIDEON SIEGFRIED. *"Espacio, Tiempo y Arquitectura"*, Editorial Dossat, Madril, 1980.
- HATJE GERD. *"Encyclopaedia of Modern Architecture"*; Thames & Hudson, London, 1963.
- LORENZ CLARE, *"Women in Architecture, a Contemporary Perspective"*, Trefoil Public. Ltd, London, 1990.
- LLEO BLANCA. *"Sueño de Habitar"*, Colección Arquitésis, 3. zk. Bartzelona, 1998.
- RUBINO LUCIANO. *"Aino e Alvar Aalto. Tutto il design"*, Edizioni Kappa, Erroma, 1980.
- Stewart Johnson J., *"Eillen Gray, Designer"*, Debrett Peerage Ltd. for The Museum of Modern Art, New York, Londres, 1979.
- RUBINO LUCIANO. *"Le spose del vento"*, Bertani Editore, Erroma, 1980.
- TIEZ JÜRGEN, *"Historia de la Arquitectura del Siglo XX"*, S. Cheong Printing Ltd., Hong Kong, 1999.
- HAINBAT AUTORE, *"Ciudad y Mujer. Actas del Curso: Urbanismo y Mujer. Nuevas Visiones del Espacio Público y Privado"*, Madril, 1995.
- ZABALBEASCOA ANATXU, *"Vidas Construidas. Biografías de Arquitectos"*, G. Gili, Bartzelona, 1998.
- ZEVY BRUNO, *"El lenguaje Moderno de la Arquitectura"*, Editorial Poseidón, Bartzelona, 1978.

GEA21, S.L.

Genero

ikuspegia

sartzea

hirigintza,

etxebizitza,

garraio eta

ingurumen

politiketan

AURKIBIDEA

Lanaren aurkezpena	72
1. Sarrera	74
2. Genero ikuspegiko politikaren helburuak, hiri, lurralde eta ingurumen politketan	76
3. Hirigintzarekin zerikusia duten erakunde politketan genero ikuspegia sartzeko proposamenak	79
3.1. Emakumeei eginiko kontsultak eta parte hartzea	80
3.2. Informazioa eta estatistikak: Administrazioak eginiko inkestetan berdintasunezko irizpideak ezartzea	84
3.3. Hirigintza eta Lurralde Antolakuntza politikak	85
3.4. Arkitektura eta etxebizitza politikak	89
3.5. Ingurumen politikak	91
3.6. Garraio politikak	91
3.7. Metodo berritzaileak	93
3.8. Komunikabideetan hedatzea	95
3.9. Ekintza pilotuak	96
3.10. Prestakuntza ekintzak	98
4. Nazioarteko esperientziak	99
5. Emakunderen lokalean eginiko tailerraren laburpena	119
6. Bibliografia eta erreferentzia dokumentalak	124
Beste erreferentzia dokumental batzuk:	127

Lanaren aurkezpena

Lan honen helburua hirigintza gaietan generoko ikuspegia sartzeko zenbait aukera era esplizituan garatzea da, EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundearen ibilbideak bermatzen duen pentsaeraren eta ekintzaren ildotik. Erakunde hori, hasita dago dagoeneko, generoko ikuspegiarekin erlazionaturiko ekintza ildoak eta proposamenak definitzen, Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren VIII. Arloan zehazturiko ekarpenen bitartez, eta horiek izango lirateke lan honen oinarria.

Lanak hiru informazio maila ditu oinarritzat:

- Gai horri buruzko gaur egungo hausnarketa. Dagoeneko, badaude zenbait testu eta proposamen, eta baita gaiari buruz hausnartzen eta eztabaidatzen ari direnen artean adosturiko zenbait ideia ere. Dokumentu honetan, lana egitean hirigintzan genero ikuspegia sartzeari buruzko egungo artearen egoeraren ondorioak jasotzen dira.
- Europako zenbait herrialdetan garatu diren esperientziak, integrazio bideak hemen hastean, erreferentzia gisa har daitezkeenak. Esperientzia interesgarrienak hautatu dira, baita informazioa normalizatu ere, ulerterrazagoa bihurtzarren.
- Gaian interesa duten euskal administrazioiko teknikarien hausnarketa, hirigintzako eguneroko lanari buruz. Hirugarren informazio iturri hori garrantzizkoa da, testuingurua kokatzeko lagungarria delako, eta hori eskuratzeko Emakunderen lokaletan tailer bat antolatu zen. Han izandako emaitzak lanaren azkeneko atalean jasotzen dira.

Dokumentu honetan hasitako lan ildoak Gea21 enpresako eta *Emakume hirigileak* elkarteko ki-deek 2001ean eta 2002an zenbait euskal administrazioekin eginiko lanekin erlazionatzen da, Emakunderen laguntzapean:

- 2001eko azaroan Herri Administrazioiko Euskal Erakundean (HAEE) eginiko ikastaroa. Ikastaroak genero ikuspegia hirigintza gaietan izan zuen ardatz, eta ondorengo atalak jorratu ziren:
 - Generoko desberdintasunak hirigintza politiketan
 - Ingurumeneko proiektuen eragin soziala
 - Etxebizitza berriz pentsatzea

-
- Euskal Herriko Hirigintza Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena, genero ikuspegitik. Txostena, Gea21 enpresak egin zuen, 2001eko azaroan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailarentzat.
 - Tolosaldea eskualdeko teknikari eta erakunde arduradunentzako mintegia, udal politiketan genero ikuspegia sartzeari buruzkoa. Mintegi hori Tolosan antolatu zuten, 2002ko urtarri-lean, bertan lurralde, hiriko eta ingurunekeo proiektuei buruzko hausnarketa egin zen.
 - *La Ciudad Prohibida* izeneko proiektuan, *Emakume hirigileak* elkartearen lankidetzan izan zuten. Proiektu hori Basauriko Udaleko Emakumearen Arloak egin zuen, 2001eko abenduaren eta 2002ko martxoaren artean.

Lanaz arduratu den *Gea21 (Grupo de Estudios y Alternativas)* enpresako taldea hiru emakume teknikaririk osatzen dute. Hirigintza gaietan esperientzia handikoak dira eta uste feminista sakonak dituzte, baita prestakuntza desberdina ere: Pilar Vegak (Gea21) geografia ikasi zuen; Aurora Justok, soziologia, eta hirigintzako kudeaketan esperientzia ere badu; eta, azkenik, Isabel Velazquezek (Gea21) arkitekturarekin eta proiektuaren hirigintzarekin erlazionaturiko prestakuntza du.

Emakumea lan munduan sartzearekin, aldaketa sozial eta kultural ugari izan dira, azkeneko 30 urtetan. Era berean, gure inguruko hirigintzak bilakaera azkarra izan du, kolektibitatearen eguneroko espazioak aldatu dituena. Askotan, aldaketa horiek bizilagunen beharrak eta nahiak kontuan hartu gabe egin dira, ekoizpen jardueren eskakizunei erantzuna emateko ezarritako irizpide funtzionalistetan oinarritu baitira.

Gaur egun, zenbait faktorek emakumeen eguneroko bizitzaren zailtasunak areagotu egiten dituzte, eta baita beren harremana eguneroko espazioarekin ere. Horien artean ondorengoak daude: emakumeek oraindik duten funtzio bikoiztasuna (laneko eta etxeko eginkizunak), lekualdatzeen ugaritasuna eta aniztasuna, sorospeneko ekipamenduak sarritan erabili beharra, edo gertuko denden gabezia. Hiri espazioaren gaur egungo konfigurazioak lagungarri izan beharrean, aukeren berdintasuna erabat garatzeko oztopoak ezartzen ditu.

Gaur egungo hirigintzari kritika egin zaio esparru guztietatik, hala ere, planeamenduaren praktikak lurraldearen antolamendu banandua eta funtzio bakarrekoa eskaintzen jarraitzen du. Antolakuntza hori iraganeko kontua da, emakume-etxeko andreak etxearen zaindari, eta, gizonak ekoizpen jardueren arduradun zirenen garaikoa. Antolakuntza horren lekualdatze eredu komunikazio bide nagusi handietan oinarritzen da, automobilen zirkulazio ugarirako asmatutakoa.

Autoa oinarritzat duen eredu horrek eragin handia du ingurumenean (energia xahutzea, airearen kutsadura eta poluzio akustikoa, ezbehar kopurua handitzea, hesi efektua, paisaia lerroen etendura, eta abar). Hori dela eta, eredu horrek bizigarritasun maila onargarriak lortzeari oztopoak jartzen dizkio hiri esparru askotan.

Eragin sozialak ere garrantzitsuak dira, bereziki emakumeentzat. Emakumeek motorizazio maila txikiagoa dutenez, etxeko lanekin zein lan ordainduarekin zerikusia duten lekualdatze askori aurre egin behar diete, hainbat neurritan. Gaur egun, dena urrutiago dago, auzoetako dendak desagertu egin dira eta zenbait kilometrotara joan beharra dago, azalera handiko merkataritza gunetan, makroekipamenduetan edo hornikuntzetan erosketak egiteko. Lehen, zerbitzu eta denda horiek guztiak bizitegi eremuen inguruetan zeuden. Erabilera bakarreko (bizitegiak, merkataritzakoak, aisialdikoak...) poligono hirigintza horretan, ordea, emakumeen denbora mugatua laburtu egiten da, emakumeek eguneroko jarduerak egiteko orduak bidaizatzen eman behar baitituzte.

Etxeen osaketak bilakaera esanguratsua izan du azken hamarkadetan, eta demografia dinamika berriek ia desagerrarazi egin dituzte familia zabaleko eredu edo bere jarraipena

den familia nuklearra. Gaur egun, familia nuklearrak gain, familia osatzeko era berriak daude eta eskakizun berriak dituzte: guraso bakarreko familiak edo lagun bakarreko nukleoak. Biztanleria zahartzeak ere bizikidetzako modu berriak sortzen ditu. Egoera berri horrek eragin zuzena izan du bizitegiko eskakizunetan. Hala ere, aldaketa horiek ez dira kontuan hartu, etxebizitzaren eskaintzari dagokionez, ez baita etxebizitzaren antolamenduan edo tipologia aldaketarik egin. Aldaketak egitea izango litzateke logikoena, izaera publikoko etxebizitzetan behintzat. Egoera horrek eragin berezia du emakumeengan, beraiek baitira gehiengoa familia mota berri horiei dagokienez (bananduriko emakumeak, alargunak, emakume edadetuak, eta abar).

Emakumeek sorospeneko lan gehienak (agureak, haurrak, pertsona ezgaituak zaintzea, eta abar) egiten jarraitzen dute, komunitatekoak zein etxeakoak eta, era horretan, gizartearen mantenuari laguntzen diote (ordainik jaso gabe). Lan horregatik jasotzen duten ordainsaria aginte organoetan edo arduraren publikoko postuetan proportzioz azpiko ordezkaria izatea da, eta, ondorioz, ahalmen gutxi izatea erabakiak hartzean parte hartzeko. Gaur egun jasaten dugun hirigintzak ekonomiako taldeen presioak jasaten ditu, lurralde eta hiri eredu definitzeari dagokionez. Hiritarren eskakizunak ordea, batez ere hiritar emakumeenak, ez ditu kontuan hartzen hirigintza eredu horrek.

Bestalde, askotan, emakumeek ez dute talde teknikoaren ulermena izaten, talde horiek, oro har, profil sozial jakin bateko gizonak osatzen baitituzte (aktiboak, ibilgailu pribatuko gidariak, eta abar) eta beren prestakuntza teoria funtzionalistetan oinarritzen delako, espazioa banantzearen eta desberdintzearen aldekoak. Hori dela eta, inkontzienteki, eredu zaharkitu hori behin eta berriro ezartzen dute, lurraldearen edozein lekutan, eta ez dira sentiberegiak izaten gizonen eta emakumeen hiriarri eman diezazkieketen erabilerak kontuan hartzerakoan.

Dokumentu honetan, gizonen eta emakumeen beren inguruari ematen dioten erabilera aztertu nahi dugu, baita erabilera hori nola sartu ezinbesteko adierazle moduan herriak eta hiriak etorkizunean planifikatzean.

EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundea generoko ikuspegiarekin erlazionaturiko ekintza ildoak eta proposamenak definitzen hasita da dagoeneko, *Emakumeentzako Ekintza Politiboko III. Planaren VIII. Arloan* zehazturiko zenbait ekarpenen bitartez, eta horiek izango lirateke lan honen oinarri.

2.

Genero ikuspegiko politikaren helburuak, hiri, lurralde eta ingurumen politiketan

Hirigintza hiritar guztien interesari modu zentzudunean erantzuna emateko gai neutrotzat ulertzeko –hiritar taldeen artean behar desberdinak dauden edo ez planteatu ere egin gabe–, hirigintzaren ikuspegia zabaldu nahi bada, orduan, plangintza prozesuetako ohiko helburuei beste zenbait helburu berri gehitu beharko zaizkie, era inplizituan.

Planteamendu berriek oinarrian izan behar dituzten helburu nagusiak ondorengo gaietan laburbildu daitezke:

- Azterketa banatuak egitea generoka, emakumeen zein teknikari eta agintari zirkuluetan ordezkapen gutxi duten beste taldeen (ezgaituak, langabetuak, zaharrak, etorkinak, mugikortasun murrizturiko pertsonak, eta abar) eguneroko bizitzako beharrak eta arazoak aurkitu ahal izateko.
- Emakumeen beharren ikuspegitik, inguruen bizigarritasuna neurtzeko, sozio-ekonomiako, kulturako eta inguruneke adierazle berriak ezartzea, batetik, sensibilizazio prozesuak martxan jartzeko, eta, bestetik, hirigintza, garraio, etxebizitza eta ingurumen politiketan parte hartzeko metodoak garatzeko.
- Planeanamenduko tresnak birmoldatzea, parte hartzeko eta esku-hartzeko prozesu benetan irekiak eta dinamikoak adieraz ditzaten; eta, hori lortzeko, gaur egun dauden metodoak ikuspegi berrietara egokitzea, dinamika sozial berriak sartu ahal izateko, batez ere, emakumeek gaur egungo munduan dituzten papera eta bizimodu berriak.
- Hiriko parte hartze erakundetan parte hartzen duten gizarte eragileen aukera areagotzea, emakumeen ordezkaritza gehituz, ekintza positiboko mekanismoen bidez.
- Emakumeen parte hartzea sustatzea, erabaki hartzeko prozesuetan eta agintaritzako esparruetan, antolaturiko kolektiboen bitartez, esate baterako, presio taldeak edo emakumezko talde profesionalen taldeak, emakumeen interesak era egokian ordezkatzeko.
- Hiriguneen erabilerako segurtasun ezaren benetako zergatiak aztertzea, baita horrek hirigintza ereduarekin duen erlazioa ere. Era berean, emakumei hiri bizitzaz erabat gozatzeko aukera emango dieten alternatibak proposatzea.

- Laneko, etxeko eta komunitateko eginkizunak bateragarri egiteko lagungarri izango diren hiri ereduak proposatzea, hiriguneak genero berdintasuneranzko bidean lagungarri izan daitezen, eta ez aldaketarako oztopo.

Aipaturiko helburuen ildotik, 1986ko Londresko Plan Orokorraren taldeak berdintasunerako planeamendua definitu zuen lehen aldiz eta hemen hori gogorarazi nahi dugun. Planteamendu berri horren ekarpen nagusiak ondorengo lau puntutan laburbiltzen ziren:

- Biztanleriaren talde guztien benetako beharren ulermenean sakontzea, eta ezagutza horiek lurzorua eta garraioen erabilerak garatzeko erabiltzea, dauden baliabideenganako berdintasunezko irisgarritasuna bermatzeko eta ase gabeko beharrak antzemateko.
- Gizartean dauden baztertze edo tratu desberdin motak ezagutzea, gutxiengoek zein gehien-
goek jasaten dituztenak (emakumeak, etorkinak, gutxitasunak dituzten pertsonak, gutxi-
goko arraza edo etniak, klase sozial batekoa izateagatik bazterkeria jasaten dutenak, ho-
mosexualak, edadetuak, errenta txikiko jendea).
- Gaur egungo hirigintza edo lurralde plangintzako politikak eta ohiturak aztertzea, talde sozial guztien ikuspegitik, nori eragiten dion onura gehien eta nori gutxien edo nor kaltetzen duen jakiteko.
- Hirigintza prozesuetan gutxiago entzuten diren biztanleria sektoreen parte hartze aktiboa eta kontsulta piztea eta sustatzea, beren etorkizuneko beharrak eta ikuspegiak kontuan har daitezen.

Era berean, nahiz eta horrelakorik ez izan, bat gatoz generoko ikuspegietarako hurbilketaren antza duten lau ikuspegirekin:

- Berdintasunerako planeamendua ez da “behar bereziei” erantzuna emateko planeamendua. Hori onartzeak behar horiek desbiderapenak direla adieraziko luke, barne hartzen ez dituen arau baten desbiderapenak: gizonen neurria eginiko hiria –adin ertaineko gizonak, motorizatuak, errenta maila ertainekoak edo altukoak, arraza zurikoak, mugikortasun gaitasun osoa dutenak– hiri naturala dela onartzea litzateke. Emakumeen neurria eginiko hiria, ber-
riz, salbuespena edo amore ematea izango litzateke. Postulatu horren aurka gaude erabat, eta hirian inor ez litzatekeela berezizat edo desberdintzat hartu behar azpimarratu nahi du-

gu. Edozein herritarrek (gizon edo emakume) hiriarekin erlazionaturiko eskubide berak ditu, eskubide osoak eta banakakoak.

- Berdintasunaren aldeko planeamendua ez da “gizonen aurkako” planeamendua, edo emakume soilik egiten duen planteamendua. Berdintasunaren aldeko planeamenduaren onurak herritar guztientzako izango dira onuragarriak, era orekatuan.
- Berdintasunaren aldeko planeamenduaren ardura ez da soilik emakumeena, eta, era berean, planeamendu sozialki koherentearen ardura ez da soilik edadetuena edo etorkinena. Emakumeen ahotsak eta pertzepzioak gehitzea prozesuarentzat funtsezkoa izan arren, berdintasunaren aldeko sentsibilizazioaren eta diseinuaren ardura teknikari eta politikari guztiena da, ez bakarrik emakumeena edo erasaten dituen taldeena.
- Berdintasunaren aldeko planeamendua ez da legeen mugatik at kokatu behar: konstituzio printzipio onartuenetan oinarritzen da, eta badaude gizarte berdinago baterantz aurrera egiteko zenbait esparru eta estatutu oinarri.
- Azkenik, hirigintza planteatzeko era berri horrek ez dio trabarik egiten sorrera lanari, eraberritzerako eta berritzerako aukera izan beharko luke, herritar sektore guztientzat emaitzak emango dituena.

3.

Hirigintzarekin zerikusia duten erakunde politketan genero ikuspegia sartzeko proposamenak

Hasiera batean, espazioaren erabilerari buruzko gaiez jabetzea denborarekin erlazionaturikoetaz jabetzea baino zailagoa den arren, gai honi buruz eginiko beste zenbait lanetan (Iruñea 97, Iruñea 98, Lorca 2000, Aviles 2000) izandako esperientzia medio, emakumeek –espazioa gure eguneroko bizitzan elkarreragin txikiko eszenategi aldagaitz moduan adierazten duen lehen aztarna atzematen denean– beren eguneroko espazioaren planeamendu, ekipamendu eta diseinu arazoetan interes handia dutela esan genezake, huts egiteko beldur izan gabe. Hiririari buruzko parte hartze tailerretan izandakoen inplikazioa oso gogotsua izan da, eta emakume taldeek eginiko ekarpenak oso zentzuzkoak izan dira: edozein hirigile aurreratu izenpetuko lituzke horietako gehienak.

Atal honetan hirigintzaren praktikan emakumeen ikuspegia sartzea ahalbidetzeko proposamenak edo iradokizunak azaltzen saiatuko gara. Horretarako hiru ekarpen mota izango ditugu abiapuntu moduan:

- aurretik eginiko esperientzietan sorturikoak. Horiek ohitura oneko taulan bildu nahi izan ditugu eta dokumentu honen 4. kapituluan laburbiltzen dira.
- 2000ko martxoaren 14an Emakunde erakundearen lokaletan ospaturiko tailerrean izandako ekarpenekin zerikusia duten proposamenak. Horiek 5. kapituluan aipatzen dira.
- taldean garatu ditugun zenbait ideia. Horiek berresteko esperientzia ezagunik ez egon arren, interesgarriak iruditu zaizkigu Emakunderi proposatzeko, berrikuntza bide moduan.

Emakume herritarrentzat hiria bizileku egokiago bihurtzeko aurrerapausoak ematea da hemen biltzen diren ekimen guztien helburua. Ekimen horien biltze soila lehen pausoa da. Horren bidez hirigileei eta arduradun politikoei ikusarazi nahi diegu generoko ikuspegiari heltzea ez dela horren zaila, nahiz eta hori lehen aldiz adierazten denean, hain kontu berria iruditu.

Horien arteko zenbait proposamen edo iradokizun, toki edo eskualdeko administrazio baten sail guztientzat, zeharkako gaiak izango lirateke, esate baterako: emakumeei eginiko kontsultekin eta parte hartzearekin erlazionaturikoak; edo baita estatistiken idazketarekin eta informazioaren kudeaketarekin zerikusia dutenak ere. Bestalde, emakumeentzako interesgarri di-

ren beste zenbait gai –mugikortasunarekin, etxebizitzarekin, menpeko pertsonen zainketarekin, lan edo aisialdiarekin zerikusia duten gaiak– horiekin jarduten diren sailen arduetara edo lan zehatzetara lotuko lirateke.

3.1

EMAKUMEEI EGINIKO KONTSULTAK ETA PARTE HARTZEA

Emakumeak, nahiz eta biztanleriaren gehiengoa izan, teknikari taldetan gutxiengo egoeran egon ohi dira, batez ere, erabakiak hartzen diren mailetan. Bestalde, beren ordezkaritza ohi-ko parte hartze prozesuetan ez da paritarioa izaten. Planeamenduan parte hartzea legez arauturiko egintza da, baina iritzien, iradokizunen eta alegazioen bilketa prozesua ohikoa eta benetan eskasa izaten da kasu gehienetan.

Emakumeen ahotsak ez dira entzuten; beren ikuspegiak ez dira behar bezainbesteko ikuspenaz adierazten; beren eskariak edo beharrek eragin txikia izaten dute tokiko hirigintza, etxebizitza edo garraio planetan.

Kontsulta horiek eragingarri bihurtzeko, metodo egokiak erabili behar dira, baita behar adina langile eta baliabide ere, beste edozein proiektu teknikotan egiten den moduan. Antolakuntza eskaseko parte hartze ekintzek –edo uste osorik gabe antolaturikoek– izandako erantzuna, sarritan emakume interes falta moduan ulertzen da, hori horrela ez bada ere.

Edozein planek, bere garapen fase guztietan, parte hartze eta kontsulta prozesu paraleloa izan behar du, modu egokian programaturikoa eta antolaturikoa. Kontsulta prozesu horretan, ahalegin berezia egin behar da, bertan ordezkaritza gutxien duten taldeek parte hartzen: kasu horretan, emakumezkoen zenbait talde. Planaren fase guztietan izan behar da parte hartze prozesu paraleloa:

- egin beharreko planaren edo programaren helburuak eta diseinua,
- hasierako egoeraren eta arazo nagusien diagnostia,
- plana idazteko oinarriak;
- estrategia eta ekintza plana;
- kontrola eta ebaluazioa, edo jarraipenaren adierazleak, eta
- lan programa.

Eskuarki kontsultatzen diren erakundeek (esate baterako, auzo elkarteak) erakundearen baitan emakume kopuru handia izaten dute, baina, oro har, erakunde horietako gizonezkoengana jozten da ordezkari-tza kontuetarako. Erabaki nabarmeneko ekintzak behar izaten dute emakumeen ordezkari-tza ugaria lortzeko elkarte foroetan eta GKEetan. Arreta bera behar da zenbait talde kontuan hartzeko ere: edadetuak, haur txiki-en amen moduko talde bereziak, emakume edadetuak, emakume etorkinak... Emakume horietako askok ez dute, beren familia bizitzaren zenbait aro zehatzetan, denborarik –ezta ohiturarik ere– komunitate arazoetan parte hartzeko edo elkartzeko.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren antolakuntzaren egiturak eskumenak ezartzen ditu Hirigintza, Lurralde Antolamendu, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Sailetan, eta komenigarria dirudi, horietan, egungo parte hartze mekanismoak sendotzea, berriz pentsatu edo sendotu beharko bailirateke, aukeren berdintasunaren helburua funtsezkotzat hartzen duen ikuspegitik.

Beharrezkoa da herritarrek kontrolatuko dituzten ekimen esparruak sortzea (bai emakumezkoek eta baita gizonezkoek ere), baita herritartasun aktiboko eskola funtzioa beteko laketan erabakitze maila ertainak ere, edota guztien interesak eta beharrak kontuan hartzen dituzten foroak.

3.1.1

AURRERA ERAMAN BEHARREKO EKINTZAK:

- Parte hartze plan bat diseinatzea plan edo egitasmo publiko bakoitzarentzat, hasieran eta proiektuaren fase bakoitzean parte hartze ekintza paraleloekin.
- Kontsultetan edo parte hartzeko beste egintzetan dagoeneko dauden talde edo sare guztiak sartzea, tokiko emakumeekin harremanetan jartzeko. Besteak beste, etxeko andreen elkarteak, alderdi politikoetako edo sindikatu-etako emakumeak, auzo elkarteko emakume taldeak, baina baita emakumez gehienbat osturiko elkarte profesionalak, AMPAk, emakumeen aldi baterako edo profesionalen taldeak.
- Emakumeak elkartzen diren lekuetara joatea, elkartetan ez dauden emakumeei buruzko informazioa lortzeko: parkeak, bilguneak, eliza...
- Parte hartzeko ekintzak antolatzean, haur txiki-entzat haurtzaindegiko zerbitzuak aurreikustea, emakumeek joateko aukera izango duten orduetan. Kasu horretan, merkataritza guneetatik ikasi beharko litzateke. Bertan, laguntza zerbitzu erosoak eta atseginak aurreikusten dituzte eta, horiei esker, emakumeak beren etengabeko eginkizunetatik libre geratzen dira eta beste gaietan arreta jartzeko aukera dute.

- Proposamen teknikoko aurkezpen dokumentuetan azaltzen den hizkuntza prestakuntza tekniko gabeko jendearentzat ulergarria eta ulerterraza dela egiaztatzea, baita, bereziki, begirunezkoa genero kontuetan ere, emakumeek kontuan hartzen dituztela eta interpelatuak direla antzeman dezaten.
- Emakumeentzat lehentasuna duten gaiak planeamenduaren helburuetan eta ekintza ildo nagusietan sartzeari.

3.1.2

ZENBAIT ESPERIENTZIA:

- Emakumeei informazio orriak bereziki bidaltzen zaizkienean, emaitza onak lortzen dira –interes bereziko gaiak azpimarratuz, esaterako: segurtasuna, garraio publikoa, alderdi sozialak edo ekipamenduak–.
- Planeamendua azaltzeko emakumeentzat bakarrik antolaturiko egintza bereziek harrera ona izaten dute eta jende ugaria biltzen dute (ikusirik Iruñeko eta Lorca-ko kasuak).
- Gai zehatzei buruzko ikuskaritzak emakumeen eskarien ikuspegitik (adibidez, estazio sarea, parkeak eta berdeguneak, merkataritza gunek, eta abar).
- Bilera informal anitzak, ahalik eta irudimen gehienarekin antolaturikoak: “Tupperware” bileren estilokoak, eguneroko erakartzen duten gunetan eginiko erakusketak, auzoaren maketei buruzko eztabaidak...

Adibideak:

“Iruñea emakumeen ikuspegitik: Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorren Aurrerapenari buruzko eztabaida tailerra”. Emakume hirigileen elkarteak Iruñeko Udaleko Emakume eta Hirigintza Zinegotzigoentzat antolaturiko EASW tailerra (*European Awareness Scenario Workshop*). 1997.

“Emakumeek Plana jarraitzen dugu: berdintasunezko eta bizi kalitatezko adierazleak zehazteko tailerra, Iruñeko hirian Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorren duen eragina ebaluatzeko”. Emakume hirigileen elkarteak Iruñeko Udaleko Emakume eta Hirigintza Zinegotzigoentzat antolaturiko EASW tailerra (*European Awareness Scenario Workshop*). 1998.

Lorca 2000. Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorren idazte prozesuari emakumeen ikuspegitik ekarpenak egiteko EASW tailerra(*European Awareness Scenario Workshop*).

Hiriko eta bertako auzo elkarteetako emakumeek, emakume politikariekin eta emakume pro-

fesionalekin batera, hiriak epe motzera aurre egin beharko dien arazoei buruz eztabaidatu zuten, eta baita arazo horiek eraginkortasunez hobe ditzaketen proposamenei buruz ere: garraioari, bide sarearen diseinuari edo ekipamenduei buruzko proposamenak biltzen dira Hirigintzako zinegotzigoari bidali zaion dokumentuan. 2000.

Udal planeamendua emakumeen parte hartzearekin: Norvegiako 6 hiritan eginiko esperientzia.

1978ko Berdintasunerako Legeak martxan jarritako Emakumearen Berdintasunerako programa baten barruan, Ingurumeneko Ministerioak (hiri planeamenduaren arduraduna) zuzenduriko ministerioen arteko talde batek proiektu bat sustatu zuen, Norvegiako 6 hiritan beren udal planeamenduaren definizioan emakumeei nagusitasuna emateko. 3 urteko prozesu horrek 8 milioi koroi norvegiarren finantzaketa izan zuen, eta horietatik %30 hiri bakoitzean proiektu buruaren irudia finantzatzeko erabili zuten. Lanean zenbait taldek hartu zuten parte, besteak beste, oinarriko erakundeek, antolatu gabeko emakumeek, politikariek, administrazioko arduradunek eta teknikari hirigileek. 6 udalek parte hartzeko prozesu sakona jarri behar zuten martxan, planeamenduaren prozesuan emakumeen iritziak kontuan hartuko zirela bermatzeko.

Ikuspegi horrekin eginiko planeamenduaren emaitzak honako hauek izan ziren:

- Emakumeek hiri bizitzari buruzko ikuspegi holistikoagoa dute eta ikuspegi hori erabiltzen dute diagnosiak eta proposamenak egitean.
- Kaleak, hiri egituraren ekipamenduak... asmatzean, haurren eta agureen zainketarekin erlazionaturiko gaiak izaten dute beti lehentasuna.
- Ingurumenak, osasunak eta ekologiak lehentasunezko papera dute beren etorkizun senetan.
- Mundu guztiaren eguneroko bizitza oso garrantzizkotzat jotzen dute beren hausnarketetan.
- Gizartearen talde gutxietsien beharrekin solidarioak eta begirunetsuak dira.
- Ideia berriak ematen dituzte, oso sormen handiz.

3.1.3

BESTE OHARRAK:

Ez da nahikoa emakumeengan pentsatzea planifikatzeko orduan, beraiei zuzenean kontsulta egiten saiatu behar da. Emakunde erakundeak antolaturiko tailerreko partaide batek ondorioztatu zuen sen oneko ideia hori, Bilboko Metro berriari buruz mintzatzean. Bere esanetan, haur aulkixtoentzako gune bat aurreikusi zuten, bagoiaren izkina batean, baina aitek eta amek erabiliko ez lituzketenak, zokoratuta gelditzen direlako eta handik irtetea ez delako erraza.

3.2

INFORMAZIOA ETA ESTATISTIKAK: ADMINISTRAZIOAK EGINIKO INKESTETAN BERDINTASUNEZKO IRIZPIDEAK EZARTzea

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailek, eta baita Garraio eta Herri Laneko Sailek ere, beren lana eta programaketak hirigintzako informazioaren azterketan oinarritzen dituzte, baita zenbait iturritatik lorturiko datuetan ere, besteak beste: estatistikak, azterketak, inkestak, errol-dak edo datu base orokorrak zein zehatzak.

Errealitateari buruzko ikuspegia aldatu nahi bada, lurraldea eta hiria bizitzeko oso esplizituak ez diren moduak gehituz, beharrezkoa da aldez aurretik generoka banaturiko datuak aztertzea, hiria bizitzeko moduak bereizteko, eta berdintasunaren aurka doazen familia edo gizarte estereotipoak saihesteko. Aitzitik, erroldetatik eta inkestetatik zenbait kontzeptu desagerrarazi beharko lirateke, esate baterako familia buruari dagozkionak. Zenbait aldagarri berri adierazteko aukera eman beharko litzateke: ohiko elkarbizitza motez haratagokoak islatzea, ordainketarik gabeko lana kontuan hartzea, edota zainketa eta borondatezko lana erroldetako jardueren artean sartzea.

3.2.1

EGIN LITEZKEEN EKINTZAK:

- Zenbait iturritan emakumei buruz dagoen informazio berezi guztia biltzea, beren arazoan neurria adierazteko.
- Informazio ofizialetan emakume gaiei buruz dauden hutsuneak identifikatzea, baita hutsune horiek nola bete ikertzea ere.
- Etorkizunerako, edozein estatistikatan, inkestatan edo datu bilketatan informatzailearen generoari buruzko informazioa sartzen saiatzea. Inkesta edo datu base berrien zirriborroak eskatzea, horiek aldez aurretik aztertzeke, genero ikuspegia kontuan hartuta.
- Estatistika edo inkesta azterketa guztietan genero ikuspegia sartzen ahalegintzea.
- Emakumeen eskariekin erlazionaturiko gaiei buruzko inkesta zehatzak enkargatzea.
- Zenbait talderi buruz informazioa lortzen saiatzea, esate baterako, emakume ijitoak edo emakume etorkinak –erakundeetan talde horiei buruz informazio argi gehiegirik ez baita go–, beren iritzien bitarteko moduan gizonik izan gabe.
- Edozein inkestaren edo ikerketaren zirriborroa ordezkari gutxien duten taldeen ordezkariekin kontsultatzea: elbarritasunen bat duten emakumeak, etorkinak...

- Informazio kuantitatiboko tresna objektiboak erabiltzeaz gain (inkestak esaterako), beste tresna kualitatiboak ere erabiltzea, adibidez bizi profilak edo eztabaida taldeak, beste bidez azalarazteko erabilgarriak izan baitaitezke.
- Eguneroko bizitzako gaiei buruzko galderak sartzeari galdesorta guztietan, horiek emakumeen arduraren oinarria izan ohi dira eta.

3.2.2

ZENBAIT ESPERIENTZIA:

- **Greater London Council-eko (GLC) Emakumearen Batzordeak** emakumeen garraio beharrei buruzko informazioaren gabezia sumatu zuen Garraio Sailaren datuetan eta, horregatik, GLC-ari gai horri buruzko inkesta egitea eskatu zion, 1982an. GLC-ak hori egiteko agindua eman zuen. Inkestaren ikuspegia eta galderak zenbait emakume talderekin izandako taldekako eztabaidetan ateratako ondorioetan oinarritu ziren. Besteak beste, talde horien artean honako pertsona hauek zeuden: 60 urtetik gorako emakumeak, emakume afro-karibetarrak, asiarrak, senargabekoak, haur txikiak zituzten emakumeak, elbarritasunen bat zuten emakumeak, emakume motorizatuak eta autorik gabeko emakumeak. Inkesta egiteko 905 emakumeko lagina erabili zen eta, horiekin, ordubetik inguruko elkarrizketa egin zen.

3.3

HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAKUNTZA POLITIKAK

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legearen (4/1990 Legea, maiatzaren 31koa) zioen adierazpenetan, besteak beste, honako hau adierazten da:

“Lurralde Antolakuntzarako politikaren bidez lur mota bakoitzaren eretzean erabilpen onargarri eta bultzagarriak zehaztea lortu behar da lehenik eta behin, eta zehazketa horren bidez, beharrezko azpiegiturak lortzea, herritarrei osasun, irakaskuntza eta merkatal antolamendu ezberdinetarako zein beste zenbaitetarako bideak zabaltzea, berezko baliabideak arduraz kudeatzea eta ingurumena zaintzea.

Lurralde Antolakuntzarako politikaren azken helburuak, aurrez zehaztutako jardunek horietara jo beharko baitute, ez dira honako hauek baino, hots, eskualdeen garapen sozioekonomiko orekatua eta bizi kalitatearen hobekuntza, biztanle sail ezberdinen artean dauden alde handiak horrela deuseztatuz”.

Baldin eta Lurralde Antolakuntzaren Politikaren azken helburuak honakoak badira *“eskualde- en garapen sozioekonomiko orekatua eta bizi kalitatearen hobekuntza, biztanle sail ezberdi- nen artean dauden alde handiak horrela deuseztatuz”*, orduan beharrezkoa izango da –do- kumentu horretan zehar eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren VIII. Arloko atalean adieraziriko arrazoiengatik, hau da, *“Aukeren berdintasuna- ren eta garapen jasangarriaren aldeko lurralde eta hirigintza antolakuntza”* izeneko atala- planean garatzen diren helburuak eta ekintzak planeamendu tresnetan sartzea, Euskal Herri- ko planeamendua egiteko erabiliko diren tresnetan hain zuzen.

Alde horretatik, Lurralde Antolakuntzako tresna guztien Memoretan (Lurralde Antolakun- tzako Jarraibideak, Lurraldeko Zati Planak, Lurraldeko Zati Sektorialak, Plan Orokorrak eta Planeamendu Arau Osagarriak eta Subsidiarioak) ondorengo helburuak hartu beharko dira kontuan:

- Euskal Herriko herrien eta hirien diseinuak, antolakuntzak eta funtzionamenduak emaku- meen eta gizonen bizi kalitatea hobetzearen alde egin dezaten sustatzea, gizon-emaku- meen eguneroko baldintzetara, egoeretara eta beharretara egokituz.
- Mugikortasun sistemen planifikazioa emakumeen zein gizonen beharretara moldatzea, bereziki garraio publikoaren antolakuntzarekin eta funtzionamenduarekin erlazioatu- riko planifikazioa.
- Elkarbizitza unitate mota guztietako pertsonen beharretara egokituriko etxebizitza politika garatzea.
- Genero ikuspegia sartzea ingurumen politikak diseinatzean, garatzean eta betetzean.

Genero ikuspegia sartu beharko da, era berean, lurraldearen azterketa zehaztean eta beha- rren zenbaketan, emakumeen eta gizonen baldintzak, egoerak, eta beharrak ebaluatzeko:

- Emakumeen zein gizonen beharrak aztertzea, herrietako eta hirietako espazioaren eta den- boraren erabilerari dagokionez.
- Herrietako eta hirietako diseinuak eta funtzionamenduak emakumeengan eta gizonengan duten eragin bereizgarria aztertzea (garraio publikoko zerbitzuen funtzionamendua, hur- bileko ekipamenduak, hiri segurtasunarekin erlazioaturiko alderdiak, eta abar).
- Elkarbizitzako unitate guztien beharrak kontuan hartzea, etxebizitzako beharrak aztertzean.
- Genero ikuspegia sartzea mugikortasunaren ikerketan.

- Garapen eta ingurumeneko politikak emakumeen zein gizonen bizi baldintzetan duten eragin bereizgarria aztertzea.

Horretarako, emakumeek hiriari buruz duten ikuspegi espezifikoak sartuko da, parte hartzeko teknikak erabiliz, aurreko kapituluak adierazi den moduan.

Aurreko azterketatik ateratako proposamenak Ordenamendu Proposamenetan jaso behar dira. Ondorio zehatzenak, arau gisa, Lurzoruaren Erabilerako eta Eraikuntzako Arau Orokorretan eta lurzoru mota bakoitzaren Ordenantza Partikularretan sartuko dira.

Bestetik, Hiriko Emakumearen Gutun Europarrean jasotzen denez, beharrezkoa da emakumeek Administrazioako organo erabakitzaileetan duten parte hartzea gehitzea:

“Lurraldearen antolamenduari, hiri espazioari, etxebizitzari, garraioari eta ingurumenari dagokienez, emakumeek erabakitze maila guztietan hartu behar dute parte”.

Aipaturiko arlo horietan talde erabakitzaileetan emakumeek parte hartze txikiagoa dute beste zenbait gaiekin zerikusia dutenetan baino. Beraz, hiriari eta lurralde antolamenduari gizonen ikuspegitik heldu zaio erabat eta, nahiz eta objektibo izateko gogoia egon, oro har emakume gehienek eguneroko beharrak ez dira kontuan hartzen behar den neurrian, eta horiek beharrezkoak dira gizartearen funtzionamendurako. Beraz, lehentasuna izan beharko lukete politika ohituretan.

Emakumeek parte hartu behar dute bizitzaren esparrua zehazten duten alderdietan, eta hitza izan behar dute eztabaidetan, erabakitze teknikoko zein politikoko zentroetan, administrazioaren maila guztietan.

3.3.1

EGIN BEHARREKO EKINTZAK:

- Emakume profesionalen parte hartzea sustatzea obretan zein proiektu lehiaketetan, eta esleipen baldintzetan era esplizituan adieraztea lehiaketa aukera berdintasunerako printzipioekin bat datorrela (Erresuma Batuko eta Europako Batasunaren esleitze sistemetan ohiko den moduan).
- Erakunde publikoen maila bakoitzean ardura postuetara heltzen diren emakume profesionalen kopurua kontrolatzea, estatistikaren bitartez, eta baita horren berri ematea ere.

- Emakumeek administrazioko sail edo atal bakoitzean duten gutxiegiako edo gehiegiako ordezkariak aldizka neurtzea, joerak ebaluatzearen.
- Hiri eremu berrietan garatu beharreko hiri modeloak definitzea oso elementu garrantzitsua da. Gaur egun emakumeen gain dauden ataza guztiak betetzea errazago bihurtzen duen hiri modelo hiri konpaktua da, espazio berean erabilera askotarako aukera ematen duena, baita lekualdatzeak oinez edo garraio publikoaren bitartez egiteko aukera ere, lekualdatze horietan denbora eta energia aurreztuz. Alemaniako hirigintzan “distantzia motzeko hiri” izena eman diote modelo horri eta hurbiltasuneko ereduetan oinarritzen da. Espazio konfigurazio horrek auzo harremanak sustatuko ditu eta segurtasun irudipena sendotuko du, hartu-eman sareen sorrera eta auzo elkartasuna sustatzen dituelako eta giza isolamenduko arazoak saihesten dituelako. Kontua ez da tipologia bakarra aukeratzea, baizik eta garapen mistoa eta anitza sustatzea, beste parametroekin baino herritarren –gizon edo emakume– beharrekin zerkusia handiagoa duena.
- Alderdi horiek emakumeek parte hartzen duten ia hirigintza proposamen guztietan agertzen dira, eta Eusko Jaurlaritzako teknikariek berriro bermatu zituzten Emakunde erakundeak ikerketa honi buruz eginiko emanaldian. Hiri konpaktua, bizia, eskala txikiko denda eta ekipamenduak dituen, behar adina berdeguneekin, eta zuhaitzekin. Hori da oro har sortzen den irudia, emakumeentzako hiri berdina goari eta bizitza errazagokoari buruz hausnarketa egiten denean.
- Kartografia egitea: kartografiari buruz hitz egitean, ez da ahaztu behar mapen jatorri militar-estrategikoa. Irudipen horiek (mapak) helburu zehatz bat lortzeko egiten dira eta beren irizpideak dituzte garrantzizkoa edo baliozkoa dena aukeratzean. Kartografian eguneroko bizitzarako garrantzia duten gauzak azpimarratu beharko lirateke, esaterako: ekipamendu sistema, ekipamenduen irisgarritasuna zein beren arteko loturak, garraio publikoko sistema eta hiriguneen sarea.
- Lurralde Antolamenduaz arduratzen den erakundeak lurralde antolamenduari eta hiri antolamenduari dagozkien proiektu arau-emaileak egin beharko ditu, eta hori izango da bere funtzio nagusietako bat. Alde horretatik, arau zehatzak sar litezke planeamendurako tresnen barnean (Plan Orokorrak, Zati Planak, Udal Ordenantzak, Hirigintza Ordenantzak, eta abar), emakumeen egunerokotasuna hobetzeko, eta baita beste kolektiboena ere (hala nola, haurrena eta adinekoena, gaur egun, emakumeenganako mendekotasun handia baitute). Arau horiek, adibidez, segurtasuna edo ibilgailu gabeko

irisgarritasuna planeamenduaren funtsezko elementutzat hartu ditzakete. Edo zerbitzuekiko eta ekipamenduekiko zein parkeekiko eta lorategiekiko hurbiltasunari eta irisgarritasunari buruzko alderdiak sartzeari, hiri diseinuan lortu beharreko helburu gisa. Eta, nola ez, emakumeen aldarrikapenak eta ekarpenak kontuan hartzen dituen parte hartze zabala bermatzea, eta baita historikoki ordezkari txiki duten beste zenbait taldeena ere.

3.4 ARKITEKTURA ETA ETXEBIZITZA POLITIKAK

Etxebizitza sozialeko zuzeneko zein itundutako sustapenetan, administrazioak du plangintza, programazioa, kudeaketa eta kontrola burutzeko eskumena. Hori dela eta, emakumeen beharrik kontuan hartu beharko lirateke, etxebizitzaren erabilera berdintasunezko parametroetara egokitzeko. Horretarako oso egokia izango litzateke proiektu arau egileak sartzeari, baita etxebizitzaren antolamenduko, irisgarritasuneko eta diseinuko banaketa estandarrik ere. (Hori da sustapen berezien kasua, horietako zenbaitetan egin baitira tratu txarrak jasandako emakumeentzako etxebizitzak).

Etxebizitza moten diseinuari dagokionez, aniztasuna eta malgutasuna da emakumeek beren eztabaida esparrutan gehien eskatzen duten ezaugarrietako bat.

Etxebizitzarako sarbideetako eta komunitate eremuetako segurtasunarekin erlazionaturiko gaiak –Metraic gidaliburuan laburtzen direnak kontuan hartuta– etxebizitza sozialeko protokoloetan, bederen, sartu egin beharko lirateke: ikuspena, ikusia izateko aukera, behar adinako argiztapena, eta abar. Hartu daitekeen neurrietako bat sustapen pribatuko etxebizitzak saritzea edo era positiboan ebaluatzea da, baldin eta beren emaitzetan bizigarritasuneko estandar horiek sartzen badituzte.

Haurrentzako tresna ugarietako (aulkitxo, haurren aulkiak, bizikletak, eta abarrentzako) lekuak izatea eremu komunetan asko eskatzen den beste ezaugarria da. Are gehiago ere esan dezakegu: etxeko konponketak edo bidalketak jasotzea errazteko irtenbideak ikertzen ari dira Europa erdialdeko eta Amerikako zenbait herrialdetan. Emakumeek arrazoi horiengatik lan egunak askotan galtzen dituzte eta irtenbide horiek auzo berriko biztanleen bizitza erraztea izango lukete helburu. Merkataritza elektronikoak aukera interesgarriak eskaintzen ditu, baina horretarako zenbait irtenbide martxan jarri beharko dira; esate baterako bidalketak jasotzea errazteko, adibidez, banaketa ordutegiak eta lan ordutegiak bateragarri eginez.

Emakundek antolaturiko tailerrean jorraturiko beste gai bat garajeen eta etxebizitzaren arteko erlazioa izan zen. Etxeko sarbideetan –eremu komunetan zehar– segurtasuna eta erosotasuna izatea da emakumeek etxe espazioari buruz eginiko hausnarketa guztietan gehien azaltzen duten eskaria.

Administrazio esparru horren barruan garatzen diren funtzioetako bat etxebizitza publikoko poligonoak diseinatzea eta urbanizatzea da. Alde horretatik, lurzoru berriak antolatzean eta horien plangintza egitean, parte hartze zabaleko ikuspegia kontuan hartu beharko litzateke, obrak egin baino lehen eta etxebizitza mota horren eskaria kontuan hartu eta gero.

Etxebizitza arauak emakumeen beharrak zaindu behar dituzte, honako hauetan: etxebizitzarako sarbidea izatea, bizitegiko eraikuntzen barruko segurtasuna, erabilera komunak eranstea eta bertakoen segurtasuna zein eraikinaren ingurumen kalitatea bermatuko dituzten eraikuntza materialak erabiltzea.

Etxeak zaharberritzeari dagokionez, beharrezkoa litzateke eraikinen egoera ikertzea eta beren arazoak kontrolatzea, generoko adierazleak erabiliz. Alde horretatik, kontuan hartuko lirateke etxe zaharretan bizi diren emakume edadetuak, etxebizitzaren bizigarritasun maila, etxebizitzaren edukitze erregimena, eta abar.

Etxebizitza administrazioaren ardurak da, modu berean, hirigintzari, zaharberritzeari eta eraikuntzaren kalitateari buruzko arauak egitea eta idaztea. Beraz, zenbait arau proiektu zehatz garatu beharko litzateke, etxebizitzetako irisgarritasuna eta funtzionamendua hobetzeko, emakumeen eguneroko bizitza funtzionamenduaren esparruan (erosketetako organo zein haur aukientzako sarbideak, segurtasun neurriak ezkaratzetan, eta abar).

Eraikuntzaren eta etxebizitzaren sailkako Estatistika Plana idaztean, estatistika iturriak osatzen dituzten parametroak (tipologia, antzintasuna, kokapena, biztanleen jatorria, eta abar) genero ikuspegitik bereiztea kontuan hartu beharko litzateke, hau da, generoak izan behar du errealitatea deskribatzeko aukera emango duen funtsezko parametroa: nor bizi den etxebizitzetan, jabeak nor diren, etxebizitzaren edukitze erregimena, zer-nolako baldintzetan bizi diren biztanleak, eta abar.

Bestalde, garrantzitsua da emakumeek zenbait informazioetarako sarbidea edukitzea, esate baterako fondo publikoen kudeaketa, erabakiak hartzeari buruzko informazioa, aurrekontuetan jende guztiaren beharrei eta nahiei zein aukera alternatiboei emandako arreta.

3.5

INGURUMEN POLITIKAK

Ingurumen politikak aipatzean, hondakinei buruzko politikak azpimarratu behar dira, batez ere plangintzari eta egiteari dagozkien alderdiak. Horretarako, herritarrak kontzientziatzeko kanpainen bidez, ahaleginak egin beharko dira etxeko zaborren bilketa, berrerabilpen eta birziklapen politikak –etxebizitzarekin eta etxeko lanekin lotura zuzena duen ekintza hori baita ingurumenarekin erlazionaturik eta gehien hedaturik dagoen ekintza– emakumeen ardurapean soilik (hori ari da egiaztatzen egun). Eginkizun hori denen –gizon zein emakumeen– lana dela azaldu behar da, erantzukizun maila berarekin. Proposamen hori herritarren ahalegina eta parte hartzea eskatzen duen edozein ingurumeneko politikatarara zabal daiteke.

3.6

GARRAIO POLITIKAK

Irisgarritasuna funtsezko elementua da hiriko bizitza errazteko. Proposatzen den irisgarritasuna ibilgailu pribatuan oinarritzen bada, emakumeen gehiengoarekiko diskriminazio negatiboa nabarmena izango da: emakume askok ez du autorik, edo ezin dute etxeko autoa egunero erabili, senarrak erabiltzen duelako. Beraz, garraio publikoaren mende daude, baldin eta hurbileko zerbitzuak ez badaude edo horietara oinez heltzeko kaleetan behar adina segurtasunik ez badago.

Oro har, hirian zehar mugitzeko ereduak oso bestelakoak dira gizonentzat eta emakumeentzat. Arazoa da garraioaren plangintza eta hiri mugikortasuna gizonen eruedetan oinarritzen direla, emakumeenetan baino areago.

Planeamenduak erabil ditzakeen tresnak honakoak dira: jardueren kokapena, garraio sistemaren antolakuntza, bideen eta hiriguneen ezaugarriak –ingurumenari zein diseinuari dagozkionez–, eta erosotasunaren alde egiteko eragin handia dute, hau da, hiriaren erabilera errazteko oso baliagarriak dira herritar guztientzat, batez ere emakumeentzat.

Eguneroko ohiko bizitzan emakumeek eginkizun ugari dituzte, eta hori gutxi balitz, irisgarritasun arazoek bizitza hori zailago bihurtzen dute.

3.6.1

EGIN LITEZKEEN EKINTZAK:

- Kontuan hartzen ez diren garraio beharrak agerraraztea, baita dauden eskaerak ere.
- Emakumeei zehazki galdetzea beren garraio beharrei buruz.

- Garraio publikoari dagokionez, lanera joan-etorriko bidaietan eta puntako orduetan arreta jartzeaz gain –horiek konpontzen saiatzen baita, ia era eskusiboan–, beste garraio arazoak ere kontuan hartzea.
- Gaur egun emakumeen ardua diren beste zenbait eginkizun ere kontuan hartzea: haurrak ikastetxetara eramatea, erosketak egitea, mendekotasuna duten pertsonak zaintzea...
- Garraio publikoko parte hartzeak sustatzea: autobus zerbitzu azkarragoak eta malguagoak, ordu puntetatik kanpoko zerbitzuak, emakumeen beharretara egokituriko ordutegiak, geltokieta-ko baldintzak hobetzea, itxaron beharreko aldiei buruzko informazio zehatza ematea.
- Oinez ibiltzeko kalitatezko eta baldintza egokiko ibilbideak lortzea, emakumeak kale estuetan, zaratatsuetan eta kutsatuetan ibilarazi gabe.
- Lurpeko zein gaineko pasabideak saihestea, hiriko segurtasunean puntu beltzak baitira.
- Lotura guneen zein garraio publikoko geltokien sarbide baldintzak ikertzea.
- Garraio azpiegituren sarbidetarako pasilloak eta tunelak saihestea.
- Aparkaleku publikoetako segurtasun baldintzak kontuan hartzea, eremu babesgabeak eta segurtasun baldintza eskasekoak izaten baitira.

3.6.2

BESTE ZENBAIT ESPERIENTZIA:

- **Emakumeen parte hartzea Iruñeko Eskualde Garraioko Planean**, Iruñeko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoak antolaturikoa. Planak 57 neurri aurreikusten zituen, honako gaiekin lotutakoak: Auzoa, Linea eta Ibilbidea, Maiztasuna, Autobusen diseinua, Geltokien diseinua, Ordainketa Sistema, eta Antolakuntzako Kultura. Ekintza hori Nazio Batuetako 2000ko lehiaketan (1999) nazioarteko Ohitura Ontzat hartu zuten.
- **La Rondilla (Valladolid): Auzoko emakumeek hiriguneak eta auzoaren irisgarritasuna hobetzen dituzte.** La Rondillako Auzo Elkarteko Emakume sailak parte hartze aktiboa izan du auzoko irisgarritasun eta trafiko planetan, eta parte hartze horrek auzoko kaleen diseinuan eta eremu publikoetan eragin mesedegarria izan du. Emakumeek beren proposamenak defendatu behar izan zituzten, beren elkarte kideen iritzien aurka, haiek garrantzi handiagoa ematen baitzizkioten aparkaleku eta ibilgailu pribatuen trafikoarekin erlazionaturiko gaiei. Duela gutxi, auzo osoak ospatu du La Rondillaren itxura berria, Valladolideko etxebizitza sozialeko auzo horretan hori lorpen garrantzitsutzat hartu baitute.
- **“Hiri Atsegina” proiektua Tokio (1993), eta Japoniako geroagoko beste zenbait hiri.** Erakuntzako arkitektoen eta ingeniarien elkarteak ikerketa baten buru izan zen, garraio publikoa

erabiltzen zuten emakumeek zer-nolako hiri erabilera ereduak jarraitzen zituzten ikertzeko. Ikerketan izandako emaitzak onartezinak ziren gizarte moderno batentzat. Ikerketa horren ondorioz, hiriko garraio publikoko sarea hobetzeko plana ezarri zen.

3.6.3

PROPOSAMEN ZEHATZAK:

Garraio publikoko sarea ikuskatzea, genero ikuspegitik: adibidez, zenbait ezaugarri aztertzea –sarbide baldintza errealak, geltokietako segurtasun baldintzak, beste pertsona bat beren mende duten erabiltzaileentzako erosotasuna–, herritar emakumezko edo emakume elkarteko taldek eginiko diagnosirako txango baten bitartez. Hori zenbait talde berezirentzat antola daiteke, esate baterako: haur txikiak dituzten amentzat, emakume edadetuarentzat, eta abarrentzat. Teknikariak baldintza beretan ibilbidea egitea (erosketekin, haurrentzako aukiekin, eta abar) sistema egokia izan daiteke, baita ikusgarria ere komunikabideentzat.

Jende guztiaren parte hartzea, garraio planetan, eguneroko bizitzari dagozkien baldintzak planetan nagusitzeko: ekipamenduen arteko loturak, auzoen arteko harremanak, eta abar. Iruñeko Eskualde Garraioko Planaren ereduari jarraituz.

Hirian zehar ibiltzea: Ohiko ibilbide batean agertzen diren arazoak aztertzea, oinez edo bizikletaz eginiko lekualdatzetan segurtasuna eta erosotasuna lortzeko. Erabilitako metodoa behaketan, hausnarketan eta erreakzioan oinarrituko da. Arrisku puntuak mapa baten adieraztea, eta hori zerbitzu teknikoetara helaraztea, oinezko ibilbidetako baldintzak aldarazteko, elkar harturiko erabakien bitartez.

“Oinez eskolara” kanpaina. Ikastetxeen eta haurrentzako beste ekipamenduen sarbideak ikertzea, haurrek horietara oinez heltzeko aukera izan dezaten gehienbat, hori onuragarria baita beren osasunarentzat, inguruaren ezagutzarentzat eta autonomiarentzat.

3.7

METODO BERRITZAILEAK

Zenbait emakume taldek beren iritziak entzunaraztea lortu dute, proposamen nahiko originalen bitartez, adibidez: ingurumen zehatz batean dauden baldintzak ikertzea eta horiek beren ikuspegitik ebaluatzea, sariak edo etiketa positiboak zein negatiboak emateko. Jarduerak lantzen edo gaitzesten dituen zeharkako metodo hori oso eraginkorra izan daiteke epe luzera. Metodo horren adibide izango lirateke honako parte hartze hauek: ohitura oneko lehiaketak, sariak ematea, egokitasuneko edo prestazio oneko ziurtagiriak, etiketak, eta abar. Horiek guz-

tiak proiektuen edo jardueren ebaluazioetan oinarritzen dira, eta berdintasunezko gizarte baten alde –edo, gutxienez, emakumeen bizitza erosoago egitearen alde– zer nolako ekarpena egiten duten hartzen da kontuan.

Beste zenbait neurrik zerga salbuespenen laguntza izan lezakete, ohitura onak sustatzen dituzten erakundeentzat, edo isunak, alderantziz, egiten dutenentzat.

3.7.1

EGIN LITEZKEEN EKINTZAK:

- Partaidetza zabaleko batzorde baten bitartez, udal jarduera onena aukeratzea, emakumeen ikuspegitik. Horretarako, hiriko emakumearen berdintasunaren alde lan egiten duten elkarte aktiboen iritzia jasoko lirateke. Ekintzak mota askotakoak izan daitezke: arreta bereziaz eginiko etxebizitza sustapen bat; parke bat; oinezko ibilbide atsegina bat, hiri bateko emakume edadetuentzako egokia izateagatik; auzo bat zaharberritzea, erabilera anitz sartuz; ondo pentsaturiko ekipamendua...
- Proposamen bera erakunde esparruko epaimahai batek ere egin dezake: esate baterako, Emakundek egin dezake, zenbait euskal hiriko berdintasuneko emakume teknikariek batera, edo hitzarmena eginez ideia horren aldeko zenbait profesionalekin, adibidez, Arkitektoen Elkargokoak edo beste edozein unibertsitate adarretakoak.
- Batzorde mistoa sortzea, etorkizunean garatuko diren hiri proiektuak ebaluatzeko. Batzordearen barne egon beharko lukete osasuna, arkitektura, soziologia, berdintasuna arloetan jarduten diren emakume profesionalak, eta baita gai horretan interesa duten emakumeak ere, elkartekideak zein elkarte partaide ez direnak. Batzorde horrek kontsultarako organo lanak egin ditzake eta bere ospea ebaluazioen argitasunaren eta zehaztasunaren bitartez lortuko luke.
- Erakusketak oso egokiak dira ideiak eta edukiak hedatzeko: helburu zehatzetan arreta jarriz gero, baliagarriak izan daitezke inguratzen gaituzten eremuak laudatzeko edo gaitzesteko.

3.7.2

BESTE ZENBAIT ESPERIENTZIA:

- **Emakumea eraikitze lanetan izeneko proiektua:** Madrilgo emakume arkitekto talde batek martxan jarritako esperientzia, Emakumearen Sailaren eta Alcalako Unibertsitatearen laguntzarekin. Urtero jardunaldiak antolatzen dituzte eta emakume arkitektoak gonbidatzen dituzte parte hartzera. Aldi berean, beraiek eraikiriko obrei buruzko erakusketa egiten du-

te. Arkitektura arloa oso zirkulu itxia da eta, esperientzia horren bitartez, emakumeek arlo horretan duten presentzia nabarmentzea lortu dute. (1998-2003)

- **Emakume Elkarteak eginiko ingurumen txostenak (Herbehereak)**

Emakume Elkarteak txostenak egiten ditu eguneroko inguruneari buruz eta, horien bidez, emakumeak gogotsu ari dira beren ingurunea aztertzen, baita garapen jasagarria sustatzeko nolabaiteko eragina izaten ere. Ingurumen Txostenen nazioarteko eredu hartu dute oinarritzat eta, horren arabera, galdesorta bat idatzi dute. Emakumeak gero eta esperientzia gehiago lortzen ari dira beren interesak adierazten, eta baita babes publikoa lortzen ere. Politikariak interes horiek kontuan hartzen hasi dira. 1985ean zehar, Herbeheretako lau probintziatako 20 herri talde mobilizatu ziren, zenbait herri elkarte eta *National Steering Groupen* (Zuzendaritza Talde Nazionala) laguntzarekin.

- **Emakumeak eta irisgarritasuna hiriguneetan: "Sesamo, ireki zaitez" (Erresuma Batua)**

"Sesamo, ireki zaitez" proiektua proiektu bateratua da eta, hiri planeamenduaren bitartez, emakumeen beharrei erantzuna emateko zehazki diseinaturik dago. Emakumeek beren hurbileko inguruaren irisgarritasun maila aztertu zuten, eta baita eguneroko eginkizunak egiteko aurkitzen zituzten zailtasunak ere. Azterketa horren arabera, lokal bakoitzari "Sesamo, ireki zaitez" izeneko kalifikazioa ezarri zioten, izar batetik hiru izarretara. Proiektuak aholkularitza eskaintzen die lokal horiei, beren irisgarritasuna hobetzeko, eta, aldi berean, plangintza egileen kontzientzia suspertzeko.

- **ZPG indizea, Washingtonen (AEB), ingurua ebaluatzeko:**

Zero Population Growth Inc. taldeak galdesorta bat idatzi du Estatu Batuetako hirien gaitasunak eta disfuntzioak neurtzeko, herritarren beharren arabera. Besteak beste, haur pobrezia eta haurdunaldi goiztiarra dira jorratzen dituzten gaiak. Hautaturiko adierazleak Estatu Batuetako edozein hiri sailkatzeko baliagarriak dira, ekonomia, gizarte edo ingurumen faktoreen arabera. Estatu Batuetako 207 hiritan egin dute azterketa eta, lorturiko datuek adierazten dutenez, hiri handienak dira emaitza txarrenak dituztenak.

3.8

KOMUNIKABIDEETAN HEDATZEA

Hiriko Emakumeari buruzko Europako Gutunak komunikabideen garrantzia azpimarratzen du, estereotipoen aurkako mezuak hedatzeko lagungarri izan daitezkeelako eta, horien bidez, emakumearen bilakaerarekin eta emantzipazioarekin bat datorren irudia zabal daitekeelako.

Komunikabideak informazio trukeak ugaritzeko aukera ematen duten tresnak dira, batez ere albistek kontu berriak direnean. Horregatik, aukera berdintasunaren eta garapen jasangarriaren aldeko lurralde eta hiri antolamendua beharrezkoa dela adierazten duen ideia komunikabideetan zabaltzeko ahaleginak egin beharko dira, baita hori etorkizuneko programazioan kontuan hartu ere. Hori egiteko genero ikuspegia erabiltzen hasi beharko litzateke hirigintza, lurraldea, etxebizitza zein garraio gaiekin erlazionaturiko eztabaidetan, albistegietan, solasaldietan eta dokumentaletan.

3.8.1

EGIN BEHARREKO EKINTZAK:

- Komunikabidetan aurkezten den hirigintza jarduera bakoitzari buruz emakumeen ikuspegitik adieraziriko iritzia agerrarazten saiatzea.
- Hiriaren erabilerei buruzko erreportajeen hedapena sustatzea.
- Emakumeek hirian duten bizimoduari buruzko irudi fondoa lortzea, elkarrizketak edo prentsa artikuluak indartzeko.
- Aldizkari profesionalei edo emakume aldizkariari eskaini liezaiekeen txostena prestatzea, material erakargarria bilduz gaiari eskainitako zenbaki bat argitaratzea lortzeko, esate baterako, martxoko data aprobetxatuz.

3.9

EKINTZA PILOTUAK

Dagozkien kapituluan aipatuko diren zenbait esperientzia ekimen pilotuak martxan jartzearekin erlazionaturik daude, eta emakumeentzat hiri edo auzo ezin hobearen ideiarda hurbiltzen diren plangintza moduak gauzatzea da horien helburua. Ez da erraza proiektu horiek gauzatzea, baina, hala ere, garrantzi handia dute, adierazle gisa.

Hanburgon edo Emscher Parkeko Alemaniako Erakustaldi Nazionalean eginiko arkitektura lehiaketak, edo Txokolate Lantegiaren zaharberritzea dira esperientzia horien zenbait adibide. Frantziar Auzo Baketsuak izeneko esperientzia jarri zuten martxan 1994an, eta nolabaiteko arrakasta eta emaitzak izaten ari da, dagoeneko 10 auzo birdiseinatu baitituzte. Herbeheretan, trafiko guzuek berreskuratzea *woonerf* edo bizikidetzako patioak lortzeko asmoa, 60ko eta 70eko hamarkadetan izandako hiri gatazketatik abiatzen da. Gaur egun, praktika hori ohiko ohitura bihurtu da. Ildo horretatik egiten ari diren beste zenbait proiektuak parke diseinuak jorratzen dituzte, generoko ikuspegitik, esate baterako Vienako parkea, beste esperientzien atalean aipatzen dena.

3.9.1

EGIN LITEZKEEN EKINTZAK:

- Euskadiko hiriren batean proiektu pilotua egitea, bizitegi proposamen berriren batean generoko irizpideak sartzeko.
- Emakumeak parte hartzeko proposamena, egoera eskaseko auzoren baten birmoldaketan.
- Eraikinen bat berreskuratzea, planteamendu berritzaile bat erabiliz, emakumeen eta haurren beharretara egokituriko ekipamendu berria ezarriz: denbora libreko gunea; lanerako telezentroa; etengabeko prestakuntza; baita beste zenbait planteamendu konplexu ere, gaur egungo emakumearen behar berriei erantzuna emateko.
- Hiri parke bat diseinatzea, genero ikuspegitik.
- Haurrentzako ekipamendu berri bat, mota guztietako jarduerak izango dituen eta asteburutan irekirik egongo dena, hori baita emakume gaiei buruzko tailerretan gehien eskatzen dena.
- Genero ikuspegia lelo gisa sartzea arkitektura edo hirigintza lehiaketaren batean, esate baterako EUROPA sarian (arkitekto gazteentzat).

3.9.2

BESTE ZENBAIT ESPERIENTZIA:

Einsiedlerpark eta St Johann Park (Viena): Esperientzia pilotu horren bitartez, parkeetan zenbait gune ezartzen dira, neskek zein emakumeek parkeak gehiago erabiltzeko. Arreta berezia ematen zaie esparru guztiaren segurtasun baldintzei. Parkea lehiaketa batean irabazi zuen diseinuaren arabera egin dute, eta helburu horiek lehiaketaren hasieratik zeuden ezarrita. Aurrez eginiko jokabideei buruzko ikerketa batean, neskek, 13 urte bete ondoren, parkeetara gutxiago joaten zirela aurkitu zuten. Mutlak baino askoz gutxiago joaten ziren (ratioa 1/3 zen) eta neskek erabilitako eremuen azalera ere txikiagoa zen. (1999-2000)

Frauen-Werk-Stadt: Emakumeek emakumeentzat eginiko etxebizitzaren proiektua, Viena (Austria)
"Frauen-Werk-Stadt" proiektuak 380 etxebizitza hartzen ditu bere baitan, eta emakumeek eguneroko bizitzan dituzten beharrei erantzuna emateko lehen pausoa da. Viena hiriko eremu bat emakume arkitektoek eta hirigilek diseinatuko dute eskusiboki, *Vienako Hiria Zabaltze Programaren* baitan. Arreta berezia eman zaio apartamentuen diseinuari, baita banakako gelen espazio diseinuari ere, horiek antzeko tamaina izan dezaten, maizterrei aurretik erabakiriko erabilera ematea ez derrigortzearen. Proiektuak badu beste funtsezko helburua bat ere: emakume diseinugileen eta arkitektoen lanaren berri ematea. Ekimena Eraikuntza arloko Sindikatuaren Etxebizitza Kooperatibak sortu zuen, hori baita Vienako kooperatiben artean emakume bat zuzendari lanetan duen kooperatiba bakarra. Vienako Udalaren laguntza ere izan zuten (1992-97).

3.10

PRESTAKUNTZA EKINTZAK

Emakundek antolaturiko tailerrean gehien baloraturiko gaia izan zen: berdintasunaren kontzeptua denen prestakuntzan gehitu behar da, hau da, gizon eta emakume guztien prestakuntzan, eta baita adin guztietan ere. Espazioarekin erlazionaturiko gaietan aurrerapauso asko eman beharra dago oraindik, hori oso gutxi garaturik dagoen gaia baita.

Prestakuntza horrek eskuragarri egon behar du adin eta maila guztietan:

- Neska-mutilentzat, araututako irakaskuntzan, Ingurunearen Ezaguera ikasgaietan, esate baterako, zenbait kontzeptu gehitzea (berdintasuna, etxearekin eta ugalketarekin erlazionaturiko eginkizunen balioa), bizitzaren garrantzi eta arreta nagusia lanean eta laneko harremanetan jarri gabe.
- Nerabeen artean, emakumeak arkitekturan, hirigintzan eta etxebizitzaren eraikuntzarekin erlazionaturiko lanbideetan jardun daitezkeen sustatzea, era aktiboan.
- Ikasketa teknikoei dagokienez, emakumeen eguneroko bizitzarekin zerikusia duten gaien ikerketa zehatzak sustatzea.
- Administrazio teknikoari eta arduradunei dagokienez, prestakuntza ikastaroetan edo jardunaldietan parte hartzea sustatzea, esate baterako: zenbait Europako unibertsitatek genero gaiei buruz aldizka prestatzen dituztenak.

3.10.1

EGIN LITEZKEEN EKINTZAK:

- Dirulaguntzak sustatzea, emakumeek, gizonen zein edozein interes taldek hiriaz egiten duten erabilerari buruzko tesiak edo ikerketak egiteko.
- Generoari buruz sentiberatasuna azaltzen duten Karrera Amaierako Proiektuak hautatzea, Arkitektura edo Ingeniaritza eskoletan.
- Inститutu eta ikastetxeekin lankidetzaren ezartzea, emakumeen hiri bizitza sintesi kredituetarako gai moduan gehitzeko.
- Hitzaldiak edo mintegiak proposatzea dagozkien unibertsitate esparruei, hiri definizioarekin zerikusia duten ikasketetan, bederen, genero gaia sartzeko.

4.

Nazioarteko esperientziak

70eko hamarkadaren amaieratik, ordura arte erabilitako espazio egiturekin eta hirigintzako plangintza metodoekin kritikoak ziren ahotsak hasi ziren zabaltzen, genero ikuspegiari dagokionez. Emakumeen beharrak adierazteko metodoak ezarri ziren, beren aukerak hobetzeko eta bere interesei erantzuna emateko.

Urte horietan, hirigintza arloko zenbait emakume teorilari bikainek emakumeen papera aztertu zuten eta, azterketa horietan, Estatu Batuetako aldirietan eta Europako zenbait hiritan ezarritako hirigintza ereduak ikuspegi kritikoa adierazi zuten (Dolores Hayden, Jane Jacobs...). Mugimendu feminista hedatzen hasi zen. Emakumeak Administrazio Publikoetan sartzen hasi ziren, baita beren lana plangintzarekin, hirigintzarekin eta etxebizitzaren eraikuntzarekin zerikusia zuten arlo profesionalean garatzen ere. Pixkanaka, proiektu feministak sortu ziren, eta haien helburua emakumeentzat horren zapaltzaile ez ziren eremuak diseinatzea zen.

Geroztik, emakumeek gai askotan hartu dute parte, besteak beste, garraio planak, segurtasunarekin zerikusia duten alderdiak, hirigintza planak, etxebizitzaren zein ekipamenduen eraikuntza planak eta ingurumenari buruzko programak.

Prozesu horren martxa geldia izan da eta bere garapen nagusia 80ko hamarkadan hasi da. Jorrraturiko gaiak gehitu egin dira, eta baita geografia esparrua ere, hirigintzako parte hartze ohitura gutxiago duten herrialdeetara ere hedatu baita, esate baterako Europa hegoaldeko herrialdeak.

Jarraian aipatuko diren esperientziak emakumeen azterketa eta parte hartze praktiken erakusgarri dira, zenbait arloekin erlazionaturikoak, besteak beste: etxebizitza, hirigintza, garraioa eta segurtasuna. Gai horiek jorrratzean, ikuspegi nagusia emakumeen eguneroko bizitza da.

Esperientzia guztien emaitzak positiboak izateaz gain, baliagarriak ere izan dira, beste lekuetan, geroago, antzeko ekimenak sustatzeko. Hiriko genero ohituren transferigarritasun ahalmen hori prozesu hasiberria da oraindik eta etorkizunean garatzen jarraitu beharko du.

1. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	'Hiri seguruagoak' izeneko programaren baitan, emakumeen segurtasuna hobetzea.
Data:	1980
Lekua:	Leicester (Erresuma Batua)
Interes arloa:	ETXEBIZITZA HIRIGINTZA GARRAIOA X SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Emakumeen Berdintasunaren aldeko Batasuna (Leicester hiriko Udala). Leicester hiriko Emakume Aktiboen Elkarteak.
Deskribapena:	Zenbait emakume talderen artean kontsultak egin ziren. Horretarako 9 talde osatu ziren, adin, etnia, bizitza aro eta abarren arabera, eta emakume batek egin zituen talde koordinatzaile lanak. Bilerak komunitatearen instalazioetan egin ziren eta emakumeei joan-etorriko gastuak ordaindu egin zitzaizkien, topaketetara joateko aukera ematearren. Talde bakoitzaren koordinatzaileak eztabaidetan hitz egindakoari buruzko txosten bat egin zuen (arazoak identifikatzea, irtenbideak, eta abar) eta horiek amaieran eginiko txosten nagusi batera gehitu egin ziren.
Emaitzak:	Zenbait talderen (arlo publikoko zein pribatuko erakundeak, boluntarioak, komunitate erakundeak) inplikazioa lortu zuten, horiek hirian emakumeen segurtasuna hobetzeko ezarri ziren proposamenak ikuskatzeaz arduratu baitziren. Emakume ekintza horretan, azpimarratzekoa da Leicester hiriko zenbait udal taldek azaldutako batasuna.

2. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	Garraioari eta Garapenari buruzko Emakume Foroa
Data:	1993an hasi zen eta, gaur egun ere, jarraitzen du.
Lekua:	Sheffield (Erresuma Batua)
Interes arloa:	ETXEBIZITZA HIRIGINTZA X GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Sheffieldeko Udalaren Lurralde Antolamendu Saila.
Deskribapena:	<p>Hirigunearen Udal Plana zela eta, udalak kontsulta publiko bat sustatu zuen. Kontsulta erabiltzaileen interesetan oinarritzen zen eta emakumeek ere hartu zuten parte.</p> <p>Kontsulta egin eta gero, Administrazio emakume teknikarien talde batek komunitateko emakumeekin elkarrizketa iraunkorra izateko foro bat sortu zuten, hau da, Garraio eta Garapenari buruzko Emakume Foroa, 1993an. Helburua Lurralde Antolamenduaren Saila informatzea zen, bere lanean emakumeen beharrak kontuan hartu zitzaizkion, emakumeak baitziren erabiltzaile nagusiak. Modu horretan, emakumeak tokiko egituraren parte hartzen hasi zirenean iraunkorrean, plangintza eta garraio politikei buruzko aholkuak emanaz.</p>
Emaitzak:	<p>Esperientziak, hezkuntza zein prestakuntza mailan, eragin oso garrantzitsua izan zuen egungo plangintza politiketan, baita tokiko Administrazio zein Administrazio zentralaren inbertsio plangintzan ere, eta, horren ondorioz, emakumeek plangintza prozesuetan izandako parte hartzea eraginkorragoa izan zen.</p> <p>Politikariek emakumeen aldarrikapenak praktikan jarri zituzten, bide segurtasunari eta kutsadurari buruzko kanpainak antolatuz. Emakumeen ordezkariarekin izan ziren arazoak: era guztietako emakumeen parte hartzearen alde egin arren, azkenean arraza zuriko, klase ertaineko eta adin ertaineko emakumeak izaten ziren eskuarki bileretara joaten zirenak.</p>

3. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	"METRAC" proiektua
Data:	1989
Lekua:	Toronto (Kanada)
Interes arloa:	X ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA X GARRAIOA X SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Torontoko metropoli eskualdeko segurtasunari buruzko batzordea. Batzordean erakundeek eta tokiko emakumeen oinarrizko elkarteek hartu zuten parte.
Deskribapena:	Torontoko emakumeek, hiriaren erabileran, segurtasun eta autonomia sentipena lortzeko asmoz, horretarako nahiko lituzketen beharrezko baldintzak arrazionalizatzea eta sailkatzea erabaki zuten, metodologia baten bitartez. Lan horien ondorioak METRAC (<i>Metro Action Committee on Public Violence Against Women</i>) gidan laburbildu zituzten. Gida zerrenda xumea da, eta bertan adierazten dira eremu bat segurutzat jotzeko kontuan hartu behar diren gauzak. Gai garrantzitsuenak honako hauek dira: argiteria; beste jendearentzat ikusgarri izatea; eremu isolatuak saihestea; hurbileko ekintzak; eta, hiriguneen mantentze lanak zaintzea. Leku bakoitzaren diseinuak emakumeentzat –eta, beraz, gizartearentzat– segurua izatea du helburua.
Emaitzak:	Gidaren erreferentziarekin, tokiko emakumeek zenbait lekuren segurtasuna aztertu zuten: parkeak, autobus geltokiak, aisialdirako zentroak, eskolak, unibertsitateetako campusak, etxebizitza proiektuak zein bizitegi eremuak, aparkalekuak eta garraio publikoko sistema. Esperientzia hori beste zenbait herrialdetan ere jarri dute abian. Metodo hori oso eraginkorra da, emakumeek beren esperientziaren bitartez jasotzen duten informazioa biltzeko aukera ematen duelako, hau da, adituei lortzea asko kostatzen zaien informazioa.

4. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	“SESAMO, IREKI ZAITEZ” izeneko proiektua
Data:	1993
Lekua:	Haringuey (Erresuma Batua)
Interes arloa:	ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA X GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Haringueyko udala, tokiko emakumeen oinarrizko elkarteekin batera.
Deskribapena:	<p>Haringueyko agintariak emakumeen eskakizunei entzutea erabaki zuten, hiriko andaturiko ingurumena hobetzeko ahaleginak egiterakoan.</p> <p>Merkataritza gunetarako irisgarritasuna hobetzea izan zen aldarrikaturiko gai bat. Programaren helburuak honako hauek ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Plangintzako teknikariei eta dendariei ikusaraztea emakumeen –zaintzaile diren aldetik– irisgarritasun arazoak. • Komunitateko emakumeen eskakizunak betetzen dituzten instalazioetako enpresa buruei sariak ematea. • Emakumeak inplikatzeko ingurumeneko era guzietako hobekuntzetan. <p>Denden eta zerbitzuen irisgarritasunari buruzko inkesta antolatu zen, bi egunetan. Zenbait emakume taldek normalean erabiltzen zituzten instalazioetan ibili ziren, erosketarako orgekin eta hurrekin, leku horien irisgarritasunaren erosotasuna egiaztatzeko. Geroago, hirugarren ibilbidea antolatu zuten eta ibilbide hori egitea eskatu zieten hirigile gizonezkoei erosketarako orgekin eta hurrekin, hirigileek diseinu eskasaren ondorioz izandako zailtasunak pertsonalki egiazta zituzten.</p>
Emaitzak:	Proiektuaren bitartez hobekuntza zehatzak lortu ziren, eta baita eragin handia ere, tokiko eta nazioko komunikabideetan. Eragin hori lagungarria izan zen, emakumeen arazoei buruz ohartarazteko lagungarria izan zelako, baita plangintzagileen iritziak aldatzeko ere.

5. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	"HIRI ATSEGINA" Proiektua
Data:	1993
Lekua:	TOKIO (Japonia)
Interes arloa:	ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA X GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	"Arkitektoak Emakumeentzat" Batzordea (Eraikuntzako Arkitekto eta Ingeniari Tokioko Eskola). Osasun eta Ongizate Ministerioa, eta Eraikuntza Ministerioa.
Deskribapena:	Japoniako gizartea zahartzen ari da, gero eta gehiago, eta horrek sortu zuen hasierako kezka. Edadetuentzako egokituriko hiri ereduan pentsatzen hasi ziren, eta gero emakume eta haurren beharrak ere kontuan hartzen hasi ziren. Aipaturiko Batzordeak sakonean aztertu zituen irisgarritasuna eta mugikortasuna hobe zitzaketan neurriak, Tokion zehar eginiko bidaiak erosoagoak izateko. Ikerketak adierazi zuenez, eguneroko bidaiak erabat nekagarriak izan zitezkeen, edadetuentzat zein gazteentzat, horiek egiteko energia asko behar baitzen. Adibidez, ohiko ibilbide batean igo beharreko eskailera kopurua 6 pisuko eraikin batera oinez igotzeko adinakoa zen. Txartelak kontrolatzeko makinak arteko tartekak jende ahularentzat edo motelarentzat egokiak ez zirela egiaztatu zen. Informazioa irakurtzea zaila zen ikusmen eskaseko jendearentzat. Atsedena hartzeko behar adina ekipamendurik, eserlekurik edo tokirik ere ez zegoen.
Emaitzak:	"Hiri atsegina" lortzeko proiektuak egin zituzten 300 hiri eta herri baino gehiagotan, Osasun eta Ongizate Ministerioaren agintaritzapean. Eraikuntza Ministerioak "Adinekoentzako Bidea" jarri zuen abian, zenbait neurri berezi ezarriz: espaloiak zabaltzea, garraio publikoko sarbidetan eskailera mekanikoak jartzea eta hobekuntzak egitea. "Ongizateari lekua egin" izeneko bigarren proiektu bat ere jarri zuten abian, eta horren helburua lehentasunak ezartzea eta ekintza ildoak ezartzea zen, zenbait talderen eskakizunak betetzeko: edadetuak, elbarritasunaren bat zuten pertsonak eta haurrak edo beste pertsonaren bat beren menpe zuten emakumeak.

6. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	Birmingham hiriaren Hiriguneko Birmoldaketa Planaren aurkako kanpaina
Data:	1994
Lekua:	Birmingham (Erresuma Batua)
Interes arloa:	X ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA X GARRAIOA X SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Birmingham hiriko Herri Taldearen Emakume Batzordea. "Behetik gorako" ekimena, tokiko agintarien kontrolatik kanpoko ekimena. Tokiko oinarritzko komunitate erakundea. Emakumeena eta emakumeentzat.
Deskribapena:	Birmingham hiriko Herri Taldearen barruan, emakume talde bat osatu zuten, Hiriguneko Birmoldaketa Planaren aurka. Hiriguneko arazoek emakumeengan zituzten eraginak aztertzea zuten helburu. Horretarako kontsulta bat egin zuten, 2.000 galdesorta erabiliz, eta topaketa publikoa ere antolatu zuten. Hiria emakumeentzat leku seguruagoa, irisgarriagoa eta erosoagoa bihurtzea, hori zen lortu nahi zuten helburua. Aldi berean, emakumeengan kontzientzia sortu nahi zuten, plangintzak emakumeen eguneroko bizi ingurunean duen eraginari buruzkoa, eta baita emakumeen partaidetza sustatu ere hirigintza arloan.
Emaitzak:	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Women in the Centre (1989)</i> izeneko liburuxka argitaratu zuten. • Plangintza positiboa sustatzeko dibulgazio produktuak (bideoak eta abar). • Komun publikoei buruzko ikerketa. • Batzordeak segurtasuna ikuskatzen lagundu egin du. • Sarbide kurtsuak antolatu zituzten, emakumeak arkitektura eta hirigintza ikasketak egitera bultzatzeko. • Antzeko kolektiboekin sareak ezarri zituzten. • Hirigileekin eta sustatzaileekin eginiko lan taldetan parte hartu dute. • Hiriak etorkizunean izango dituen plangintza prozesuetan emakumeen ahotsa entzunaraztea lortu dute.

7. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	Emakumeen beharrei egokituriko 25 apartamentuko sustapena
Data:	Berkammen (Alemania)
Lekua:	1991
Interes arloa:	X ETXEBIZITZA HIRIGINTZA GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Bergkammen hiriko Udalak iragarririko lehiaketa.
Deskribapena:	Udalak lehiaketa publikoaren deialdia egin zuen, etxebizitza sustapen baten diseinua esleitzeko. Helburuak emakumeen beharren arabera zehaztu ziren. Emakume arkitektoz osaturiko epaimahaiak emakume talde bati esleitu zion lehiaketa.
Emaitzak:	Apartamentuek hainbat neurri dituzte, eta horien maizter izango direnen beharretara daude egokituta. Etorkizunean aldaketak egiteko aukera ere badago, gelak konbinatuz (bi apartamentu barne eskailera baten bitartez lotzeko aukera dago, edo sukaldearen eta jangelaren arteko pareta alda daiteke). Apartamentu guztiek lorategia edo terraza dute. Lorategitik aparkalekura zuzeneko sarbidea dago, ate handikoa, erabilera segurua bermatzeko. Bestalde, kafetegia ere badago, bizikidetzaz errazteko, eta baita biltegi bat ere.

8. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	"Emakumeek birplanifikatzen dute"
Data:	1993
Lekua:	Hanburgo (Alemania)
Interes arloa:	X ETXEBIZITZA HIRIGINTZA GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Obra Publikoko Ministerio Federala (Alemania).
Deskribapena:	Administrazio zentralak etxebizitza sozialeko birmoldaketa proiektu bati dirulaguntza eman zion. Zenbait emakume hirigile eta etxebizitza horien erabiltzaile elkarlanean aritu ziren, eraikuntza emakumeen eta beren familien beharretara egokitzeko.
Emaitzak:	<ul style="list-style-type: none">• Eskailera irekiak ixtea, apartamentutik kanpoko gune erabilgarriak eskuratzeko.• Ezkaratzak birmoldatzea, segurtasuna eta diseinuaren kalitatea gehitzeko.• Kostu txikiko eraikin berria, tokiko gazte taldearentzat.• Kafetegia bat irekitzea, eraikinetako baten lehen solairuan.

9. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	"Txokolate lantegia"
Data:	1984-87
Lekua:	Berlin (Alemania)
Interes arloa:	X ETXEBIZITZA HIRIGINTZA GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Esparrua: Eraikuntzako Nazioarteko Erakustaldia. Higiezinen Udal Elkarte eta talde feministak.
Deskribapena:	Plangintza eta negoziaketa prozesu luze baten ondoren, talde feministek higiezinen udal elkarte baten eraikinen ardura hartu zuten. Horren ondoren, zenbait dirulaguntzen bitartez, txokolate lantegi txiki batek erabilitako eraikin baten berreraikitze lanak hasi zituzten.
Emaizak:	Lehenengo eraikuntzan hartzaindegia dago, beheko aldean, eta hainbat neurritako zenbait apartamentu, goian. Laugarren solairuan, hartu nahi ez diren bisitariengandik babestuta, tratu txarrak jasandako haurrentzako eta emakumeentzako etxebizitzak prestatu zituzten. Bigarren eraikin batean, sotoan eta barne patioan bainu turkiarra jarri zuten, inguruan emakume turkiar asko bizi baitira. Beheko solairuan kafetegi bat dago, eta, lehen solairuan, zurgintza tailer bat (emakumeek bertan egiten dute lan). Bigarren solairuan areto handi bat dago, zenbait erabileratarako eta ikuskizunetarako. Goiko solairuetan zenbait gela txikiago daude, bilerak, ikastaroak, kontsultak eta abar egiteko. Zabaltzak berdegune moduan erabili dituzte.

10. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	“Iruñea emakumeen ikuspegitik: Iruñeko Plan Orokorri buruzko iradokizunak idaztea”
Data:	1997
Lekua:	Iruña
Interes arloa:	ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	<ul style="list-style-type: none"> • Iruñeko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoak sustaturikoa, Hirigintza Zinegotzigoaren laguntzaz. • <i>Emakume hirigileak</i> taldea • Iruñeko emakume elkarteak, 80tik gora.
Deskribapena:	<p>Plan Orokorriaren berraztertzearen esparruan, Emakumearen Zinegotzigoak, Hirigintza Zinegotzigoaren lankidetzaz, emakumeek planeamendu berrian parte hartu behar dutela erabakitzen du. Horretarako, hirigintzan jarduten duten emakume talde batek (<i>Colectivo de Mujeres Urbanistas</i>) parte hartze tailerra antolatu zuen, EASW metodoa erabiliz, Iruñeko 80 emakume elkarte baino gehiagoren ordezkariekin.</p> <p>Jardunaldi batean emakumeek planoak erabiltzen dituzte, garrarioaren, etxebizitzaren edo beren hiriaren segurtasunaren egoerari buruz iritzia ematen dute, eta, azkenik, Plan Orokor Berrirako iradokizunak proposatzen dituzte.</p>
Emaitzak:	<p>Emakumeek iradokizunak proposatzen dituzte, Plan Orokorriaren Berrikuspenean, eta Udalak jasotzen ditu, Jardunaldia ospatzen den egunean. Gero, Elkarte bakoitzak iradokizunak eta arrazoibideak aurkeztu zituen, garrantzizkoagotzat jotzen zituzten gaietan.</p> <p>Alde Zaharra Berreskuratzea eta Autobus Geltokiaren Kokapena izan ziren interes gehien sortu zuten gaiak. EBeko web orrian laburpena aurkitu daiteke: “cordis.lu/EASW/Pamplona”</p> <p>Azkenik, Udaletxeak azalduriko zenbait iradokizun eta ekintza ildo orokor jaso zituen, planeamenduaren amaierako idazketan.</p>

11. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	“Emakumeek Plana jarraitzen dugu. Hiria emakumeen ikuspegitik ulertzeko adierazleak”
Data:	1998
Lekua:	Iruñea
Interes arloa:	ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	<ul style="list-style-type: none"> • Iruñeko Udaleko Emakumearen Zinegotzigoak sustaturikoa, Hirigintza Zinegotzigoaren laguntzaz • <i>Emakume hirigileak</i> taldea • Iruñeko emakume elkarteak, 80tik gora
Deskribapena:	<p>Iruñeko Plan Orokorren baitan, “Iruñea emakumeen ikuspegitik” izeneko jardunaldia izan zen partaidetza gehien izan zuen ekitaldia. Hori zela eta, hurrengo urtean EASW parte hartze tailer berri bat antolatu zuten, hiriko emakume elkarteekin. Oraingo honetan, hiri adierazleak definitzea izan zen jardunaldiaren helburua, emakumeek bere hiriaren jarraipena egin ahal izateko, eta Plan Orokorren zehaztapenak eta erakunde parte hartzaileak aztertu ahal izateko, hau da, hiri bizitza arloan, horiek lagungarriak ziren emakume nafarren itzaropenak betetzeko edo, alderantziz, emakumeen eguneroko bizitzarako joera ezkorrei eutsi egiten zieten.</p> <p>Jardunaldi batean zehar, emakumeek adierazle multzo bat diseinatu zuten, hiriaren etorkizuneko joerak kontrolatu ahal izateko.</p>
Emaitzak:	<p>Hiri adierazle multzo zabala, hiriaren honako ezaugarri hauek aztertzeke: berdintasuna, emakumeekiko adeitasuna, talde sozial guztiekiko oreka, segurtasuna eta egokitasuna.</p> <p>Adierazle horiek Udalaren eta bertaraturiko elkarten esku jarri ziren, baita beste hiri edo kolektiboen esku ere, Europako Batasunaren web orrian zuten hedapenari esker: http://cordis.lu/EASW.</p>

12. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	Emakumeak eta Hiria
Data:	1996-98
Lekua:	Bartzelona
Interes arloa:	ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Maria Aurelia Capmany Fundazioa Bartzelonako Diputazioa, Bartzelonako, Reusko, Lleidako eta Donostiako Udalak, Consell Comarcal del Garraf, Institut Català de la Dona, Consejo Mujer de la Comunidad de Madrid, VES Emancipatiebureau Zuid-Holland, Sachsen-Anhalt (Alemania) hiriko Arbeit und Leben, Quartiers en Crise sarea, Hiri Hezitzaileen Sarea eta Europako Batzordea
Deskribapena:	Metodologia bat garatzea proposatzen da. Horren arabera, Foro nagusi batetik bitartekaritza egiten da hiri edo auzo batean bizi diren emakumeen eta Administrazioen emakume politikoen eta teknikarien artean, emakumeen parte hartzea sustatzeko. Emakumeak (bizitegi eremuen erabiltzaile diren aldetik) beren beharrak eta nahiak adierazten ahalegintzea zen helburua. Bestalde, erabakiak hartzen direnen, emakumeak gunehorietan egotea ere sustatu nahi zen.
Emaitzak:	<ul style="list-style-type: none"> • "Emakumeak eta Hiria"-ri buruzko gomendio eskuliburua egin zen. • Hiria erabiltzen duten emakume sare nazionala zein nazioartekoa sortu ziren.

13. EMAKUME NORVEGIARREK 6 UDALETAKO PLAN OROKORRETAN IZANDAKO PARTE HARTZEA

Esperientziaren izena:	Emakumeak eta Hiria
Data:	1989-92
Lekua:	Norvegia
Interes arloa:	ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Ingurumeneko Ministerioa, beste lau ministerioRen laguntzarekin (Nekazaritza eta Arrantza, Tokiko Gobernuak, Lana eta Industria). Leksvik, Gausdal, Ramnes, Sunndal, Nesna, Bremanger udalak. Mire Research Foundation, Oslo.
Deskribapena:	Programaren aitzindaria Ingurumeneko Ministerioa izan zen, eta 1978ko Estatus Berdintasunaren aldeko Legean oinarritzen zen. Helburuak honako hauek ziren: a) emakumeek hurbilekoen dituzten balioak udal planeamenduan sartzeari buruzko ezagutza lortzea. b) ordenamendu planak prestatzea, genero ikuspegi sendo batetik, honako gai hauei buruz: bizitegiko eraikuntza, ekonomiako eta laneko politika, osasunarekin eta ongizateko estatuarekin erlazionaturiko ekimenak. c) proiektuan ikasitakoa herrialde guztian hedatzea, baita nazioartean ere. Neurri sorta zabal baten zati da, emakumearen egoera hobetzeko administrazio publikoko esparru guztietan.
Emaitzak:	<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartze prozesu zabala eta sakona egin zen, eta horretan oinarritu ziren gero egin zituzten 6 plan orokorrak. • Ohiko planekin konparatuz gero, bestelako planak dira, gai berriak azpimarratzen baitituzte, baina planeamenduaren ohiko helburuak ahaztu gabe. • Bi gidaliburu egin ziren eta, haietan, metodoak eta emaitzak laburbildu ziren. Horien izenburuak honakoak dira: "Cookbook" (Sukaldaritza Liburua) eta Hirigintza Alternatiborako Eskuliburua. • Administrazioen arteko ereduazko koordinazio prozesua. • Hedatze mintzaldi eta mintegi ugari.

14. HERBEHERETAKO EMAKUME KOMUNITATEAREN INGURUNE TXOSTENAK

Esperientziaren izena:	
Data:	1994-97
Lekua:	Amsterdam eta Utrecht (Herbehereak)
Interes arloa:	ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	<i>Institute for Public and Politics (IPP)</i> , Inguruneko Ministerioaren laguntzarekin. Ingurumenaren aldeko Emakumeen Herbeheretako Taldea SME Milieu Advisors
Deskribapena:	Iparramerikako WEDO sare feminista indartsuaren laguntzarekin, 1991n mundu konferentzia antolatu zen, emakumeek ingurumenaren kalitateari buruz zuten ikuspegia jorratzeko. Tokiko ingurumenaren zainketarekin konprometituriko emakume talderekin sarea sortu zen. Herbeheretan, zenbait emakume komunitatek galdesorta egitea enkargatu zuten, ingurune egokitzapeneko gaiei buruzkoa, eta baita zenbait gairekin erlazionaturiko politikei buruzkoa ere –indarrean zeudenak edo martxan jarri ahal litzatekeenak–, besteak beste: mugikortasuna, lanaldi bikoitza, bizimodua, kontsumoa eta hurbileko ingurumenaren kalitatea. Emakume taldeek galdesorta horrekin 8 hilabetez egin zuten lan. Emaitzak proiektuaren idazkaritzara (Steering Committee) bidaltzen dituzte, beren proposamenak egiten dituzte eta baita jarraipen prozesua ere, hilean behin.
Emaitzak:	Hiri kudeaketan aldaketak lortzea zen helburua. Emandako informazio zehatzek administrazio publikoko arduradunak aldaketa horien beharretaz ohartaraztea eragingo zutela pentsatzen zen. Antzeko tresnak erabiliz, WEDO (Women’s Environmental and Development Organization) elkarteak eragin nabarmena du Amerikako eta munduko organo politikoetan.

15. VAC: ETXEBIZITZA AHOHKULARITZAKO EMAKUME BATZORDEAK (HERBEHEREAK)

Esperientziaren izena:	VAC (Etxebizitza Aholkularitzako Emakume Batzordeak - <i>Women's Advisory Committees on Housing</i>) <i>Vrouwenadviescommissie voor de woningbouw</i>
Data:	1945ean osatu zen 1. VAC-a eta ideia horrek gaur arte irauten du.
Lekua:	300 udalerrri (Herbehereak)
Interes arloa:	X ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA GARRAIOA X SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Tokiko VACak <i>National Foundation, Utrechten dagoena.</i> <i>Housing Consumer's Buro</i>
Deskribapena:	Emakume Batzordeak eratzten dira, etxebizitza eskaintza zein etxebizitzak inguratzen dituen ingurunea ebaluatzeko. Aholkularitza lanak egiten dituzte zenbait kolektiborentzat: hirigileak, sustatzaileak, udal arduradunak eta erabiltzaileak zein etorkizuneko erabiltzaileak. Fitxa batzuk prestatu dituzte eta horietan zenbait gai hartzen dituzte kontuan: batetik, etxebizitzarekin erlazionaturikoak, esate baterako: etxebizitzan bizi diren guztien jarduera lekua, malgutasuna, irisgarritasuna, moldagarritasuna, segurtasuna, barne espazioaren egokitzapena, erosotasuna eta garbitasuna; eta, bestetik, kanpo eremuekin zerikusia dutenak, besteak beste: irisgarritasuna, segurtasuna, erabilerak eta erabileren malgutasuna.
Emaitzak:	VAC batzordeak daude Herbeheretako 300 udalerrri baino gehiagotan, baita VAC Fundazio Nazional bat ere, eta horren nazio esparruan laguntza ematen die. Fundazioaren ardurak honako hauek dira: batzordeen arteko informazio trukea, ikastaroak eta mintegiak antolatzea, hilero aldizkari bat argitaratzea. Horretarako laguntza teknikoa du eta taldeen eskariak Gobernuari jakinarazten dizkio. Tokiko VACek –horietan 3.000 emakume baino gehiago aritzen dira– etxebizitza sustapenak aztertzen dituzte, erabiltzaileen ikuspegitik, eta etxebizitzaren eta horren ingurumenaren kalitate gaietan jartzen dute arreta, sustatzaileekin negoziatuz.

16. EMAKUME ALEMANIARRENTZAKO ZENTROAK

Esperientziaren izena:	<i>Mütterzentrum Bundesverband e.V. (Mothers Centre Germany)</i>
Data:	1997-2000
Lekua:	Alemaniko zenbait hiri
Interes arloa:	X ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA GARRAIOA X SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	<i>Mütterzentrum Women, Homes and Community –Reg. Center Europe(Munich)</i>
Deskribapena:	Haur txikiak haztekoan isolaturik sentitzen diren emakume talderen ekimenaz, auto-laguntza taldeak sortzen dira, batez ere hiri eremu deprimituetan. Ekimenaren ondorioz, zenbait Ama Zentro sortu dira eta horietan bizi aro horrekin bateragarri diren aisialdia eta prestakuntza jarduerak egiten dira. Ama Zentroetan politika jarduerak egiten dira eta amek hiriaren diseinuan parte hartzen dute, beren eskubideak zein haurrenak defendatuz.
Emaitzak:	Ekimena Alemaniako hiri ugartara hedatu da, eta gaur egun Txekiar Errepublikako hirietan ere martxan jarri dute. Horretarako aukera izan duten udalerrietan, amek hiri diseinuan aldaketa ugari egitea lortu dute eta hirigintzako arduradunen ohiko hizketakide bihurtu dira.

18. BROOKLYN AUZOKO NWR ERAIKINEN ZAHARBERRITZE LANAK, NEW YORKEN

Esperientziaren izena:	<i>Neighbourhood Women's Renaissance: Reclaiming and Rebuilding Community</i>
Data:	1993
Lekua:	Williamsburg (Brooklyn)
Interes arloa:	X ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA GARRAIOA X SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Auzoko etnia anitzetako emakumeen oinarriko elkarten koalizioa, <i>Neighborhood Women's Renaissance Ltd. Partnership</i> enpresan elkarturik.
Deskribapena:	1993an, oinarriko elkarteek Greenpoint ospitale zaharra 3 solairuko eraikin bihurtzea lortu zuten, 33 apartamendurekin. Borroka ez zen hor amaitu, emakumeek plan berriztatzaile bat garatu nahi baitzuten, haurtzaindegi bat eta komunitateko osasun zentroa biltzen zituena. 10 urteko kanpainaren ondoren, elkarteak berak bertatik igarotzen direnentzako zentro bat eraiki du, eta bera arduratzen da zentro horretaz. Bestalde, 45 etxebizitza ere egin zituzten auzoko biztanleentzat, oso arrazoizko prezioan.
Emaitzak:	Ekimenaren helburua etxebizitza diseinuan kontzeptu berriztaileak aplikatzea posible zela erakustea zen, kontzeptu horien aplikazioaren bitartez lorturiko prezioekin pobretasun mailaren azpitik bizi ziren emakumeen biziraupena ahalegintzeko. Auzo ekimen horrek beste ikasbide bat ere eman zuen, hain zuzen auzoa berreraikitzeke <i>input</i> preziatuak direla abandonaturiko lurzorua eta eraikinak berreraibilitzea, eta garrantzitsua dela hori sartzea komunitaterako plan integratu batean. Esperientziak konfiantza eta boterea eman die auzo horretako emakume pobreei eta, aldi berean, plangintzagile eta arduradun politikoei aukera eman die tresna baliagarriak esperimentatzeko, partaidetzako hirigintzan, diseinuan zein finantzazio baliabidetan.

19. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	ESKULIBURUA GENERO BERDINTASUNA TOKIKO ETA ESKUALDEKO GARAPENEAN SARTZEKO (ingelesez)
Data:	1996
Lekua:	Eskualde arteko Europako proiektua, <i>D.G.V-Equal Opportunities Unit</i> erakundeak finantzaturikoa.
Interes arloa:	ETXEBIZITZA HIRIGINTZA GARRAIOA SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	INBAS (Alemania); EKOS (Eskozia); CESEP (Belgika); Interface Europe (Frantzia) eta PID (Alemania) erakundeek osaturiko sarea.
Deskribapena:	<p>Eskuliburu praktikoa baten idazketa, tokiko eta eskualdeko garapen prozesuetan generoko ikuspegia sartzeko.</p> <p>Kapituluak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zergatik berdintasuna tokiko eta eskualdeko garapenean? • Berdintasunerako politikak. • Egoera aztertzea eta emakumeen eta gizonen interesak identifikatzea. • Berdintasunezko parte hartzeak planifikatzea. • Berdintasunerako proiektu proposamenak aztertzea. • Berdintasuneranzko parte hartzeak monitorizatzea eta ebaluatzea. • Berdintasuna sartzeko garapen erakundetan.
Emaitzak:	Sarean parte hartzen zuten erakundeen artean adosturiko eskuliburua idatzi zen.

20. EMAKUMEEN PARTE HARTZE ESPERIENTZIAK, HIRI ESPARRUAN

Esperientziaren izena:	EMAKUMEEN PARTAIDETZA LORCA HIRIKO PLAN OROKORREAN
Data:	2000
Lekua:	Lorca (Murtzia)
Interes arloa:	X ETXEBIZITZA X HIRIGINTZA X GARRAIOA X SEGURTASUNA
Parte hartu zuten eragileak:	Lorca hiriko Udaleko Emakumearen eta Hirigintzako Zinegotzigoak. <i>Colectivo de Mujeres Urbanistas</i> taldea, Pilar de Bustos eta Marisé Lasaosa emakume arkitektoekin batera
Deskribapena:	Lorcako emakumeek EASW parte hartze tailerra antolatu zuten, beren hiriari buruz zituzten interesak eta lehentasunak ezagutzeko, Hirigintzako Plan Orokorra idazketa prozesuan zegoenean. Hiriko eta auzoko elkarteetako 65 emakume inguruk hartu zuten parte, baita zenbait emakume teknikariek eta profesionalek zein politikariek eta administrazioko arduradunek. Gai asko jorratu zituzten eta honako hauei eskaini zieten arreta nagusia: irisgarritasuna eta garraioa; adin guztietako jendearentzako ekipamenduak; hirirako proiektu orokorrak; eta hiri aisialdiarekin eta ingurumenarekin erlazionaturiko gaiak.
Emaitzak:	Emakumeen proposamenak eta lehentasunak Hirigintzako zinegotzigoari jakinarazi zizkieten, haren ardura baita horiek martxan dagoen planeamendu prozesuan sartzea. Oraindik goizegi da emaitza zehatzak egiaztatzeko.

5.

Emakunderen lokalean eginiko tailerraren laburpena

Nola sartu genero ikuspegia hirigintza, garraio eta ingurumen politiketan? Hori izan zen 2000ko martxoaren 14an Emakunderen lokalean eginiko aurkezpenean jorratu zen gaia. Bertan bildutakoak –gizonak eta emakumeak– Hirigintza, Lurralde Antolamendu, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen gaietan eskumena duten Sailetan aritzen dira.

Parte hartzea handia izan zen, Eusko Jaurlaritzaren hirigintza eta ingurumen politiketan generoko ikuspegia sartzeko sustatzeko ideia asko sortu baitziren.

Bertaraturiko taldetik ahalik eta iritzi gehien lortzearen, bakarkako hausnarketa egitea eskatu zitzaizen beren eguneroko lanari buruz. Hain zuzen ere, beren lanaren zein alderdi erabil zitzaizketen oinarri gisa ikuspegi berriak martxan jartzeko, gaur egun, emakumeek gizartean duten paperarekin bat etortzeko. Proposamen asko egin ziren, batetik, hirigileen edo planifikazioak egiten dituztenen lana hobetzearekin zerikusia zutenak, eta, bestetik, emakumeen beharrekin eta eskaerekin erlazio zuzenagoa zutenak.

Jorraturiko gaiak ondorengo ideietan laburbildu daitezke:

Berdintasuneko gai orokorrak

1.1. Helburua: Generoko ikuspegia hiriaren diseinuan

- Hiriaren irudian emakumeak gehiago agertzea: kaleak emakume izenekin, emakume herritar ospetsuei edo emakume jardueri eskainitako monumentuak, hirian emakumeen eguneroko jardueretako leku esanguratsuak.
- Emakumearen historia berreskuratzea, kultura esparrutik zein irakaskuntza araututik, haur da, eskolatik.
- Etxeko lanak eta lan ordaindua bateragarri egitearen aldeko proiektuak.
- Sorospenerako zerbitzuak hobetzea, edadetuentzat, haurrentzat eta arazoak dituzten pertsonentzat, emakumeek zainketa lan horien (hirugarren lanaldia) ardura osoa izan ez dezaten.
- Jakintza alor anitzeko taldeek hiri proiektu integratuak egitea, eduki sozialak kontuan hartzen dituztenak.
- Gizarte eskaera suspertzeko baliabideak antolatzea.

- Mutilek zein neskek, eta gazteek (sexu bietakoak) parte hartzen duten prozesuetan berdintasuna nabarmentzen arreta berezia jartzea, ez bakarrik gizonek eta emakumeek parte hartzen dutenetan.
- Genero gaiak ikasketa planen edukietan sartzeari, baita parte hartzeko edozein prozesutan ere.
- Emakume taldeek batzorde eta parte hartze kontsulta guztietan parte hartzea, auzo elkarrekin, talde ekologista eta abarrekin batera. Bai legedia promulgatzea eragiten duten gaietan, bai erabakiak hartzeko beste edozein prozesutan ere (1.1.4. ekintza).
- Aldikako txostenak egitea, enpresa pribatuak eta erdi-publikoak kontratazioen berdintasun egoera aztertzeko.
- Emakumeek eta gizonek laneko arloetan eta esparruetan duten ordezkartza neurtzeko baliabideak ezartzea, zenbait sektoreetan gehiegizko edo gutxiegizko ordezkartza saihestearren. Kezkagarria da, adibidez, irakaskuntzan aritzen direnak emakumeak izatea ia bere osotasunean, horrek haurrentzako irakasle ereduak izateko aukera galtzea baitakar.
- Generoan oinarrituriko bereizkeria saihestea, baita ekipamendu txikiak ere: adibidez, komun publikoetan (WC) haurrak aldatzeko azpiegiturak egotea, emakumeentzako eta gizonentzako komunitateak.

Hiri ereduarekin eta lurralde antolamenduarekin erlazionaturiko gaiak:

1.1. Helburua. Hirigintza

- Auzo berrien hasierako planeamenduan bizigarritasun eta jasagarritasun irizpide sendoak sartzeari. Gaur egun, gure hiri kanpoaldeak bizitegi auzo kaskarrak osatzen dituzte, bizitegi auzo estandarrek, eta lurzoru berriaren kudeaketaren eraginez, eredu hori saihestea lortu nahi da.
- Emakumeen eguneroko bizitza errazteko asmatutako ekipamenduak eta zerbitzuak: diseinatzean, ordutegi eta irisgarritasun egokietan pentsatzea, batez ere. Haur eskolak eta haur zerbitzuen horniketa arreta bereziz programatzea, gurasoen laneko ordutegiak kontuan hartuz.
- Erabilera anitzeko hiri konpaktuaren eredu bilatzea, hiri "amerikarraren" eredurako joerari aurre eginez, eredu horretan hiri sakabanaturik baitago eta auto pribatuaren erabilera oinarritzen baita eskusiboki (1.1.3. ekintza).
- Dentsitate txikiko hazkunde sakabanatuak saihestea

- Hiriguneak berreskuratzea, era guztietako jendea horietan bizitzera bultzatuz. Esate baterako, hirigunetan Babes ofizialeko etxebizitzak eraikiz.
- Hiri segurua: pertsona ahulengan segurtasun gabeziaren sentrazioa sortzen duten tunelak edo gaizki argituriko eremuak saihestea. Diseinu irtenbideekin probak egin, batez ere gizarteko elementu ahulena kontuan hartuta. Pedagogia curriculumetan indarkeriaren aurkako edukiak sartzea, prebentzio neurri gisa (1.1.6. ekintza).
- Auzoak berronitzea dendaz, ekipamenduz eta lokalez, bizitegiko eremuen inguruetan jarduera ekonomikoa sortarazteko (1.1.3. ekintza).
- Hiri parkeen diseinurako kontzeptu berria: berdeguneen oparotasunaren behar naturala harrizko parkeak eta plazak diseinatzeko joeraren aurka.
- Merkataritzako ekipamenduei zegokionez, guztien adostasuna zegoen merkataritza gune ertainak auzoetan sustatu behar zirela adieraztean.
- Hirigintza Hitzarmenetan kontuan hartu beharko lirateke oinezko ibilbideak eta ekipamendu txikiak (dendak, hartzaindegiak...).
- Auzo trinkoak (autogestionatuak) diseinatzea, beste auzoekin lotura onak dituztenak.
- Portuetan erabiltzen ez diren guneak baliatzea, aisialdirako ekipamenduak kokatzeko.

Mugikortasun eta irisgarritasun gaiak:

1.2. Helburua: Garraio publikoa

GARRAIOA izan zen ideia gehien sorrarazi zituen gaietako bat. Ideiek garraio publikoaren sustapenean eta irisgarritasunaren hobekuntza orokorrean jarri zuten arreta, batez ere.

- Garraio moten erabilerari buruzko ikerketak egitea, generokako eskaera aztertzeke.
- Genero ikuspegia kontuan hartuko lukeen Garraio Erabilerako Araudia egin beharko litzateke. Ikuspegi horrek zenbait gaietan jarriko beharko luke arreta: ibilbideak definitzea, maiztasuna, jatorria-helmuga inkestek ematen duten informazioa (1.2.1. ekintza, 1.2. helburua)
- Hiri garraio lineak sustatzea, tranbia sistema eta oinezko lekualdatzeak indartzea.
- Garraio Publikoko geltoki seguruak eta irisgarriak.
- Garraio publikoko ibilgailuen irisgarritasuna hobetzea. Adibidez, orgak autobusetara igozteak erraztea.

- Bide diseinuko neurriak, oinezko ibilbideak sustatzeko: galtzaden maila igoaraztea bidegurutzetan, edota espaloiena beharrezkoa, traba arkitektonikoak saihesteko.
- Azpiegitura berri bat aukeratu baino lehen, ingurumen eraginaz gain, gizarte eragina ere ikertzea. Esate baterako, errepideren bat zabaltzean andreak eta edadetuek egunero-ko ibilaldirako erabiltzen duten ibilbidea deuseztatzen ez dela kontrolatzea. Azpiegituren hesi efektua kontuan hartzea, eta ibilbideak irekitzen saiatzea.
- Bitartekaritza guztietan parte hartzea: galdetzea, den-dena ebaluatzea. Batzuetan kanpotik irtenbideak proposatzen dira, baijan ez dituzte helburuak betetzen. Adibidez, Bilbo-ko Metroa eta haur aulkitxoentzako lekua gune desegokian.
- Garraio publikoa erakargarri bihurtzearen, estatuaren diru laguntzak ematea, bere erabilera sustatzeko beste zenbait neurriekin batera: lehentasuna ibilbidetan, bide azkarrak...

Etxebizitzako gaiak:

1.3. helburua: Etxebizitza politika

- Beharrezkoa da etxebizitzaren eskaintza anitza izatea, gaur egungo gizartean dauden era askotako bizitza motentzat: guraso bakarreko (aita edo ama) familiak, emantzipatu gabeko gazteak...
- Etxebizitzak eskuratzeko aukerak hobetzea, lurzoru publikoan etxebizitzak egiteko politika lagungarrien bitartez, etxebizitzaren salneurriak merkatzearen. Hipoteka zama astuna da, bizi aro onenean bizi kalitatea mehatxupean jartzen duena.
- Etxebizitzaren alokairuko politikak eta erreserba stockak, aldi baterako zailtasunak dituzten multzoentzat. Laguntza politikak definitzeaz gain, hedatze, informazio, kudeatze ekintzak egitea, aukera horiek gauzatu ahal izateko. Lantokiaren lekuari buruzko galderak sartzeko etxebizitza eskaerako inkestetan, datu horri garrantzitsua baita.
- Etxeko lanetan teknologia aplikatzea (Puntu hori bertaraturiko norbaitek proposatu zuen, baina ez zen talde adostasun argirik egon).
- Etxebizitzaren desjabetze gaietan, generoa kontuan hartzea bizilekua berriro hartzerakoan.
- Garajeetatik etxebizitzetarako zuzeneko sarbideak egitea, erosoak eta seguruak.
- Mantentze lan errazeko eraikin materialak erabiltzea, hau da, garbiketa lan gutxi behar dutenak.

Ingurumen gaiak:

2.1. helburua

- Ingurumen hezkuntza, eskola maila goiztiarretatik, neskei eta mutilei zabor bilketari eta birziklapenari buruzko hezkuntza ematearren.

Ingurumen politikatik berdintasuna sartzeko proposamenak nahiko orokorrak izan ziren: herriarren partaidetza, "ohitura oneko" eskuliburuak egitea, "ingurumena baliabideen kontserbazioaz eta ekonomiaz ulertzea", edota eskola adinetan ingurumena ezagutzeko kanpainak hedatzea. "Mutilak" birziklapenean sartzea izan zen generoa kontuari zegokionez izan zen proposamen bakarra.

6.

Bibliografia eta erreferentzia dokumentalak

- AGENDA HABITAT ESPAÑA (F. ARIAS ETA I. VELÁZQUEZ): "II Conferencia de Naciones Unidas sobre Asentamientos Humanos". Sustapen Ministerioa, Madril, 1996
- AGREST, D. CONWAY, P. WEISMAN, L.K. (EDS.): "The sex of architecture". H.N. Abrams Inc, New York, 1996.
- ALEXANDER, CHRISTOPHER ET AL.: "Urbanismo y participación". Gustavo Gili, Bartzelona, 1976.
- BALLARIN, PILAR ETA MARTÍNEZ, CÁNDIDA (EDS.): "Del patio a la plaza. Las mujeres en las sociedades mediterráneas". Feminae, Granadako Unibertsitatea, 1995.
- BISQUERT, ADRIANA: "El niño y la ciudad. Constancia de un grito en la sorda vida urbana". Madrilgo Arkitekto Eskola Ofizialeko Argitalpen Zerbitzua, 1982.
- BORJA J. ETA CASTELLS M.: "Local y Global".
- BUÑUEL HERAS, ANA ETA DENCHE MORON, CONCHA: "Repercusiones de la ordenación urbana en el uso cotidiano de la ciudad". "El uso del espacio en la vida cotidiana" gaiari buruzko Diziplinarteko Ikerketen IV. Jardunaldietako aktetan. UAM, 1986, 180.-190. orr.
- COS, PILAR: "Interior, privado, doméstico: entorno de mujeres". *El uso del espacio en la vida cotidiana* gaiari buruzko Diziplinarteko Ikerketen IV. Jardunaldietako aktetan. Ed. Prensa de la UAM, 1986. 134.-150. orr.
- CHACÓN, G. CHRISTOFF, G. NAVARRO, I. ESTIRADO, A: "La mujer construye". Emakumearen Instituturako egindako ikerketa proiektua, 1996-98.
- CHOAY; FRANÇOISE "El Urbanismo, Utopías y Realidades". Editions du Seuil, 1965. V.E. de Ed. Lumen, 1970-76-83.
- CHOAY; FRANÇOISE "Le Sens de la Ville" (Colectivo). Editions du Seuil, 1972.
- CHOAY; FRANÇOISE "La Politique des Modèles". Paris, 1975.
- CHOAY; FRANÇOISE "La Règle et le Modèle. Sur la Théorie de l'Architecture et de l'Urbanisme". Editions du Seuil, 1980.
- CHOAY; FRANÇOISE "Eloge du Patrimoine". Editions du Seuil, 1988.
- EMAKUME HIRIGILEEN ELKARTEA Emakumeak hiria eraikitzen (elkarrizketa)
ZE HAR aldizkaria. Arteleku Zentroa, Donostia. 2000ko negua 2000. Dosierra:
Espazioa, generoa eta kritika.

- DURÁN, MARÍA ANGELES: "La Jornada Interminable". Icaria. Bartzelona, 1987.
- DURÁN, MARÍA ANGELES: "De Puertas Adentro". (Zuz.) Kultura Ministerioa. Madril, 1988.
- DURÁN, MARÍA ANGELES: "La ciudad compartida: conocimiento, afecto y uso". Espainiako Arkitekto Kolegioen Goi Mailako Kontseilua, 1998.
- GARCÍA BALLESTEROS (ED.): "El uso del espacio en la vida cotidiana". Diziplinarteko Ikerketen IV. jardunaldien aktak. Emakumeen ikerketen mintegia, Unibertsitate autonomoa, Madril, 1986.
- GREED, CLARA: "Women and planning: creating gendered realities". Routledge, London, 1994.
- HAYDEN, DOLORES: "Challenging the american domestic ideal" en Torre, S. (Ed.) "Women in American architecture: a historic and contemporary perspective". Whitney Library of Design, New York, 1977. 32.-39. orr.
- HAYDEN, DOLORES: "Seven American Utopias: the Architecture of Communitarian Socialism, 1790-1975", Mass., MIT Press, Cambridge, 1976.
- HAYDEN, DOLORES: "The power of place: urban landscape as public history". Camb. Mass. MIT Press, 1995.
- HAYDEN, DOLORES: "La felicidad entre cuatro paredes. "I'll buy that dream". A & V, 1987. (34.-37. orr.).
- HAYDEN, DOLORES: "The Grand Domestic Revolution: A History of Feminist Designs for American Houses, Neighborhoods and Cities". MIT Press. Cambridge, 1981.
- HAYDEN, DOLORES: "Redesigning the American Dream: The Future of Housing, Work and Family Life". W.W. Norton. New York, 1984.
- HAYDEN, DOLORES: "Women and the American City". Catharine Stimpson Ed. University of Chicago Press. Chicago, 1980.
- HAYDEN, DOLORES: "Life Spaces: Gender, Household, Employment". Caroline Andrew and Beth More, Eds. University of British Columbia Press. Vancouver, 1988.
- HERNÁNDEZ PEZZI, CARLOS La ciudad compartida: El Género de la arquitectura. Arkitekto Kolegioen Goi Mailako Kontseilua, 1988.
- ILLICH, IVAN: "El género vernáculo" Planeta, 2000.
- JACOBS, JANE: "Muerte y vida de las grandes ciudades". Península, Bartzelona, 1967.
- JACOBS, JANE: "The economy of cities". Random House Inc. New York, 1969.
- JACOBS, JANE: "Systems of survival". Random House Inc. New York., 1992

-
- LITTLE, J. PEAKE, L. Y RICHARDSON, P. (EDS.): "Women in Cities. Gender and the Urban Environment", Macmillan, London, 1988.
- MOSER, CAROLINE: "Gender, planning and development: Theory, practice and training". Routledge, 1993.
- OECD "Women in the city: Housing, services, and the Urban Environment" OECD Publ., 1995
- PIZAN, CHRISTINE DE: "La ciudad de las damas". Madril, Siruela, 1995. (Jatorrizko edizioa, 1405).
- SEGURA, ISABEL: "La guía de Dones de Barcelona", 1993
- TOBÍO, CONSTANZA Y DENCHE, CONCHA (EDS.): "El espacio según el género. ¿Un uso diferencial?", Madril, Madrilgo komunitatea, Emakumearen Zuzendaritza Nagusia, 1995.
- VALLE, TERESA DEL: "Andamios para una nueva ciudad". Cátedra. Madril, 1997.
- VELAZQUEZ, ISABELA El tiempo de las cerezas: Reflexiones sobre la ciudad desde el feminismo ZEHAR aldizkaria - ARTELEKU Zentroa, Donostia. 2000ko uda. Dossiera: Emakumea, espazioa eta arkitektura. Artikulu hori Biblioteca de Ciudades para un Futuro más Sostenible aldizkarian dago argitaratuta – 19. aldizkaria, 2002ko martxoan <http://habitat.aq.upm.es/boletin/n19/lista.html>
- VVAA: "Nuevas visiones del espacio público y privado" izeneko ikastaroaren aktak. Ed. A. Bisquert y I. Navarro, Madril, 1994.

Beste erreferentzia dokumental batzuk:

Gai honi buruzko Interneteko web orri interesgarriak:

- Biblioteca de Ciudades para un Futuro más Sostenible
E.T.S. de Arquitectura de Madrid, Sustapen Ministerioaren laguntzaz
7. aldizkaria, 1988ko urria.
"Mujer y Ciudad. Una visión de género sobre la vida cotidiana en la ciudad"
<http://habitat.aq.upm.es/boletin/n7/lista.html>
- Europako Batasuneko CORDIS zerbitzaria:
EASW parte hartzeko metodologia, Innovation programaren baitan eginikoa
[http:// cordis.lu/EASW/](http://cordis.lu/EASW/) Pamplona
- Emakume hirigileen elkartea
<http://nodo50.org/mujeresurbanistas>